



ENPLEGU PLANA PLAN DE EMPLEO 2014-2016



AURKIBI DEA

0. Laburpena	3
1. Sarrera	11
1.1 Justifikazioa	12
1.2 Eragina	22
1.3 Ezaugarriak	29
2. Printzipioak eta helburuak	42
3. Jarduteko programa eta ardatz estrategikoak	46
4. Garatu beharreko ekintzak	66
5. Harreman instituzionalerako eta partaidetza-harremanerako formulak	108
6. Baliabide ekonomikoak	110
7. Esperotako eragina	117
8. Planaren kudeaketaren eredua	123
9. Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema	126
1. Eranskina: Plana diseinatzeko erabilitako erreferentziak eta araudia	129
2. Eranskina: 2013ko martxoaren 8an Eusko Legebiltzarrean egindako Hazkunde Ekonomikoari eta Langabeziaren Aurkako Borrokari buruzko eztabaida monografikoan onartutako ebazpen-proposamenak	132
3. Eranskina: EGABen txosteneko ekarpenak Enplegu Plan honetan gehitzea	148



0. Laburpena



Laburpena

1. Enplegua da Jaurlaritzaren lehentasun nagusia

Lehendakaria izendatzeko eztabaida-ekitaldian, lehendakarigai zen Iñigo Urkulluk adierazi zuen Jaurlaritzarentzat lehentasunezkoa zela lehendik dagoen enplegua babestea eta enplegu gehiago sortzeko beharrezko baldintzak eta pizgarriak sustatzea.

Jakina, konpromiso hori aurrekontu-orekari eusteko premiaren barruan kokatu behar da; izan ere, osasunaren, hezkuntzaren eta gizarte politiken alorreko oinarritzko zerbitzuei aurre egin behar zaie, Jaurlaritzaren ildo nagusiak diren aldetik.

Jakin badakigu, egungo krisi ekonomikoari irtenbidea emateko eta enplegua berreskuratzeko, ezinbestekoa dela **aurrekontu-austeritateko politikaren eta suspertze-politikaren arteko orekari** behar bezala eustea, jarduera ekonomikoa sustatzeko eta enplegua sor dadin bultzatzeko.

2. "Txoke-plana", enplegua sor dadin sustatzeko

Enplegua sor dadin sustatzeko estrategia horretarako, Jaurlaritzaren lehendabiziko ekimena izan zen **enplegua sortzeko txoke-plan baten proposamena egitea Jaurlaritzaren lehen 100 egunetan**, eta neurtzeko eta kuantifikatzeko moduko eragina izango zuten neurri zehatzak eta errealistak ezarri zituen.

Proposamen hori erakundeetako eta gizarteko eragileei igorri zitzaienten, azter zezaten eta ekarpenak egin zitzaienten. Eta ekarpen horiek gehitu eta gero osatu da Enplegu Plan hau; Jaurlaritzak, beste erakunde eta gizarte-eragile batzuen laguntzarekin, Euskal Autonomia Erkidegoan enplegua sustatzeko bere gain hartu duen konpromisoa jasotzen duen plana, alegia.

Hala ere, egoera larria zenez, behar-beharrezkoa izan zen esku-hartze zuzena eta adostasuna lortzea aldi berean. Horrenbestez, adostasun hori lortzearekin batera, lehendabiziko proposamenean adierazitako ekimenak pixkanaka ezarri ditu Jaurlaritzak eta akordioen ondorioz sortutako ekimenak ere gehitu ditu. Zehazki, 2013an zehar, Jaurlaritzak zenbait ekimen abiarazi ditu enplegua sortzen eta mantentzen laguntzeko; horien artean honako hauek:

- ETE-en eta autonomoen zirkulatuzailea finantzatzeko funts osagarria, Elkarren Bermerako Sozietateen bermea duena; horren bitartez, 600 milioi euro gehigarri jartzen dira euskal enpresen eskura haien finantziazio-beharrak betetzeko.
- Junior Kooperatiba Programa. Hezkuntza alorreko kooperatibak sortzeko laguntza, prestakuntza jarduerak eta, aldi berean, benetako lanak egiten dituzten gazteen espiritu ekintzailea garatzeko eta bideratzeko.
- Renove Etxebizitza Programa, sektorean enplegua sortzeko eta mantentzeko balio duten birgaitze-proiektuen eskaria sustatzeko.
- Lehen Aukera programako ekimen pilotu bat egituratzea eta garatzea. Lehen Aukera lehen enplegura hurbiltzeko programa berria da, lanbide-heziketako edo unibertsitateko titulua lortu duten gazteei zuzendua. Programa hori 2014. urtetik aurrera gauzatuko da modu egituratuan, eta aurrerapauso handia da "gazteentzako bermea"ren kontzeptua garatzeko.
- Mikrokreditu-programa bat egituratzea, mikrofinantziazioan espezializatuak diren erakundeekin hitzarmenak eginez. Horren ondorioz, mikroekintzailatza-programek

finantziarioa lortuko ahalko dute proiektuaren berme hutsarekin eta interes-tasa txikiekin.

Ekimen berritzaile horiek guztiak indartu egingo dira 2014-2016 Enplegu Plan honen barruan.

Jakitun gara Plan hau **lehendabiziko urratsa baino ez dela eta epe laburrera duela eragina**. Bertan adierazitako ekimenek eragin handiagoa izan dezaten, **ezinbestekoa izango da ekonomia sustatzeko estrategia zabalago batekin osatzea, zeinak, epe ertainera, Euskadiko industria-sare osoaren lehiakortasuna hobetzea xede izango baitu/Bold>**. Hau da, funtsezko lau zutabe hauek oinarri izango dituen estrategia: inbertsio publikoa, industrializazioa, berrikuntza eta nazioartekotzea.

3. Arlo publiko eta pribatuaren arteko ezinbesteko lankidetzaren eta estatuaren zein nazioartearen ingurunea

Administrazio publikoen erantzukizuna da, eta hain zuzen, Eusko Jaurlaritzarena, gure eskumenen eta aurrekontu-ahalmenen arabera jardutea, ekimen pribatuak –enpresaburuek– konfiantza berreskuratu dezaten, bai eta beharrezko baldintzak sustatzea ere, etorkizuna itxaropenez ikus dezaten. Azken batean, administrazio publikoen betebeharra da laguntzea, sustatzea, bultzatzea eta bidea prestatzea. Baina kontuan izan behar da enplegua ez dela dekretu bidez sortzen. Ez dago hagaxka magikorik. **Enpresa-espektatiben eta -erabakien arabera sortzen edo suntsitzen da enplegua.**

Horren haritik, ezinbestekoa da erakundearen arteko lankidetzaren, bai eta arlo publiko eta pribatuaren ekonomia-alarreko eragileekin elkarlanean jardutea ere. Baina, hori beharrezkoa bada ere, ez da nahikoa. EAEko ekonomia erabat lotuta dago estatuko eta Europako ingurune ekonomikoaren bilakaerarekin.

Datozen hilabeteetarako aurreikuspen ekonomikoak ez dira oso itxaropentsuak Espainiako eta Europako inguruneetan, baina aurreko hilabeteetakoak baino pixka bat baikorragoak badira. Ezin dugu gure burua engainatu, zintzoak eta gardenak izan behar dugu. Nahiz ahalegin handia egin dugun, **langabezia-tasak behera egingo du, gure barne-produktu gordinak (BPG) gora behar beste egiten duenean**. Azken urteetan, 2013. urtea izan da latzenetakoa, latzena izan ez bada, eta 2014a ere hala izango da ziur aski.

4. Enplegu Plan hau bat dator 2013ko martxoaren 8an Legebiltzarrean onartutako oinarritzko ildoekin eta ebazpen-proposamenekin

Martxoaren 8an Eusko Legebiltzarrak enpleguari buruz egindako osoko bilkuran enpleguaren aldeko ehun ebazpen-proposamen baino gehiago onartu ziren. Proposamen-kopuru handi horrek agerian uzten du alderdi politiko guztiek dutela kezka eta ardura enpleguaren alorrean.

Onartutako proposamen horiek heterogeneoak dira, eta askotariko helburu eta jardueraren eremuen baitakoak dira. Batzuk arau-emaileak dira, eta beste batzuen eragina, berriz, epe ertainean nabaritutako da, ekonomia suspertzeari dagokionez. Nolanahi ere, Legebiltzarreko bozeramaileen esku-hartzeak eta ebazpen-proposamenek honako printzipio hauek dituzte oinarri:

- **Larrialdi-egoeran gaude**, eta beraz, Enplegua Sustatzeko Plana lehenbailehen aurkeztu beharra dago.
- Lehendik dauden enpleguei eustea eta berriak sortzea **Jaurlaritzaren lehentasun nagusia** izan behar du.
- Egoera ahulean dauden pertsonak laneratzea behar-beharrezkoa da, **haiek bizi duten gizarte-bazterketako egoera betikotu ez dadin**.
- **Enplegua konpromiso globala da**. Horretarako, ezinbestekoa da EAEko erakunde guztien arteko lankidetzaren eta elkarrekiko osagarriak izatea.
- **Elkarrizketaren eta elkar-hartze sozialaren kulturak** erabakigarria izan behar du enpleguari eusteko.

- Enpleguaren aldeko txoke-plan bat beste neurri batzuekin osatu behar da; hain zuzen, enpresa ertain eta txikien lehiakortasuna epe ertainera hobetzen lagunduko duten eta ekonomia suspertzen lagundu duten neurriekin.

Denenak diren printzipio horiek oinarri hartuta, Eusko Legebiltzarrak adierazi du Enplegu Planak helburu hauek bete behar dituela, besteak beste:

- Herritar aktiboen, eta bereziki egoera ahulean dauden herritarren laneratzea eta enplegua bultzatzea, gazteen egoerari erreparatuta batik bat.
- Ekintzailtza sustatzea eta enpresa txiki eta ertainei laguntzea.
- Enpleguan eragin zuzena duten lanetan eta proiektuetan inbertsio publikoa zein pribatua sustatzea.
- Erakundeen arteko lankidetzeta eta arlo publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlana sustatzea, enplegu-suntsiketa arintze aldera.
- Lan-baldintzak hobetzea eta kontratazioen alorrean iruzurraren aurkako borroka egitea.

Horrez gain, jarduera-ardatz hauek adierazi nahi ditugu, Legebiltzarraren proposamenak gauzatzeko bitarteko komunak baitira:

- Enpresa txiki eta ertainak finantzatzen laguntzea.
- Gure udalerrien eta eskualdeen gaitasun endogenoak baliatzea.
- Ekintzailtza eta autoenplegua.
- Gazteen enplegua sustatzea.
- Enplegurako prestakuntza.
- Enplegua sortzeko inbertsioa.
- 50 urtetik gorakoak.
- Lan-baldintzak hobetzeko borroka.
- Lana, bizitza pertsonala eta familia bateragarri egitea.
- Emakumeen enplegua.

5. Hausnarketatik ekintzara

Enplegu Plan hau bat dator Eusko Legebiltzarrak proposatutako oinarriekin. **Ekintzarako plan bat** da, **ez hausnarketarako plana**. Sei programa operatibo hartzen ditu bere baitan, bai eta neurtzeko eta kuantifikatzeko moduko konpromisoak ere. "Aurpegia eta begiak" ditu planak, eta bere baitan hartzen dituen partidak benetan eta zehatz-mehatz adieraziko dira Eusko Jaurlaritzaren urteroko aurrekontuetan.

Planak ez du xede lehendik dauden eta gauzatu diren estrategiak ordezkatzeko –esaterako, Enpleguaren Euskal Estrategia, bere baitan hartzen dituen Eusko Legebiltzarrean eztabaidatu eta onetsitako hausnarketak–, baizik eta haiek zehaztea eta ekintzen bidez erantzutea.

Sei programa operatibo

Enplegu Plana sei programa operatibo hauen bidez jarriko da abian:

1. Enpresa txiki eta ertainak eta tokiko garapena sustatzea.
2. Ekintzailtza sustatzea.
3. Gazteen enplegua sustatzea. Gazteentzako bermea.

4. Enplegurako prestakuntza.
5. Enplegu inklusiboa. Enpleguarekiko elkartasuna.
6. RENOVE birgaitzea.

Eusko Jaurlaritzak Enplegu Planerako 775 milioi euroko aurrekontu publikoa aurreikusi du, 2014-2016 epean Euskadin enplegua sustatzeko erabiliko dena

2014-2016 eperako **planaren aurrekontu publikoa, guztira, 775 milioi eurokoa da**. Horrez gain, Jaurlaritzak aurrekontuetan egingo duen ahaleginari esker, **1.566 milioi euro gehiago jarriko dira abian** finantzazio eta inbertsio pribatuaren alorrean; horrek esan nahi du, Planak bere baitan hartzen dituen ekimenetarako, guztira, 2.341 milioi euroko baliabideak aurreikusten direla 2014-2016 eperako.

Planak beharrezkoak diren lan-aukera berriak eskainiko ditu; izan ere, enplegu-egoera negatiboa izaten jarraituko du 2014an ere.

Enplegu Plan honek bere baitan hartzen dituen neurriek **ondorio positiboak ekarriko dituzte, baina ez dira nahikoak izango urte honetarako aurreikusitako barne-produktu gordinaren bilakaera negatiboak enpleguan izango duen eragina aldatzeko.**

Zoritxarrez, langabeziak gora egiten jarraituko du datozen hilabeteetan. Baina hala eta guztiz ere, erabat ziur gaude **egoera are eta okerragoa izango litzatekeela nabarmen txoke-neurrien premiazko plan hau abian jarriko ez bagenu. Neurri horiek ez dute arazoa konponduko, baina egoera arintzen lagunduko dute**, gure ahalmenen barruan.

Plan honek bere baitan hartzen dituen ekimenei esker, **lana hobetzeko aukera izango du jende askok**. Aukera horietako batzuk aringarriak izango dira, aldi baterako enpleguak baitira; eta beste batzuek, berriz –esaterako, enpresa berriak sortzearekin zerikusia dutenak–, denbora luzeago irauteko asmoa dute.

2014-2016 epean ondorio hauek aurreikusten dira:

- Gutxi gorabehera, **32.000 enplegu sustatzea**.
- **134.000 enpleguri** baino gehiagori **eusten laguntzea**.
- **23.000 gazteri lan-arloan lehendabiziko esperientzia** izateko aukera ematea.

6. Plan malgua eta irekia, erakundeen eta politikaren arteko elkar-hartzeko konpromisoa dakarrena, bai eta beste eragile batzuekiko konpromisoekin bat egotea ere

Plan hau bat dator **EAJ eta PSE-EE (PSOE) alderdi politikoek** 2013ko irailaren 16an sinatu zuten **Akordioan** beren gain hartu zituzten konpromisoekin eta adostutako printzipioekin. Akordio horrek **Euskadi moderno, solidario, iraunkor era lehiakorragoa izan dadila** du helburu.

Akordio horrek 4 akordio garrantzitsuk osatzen dute: 1) Ekonomia produktiboa eta enpleguaren sorrera bultzatzeko akordioa. 2) Fiskalitatea; iruzurraren aurkako borroka eta zerga-sistema berria. 3) Euskal erakundeen arkitektura berrikustea eta Administrazioa eraberritzea, lehiakorragoa, eraginkorragoa eta iraunkorragoa izan dadin. Eta 4) Ongizatea XXI: gure gizarte-ereduari eta oinarriko zerbitzu publikoei eusteko akordioa. Lehenengo akordioak, Ekonomia produktiboa eta enpleguaren sorrera bultzatzekoak, jarduera-ildo hauek jasotzen ditu enplegu-politikari lotuta:

- Iraupen luzeko langabetuei eta lan-esperientziarik gabeko gazteei zuzendutako berariazko enplegu-proposamena, zeinetan laguntzak emango baitira kolektibo horietako pertsonak kontratatzeko, betiere, arreta berezia jarrita langabezia maila handiena duten eskualdeetan.

- Enpresak suspertzeko programa, finantziazioa abalen bitartez ziurtatzeko, baldin eta enpresek Euskadin enplegua sortzen badute, esportazio-kontratuak sustatzen badituzte edota I+G+b-ko balio erantsi handia duten inbertsio-proiektuei ekiteko fasean badaude.
- "Euskadi Funtsa" ezartzea, enpresa-ekimen berriak berriazko zerga-tratamendua izango duen kapitalaz hornitzeko.
- RENOVE programak bereziki eta berriaz sustatzea ekonomia-krisiak edo bestelako lehentasunezko politika publikoek bereziki eragindako ekonomia- eta merkataritza-jardueretan.
- Eusko Jaurlaritzak beharrezko ekimenak sustatzea patronalak eta sindikatuek akordioak lor ditzaten Euskadiko negoziazio kolektiboan.

Instituzioen arteko akordioari dagokionez, konpromiso hori agerian jarri zen **Ekonomia eta Enplegua Sustatzeko Erakunde Arteko Mahaian**, zeina **2013ko maiatzaren 8an** bildu baitzen Lehendakaritza, bertan zirelarik lehendakaria, 3 foru-diputatuak eta Eudel erakunde presidentea. Erakundeen arteko esparru horretan, baterako lanean aritzea erabaki zen, honako xede hauek izanik: Ekonomia Sustatzeko Aparteko Plana diseinatzea eta gauzatzea, Enpleguaren alorreko tokiko zein eskualdeko planak egitea eta Ekintzailtzarako Euskal Funtsa abian jartzea.

Erakundeen arteko konpromiso horren ondorioz, joan den 2013ko irailaren 30ean, Eusko Jaurlaritzaren eta hiru foru-aldundien artean **Inbertsiorako eta Ekonomia Berrakibatze Erakundeen Arteko Akordio** bat sinatu zuten, 180 milioi eurokoa.

Bestalde, eta aipatutako erakundeen arteko mahaian adostutako bigarren akordioa garatze aldera, joan den urriaren 17an, Eusko Jaurlaritzak 20 milioi euroko aparteko zuzkidura onartu zuen enplegua sustatzea xede duten tokiko zein eskualdeko planak egiteko, EUDEL erakundearekin batera.

Esparru-akordio orokor horrez gain, Jaurlaritzak hitzarmen espezifikoak ezarri nahi ditu, enplegua sortzen, enpleguari eusten eta/edo EAEko herritarren enplegarritasunak gora egiten lagun dezaketen erakundeen arteko lankidetzak xede duten ekimenak garatzeko.

Hain zuzen, enpresak sortzen laguntzeko ekimenetan arrazionalizatzeko eta optimizatzeko tarte handia dagoela ulertzen da. Hau da, tarte handia dago administrazioek (tokikoak, foru-aldundietakoak eta autonomikoak) eskura dituzten baliabide guztiak abian jar ditzaten (sentsibilizatzeko, aholkuak emateko, finantzatzen laguntzeko, enpresa berriek lehen urratsak eremu egokietan eman ditzaten laguntzeko) eta bitarteko berriak modu koordinatuan gara ditzaten (batik bat, finantzazioaren alorrean), eta horrela, Euskadi benetako herrialde ekintzaile bilaka dadin eta Euskadin sortzen diren ekimen ekintzaileak ahalik eta baldintza onenetan gara daitezten. Horretarako, 2013ko uztailaren 2an, **Euskal Ekintzailtza Sistema garatzea xede duen lankidetzarako esparru-akordio bat sinatu zen**, EAEko gizartearen ahalmen ekintzailea modu eraginkorrean eta efizientean sustatzeko eta bultzatzeko. Esparru-akordio hori garatu eta zabaldu egingo da, hain zuzen, etorkizunean sortuko den Ekintzailtzaren EAEko Planaren bidez.

Horrez gain, plan hau bat dator **EAJ eta PSE-EE (PSOE) alderdi politikoek** 2013ko irailaren 16an sinatu zuten **Akordioan** beren gain hartu zituzten konpromisoekin eta adostutako printzipioekin. Akordio horrek **Euskadi modernoagoa, solidarioa, iraunkorra era lehiakorra izan dadin** du helburu.

7. Jaurlaritzaren ekintzaren Enplegu Plan integratzailea

Esparru eta programa operatiboetan inplikaturik dauden Jaurlaritzako hainbat sailtako 50 lagunen baino gehiagoren parte-hartzearen ondorio izan da Enplegu Plan hau. Lehendakaritza Idazkaritzak koordinatu ditu parte hartu duten pertsona horiek guztiak, lan-batzorde baten bidez. Batzorde horretan, Lehendakaritza gain, honako hauek aritu dira

lanean; Ogasun eta Finantza Saila, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila, eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

Bestalde, Osasun Sailak eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ere parte hartu dute, batik bat.

Eskumen-eremua dela eta, Enplegu Plana aurrerantzean garatzeko eta gauzatzeko erantzukizun handiena Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak du, baina Jaurlaritza osoa inplikaturik egongo den estrategia bat da, Lehendakariak erabateko erantzukizuna duela.

8. Espezializazio Adimendunerako (RIS3) Euskal Estrategiarekiko koherentea da Enplegu Plana

Gainera, Plan hau berez lotuta dago Euskadiko Espezializazio Adimendunerako Ikerketa eta Berrikuntza Estrategiarekin (2020). Horretarako, gure gaitasunak hartu ditugu abiapuntu, lehiarako alde onak zehaztu ditugu eta 2014-2020 epean gure herrialdean enpresa-garapenerako eta berrikuntzarako zer eremuk eta zer sektorek duten lehentasuna zehaztu dugu.

Ekonomia-garapenerako politikak eta enplegu-politikak bat etortzea ezinbestekoa da, eta horren harira, Enplegu Plan honen jarduera-multzo handi bat hazteko aukera duten lehentasuneko eremu horietara bideratuta dago; izan ere, eremu horiek lotura handia dute jarduera berritzaileekin eta nazioartera bideratutako jarduerekin. Baina, horrez gain, tokiko eremuekin eta gizarte-premiekin zerikusi handien duten aukerez baliatzea ere kontuan hartu dugu; izan ere, enplegu-hobiak dira Gizarte Ongizatearen esparruan, gizarteratzea eta ingurumenarekiko errespetua xede dutenak.

9. EGABen gomendioak jasotzen dituen enplegu-plan bat

2013ko abenduaren 23an jasotako EGABen gomendioekin bat eginik, urtero egin ohi den eguneraketari legegintzaldi honetan zehar ekiteko Enplegu Plan honek behar bezainbesteko irekitasuna eta malgutasuna duela berresten du Jaurlaritzak.

Konpromiso horri eutsi nahirik, Enplegu Plana martxan jarriko deneko prozesuan EGABen gomendioak ere kontuan hartuko dituela adierazten du Jaurlaritzak, Plan honekin batera argitaratzen den Eranskin espezifikoan EGABen gomendioak behar bezala txertatzeko Jaurlaritzak egindako proposamenetan azaltzen denez.

Hori dela eta, EGABen txostenak berak espresuki dioenez, ezinbestekoa da garbi esatea enplegua ez dela beste ezer kontuan hartu gabe uler litekeen aldagai aske bat, eta, beraz, Enplegu Plan honi buruz egon litezkeen iritziek ere oso kontuan hartu beharko litzuketela ekonomia suspertzea ardatz hartzen dituzten beste zenbait plan estrategiko.

Horregatik, hain zuzen, eta EGABen ekarpenekin jarraituz, Enplegu Plan hau estrategia zabalago batean kokatzen da; hartan, Enplegu Planaz gain, beste lau Plan osagarri ere hartzen dira aintzat, legegintzaldi honetan ekonomia suspertzeko Jaurlaritzak abiarazitako estrategiak barne hartzen dituenak. Hauek dira, hain juxtu, estrategia horren lau ardatzak: Inbertsio publikoa; berrikuntza; Internazionalizazioa; eta Industrializazioa.

Plan estrategiko horiek guztiak 2014an zehar hezuramamituko dira, eta, Enplegu Plan honekin batera, Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi honetarako proposatutako "Enpleguaren eta Ekonomia Suspertzearen aldeko Esparru Programa" izeneko osatuko dute.

Estrategia horren baitan kokatzen da, beraz, Enplegu Plan hau; baina, edonola ere, kontuan harturik larrialdi-egoeran gaudela –Lehendakariak berak halaxe azpimarratu zuen bere inbestidura-hitzaldian–, beharrezkotzat jo dugu, gainerako planekin estu lotuta egon arren, estrategia osoa argitaratzeko prest izan aurretik Enplegu Plan hau bereiz argitaratzea, koherentzia orokorraren mesedetan izango delakoan.

Atariko gogoeta horietan oinarriturik, EGABen gomendioak ontzat eman eta oso kontuan hartu ditu Jaurlaritzak. Nolanahi ere, berriro diogu lehenbailehen jarri behar direla abian larrialdi-plan honetan proposatzen diren neurriak eta ekimenak.



1. Sarrera



1.1 Testuingurua. Justifikazioa




Ekonomiaren ikuspegitik eta ekonomiak enpleguan duen ondorio dramatikoaren ikuspegitik EAEn bizi dugun egoera larriari aurre egitea xede duen plana

Euskal Autonomia Erkidegoan barne-produktu gordinak behera egin zuen 2008. urtean, eta 2009an, berriz, bilakaera negatiboa izan zen (-%3.9). **2010eko errekupeazioa oso ahula izan zen (+%0,4) bai eta 2011koa ere (+%0,3)**, baina, edonola ere, **2013ko hirugarren hiruhilekoan, ahul bada ere, gora egin genuen**, eta urtetik urterako adierazle-tasa -%1,1 izan zen. Egoera ekonomiko korapilatsu horrek, nahiz inguruko erkidegoetakoa bezain korapilatsua ez izan, arriskuan jartzen ditu demokraziako eta autogobernuko urte hauetan lortutako aurrerapen askotan.


Europako egungo krisi ekonomikoak eta finantzarioak agerian uzten du ezinbestekoak direla ekonomiaren alorrean, oro har, neurri eta kontrol zorrotzagoak. Europako hainbat gobernu politikak eta neurri murriztaileak ezarri dituzte orain artean, baina badirudi ez direla nahikoak izan; izan ere, herritarrei sakrifizio handi eta asko eragin dizkiete, baina ez dute lortu krisiak gizarte-ongizatearen eta oreka sozialaren alorrean eragin dituen ondorio kaltegarriak arintzea.

Egoera horrek oso ondorio kaltegarriak eragiten ditu enpleguan. 1990eko hamarkadaren lehendabiziko erdian krisiak eragin zituen zenbatekoak bezain txarrak izan ez baditugu ere (235.000 langabe, %25,6ko langabezia-tasa eta 683.000 pertsona bakar-bakarrik lanean 1993an), **2008-2012ko aldian Euskal Autonomia Erkidegoak 93.000 enplegu galdu ditu eta langabeen kopuruak gora egin du (83.000 lagun gehiago daude lanik gabe)**; hau da, 2012. urtearen amaieran, 130.000 lagun zeuden lanik gabe eta langabezia-tasa %12,8koa zen (datuak: BJA). Lanbideren bulegoetan erregistratutako langabezia erreferentziatatzat hartuz gero, 2012. urtearen amaieran 169.083 lagun zeuden lanik gabe eta 2013ko abenduan, berriz, **167.374 lagun**. Kopuru hori zorrotz alderatu behar da Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden pertsonen kopuruarekin; 2013an, Euskadin, 12.500 lagun gutxiago zeuden afiliatuta.

EAEko barne-produktu gordinaren urtetik urterako hazkunde-tasaren bilakaera hiruhilekotan (Iturria: Eustat)



Biztanle landunen eta langabeen bilakaera EAEn, 1985-2012 (Iturria: BJA)



Egungo egoera ez da oso ohikoa gurean, latza delako eta denboran asko luzatzean ari delako, eta egoera ahulean dauden pertsonen eta kolektiboen eragiteaz gain, desoreka sozialeko arazo bat eragiten ari da, honako ezaugarri hauek dituen:

- Iraupen luzeko langabeen kolektiboa handia da, lan-merkatuan sartzeko gero eta arazo gehiago izango duena.
- Gazteen arteko langabezia-tasa ia %50ekoa da.
- Enpleguari eusteko erresistentzia-ahalmena galtzen ari dira enpresak.
- Barne-kontsumoa gero eta txikiagoa da.

Eta horrezaz guztiaz gain, kontuan izan behar dugu estatu babesleari eusteko baliabide publikoak gero eta urriagoak direla eta hura dela justizia sozialaren bermea.

Egoera halakoa izanik, administrazio publikoek ezinbestez sustatu behar dituzte politika antiziklikoak eta jardura ekonomikoa eta enpleguaren sorrera suspertzeko neurriak hartu behar dituzte, bereziki gazteei eta luzaroan langabezian daudenei begira.

EAEko lan-merkatuak ahulezia eta arrisku handiak ditu

AHULEZIAK

- **Enplegu-tasa txikia** (%65), Bruselak 2020rako proposatutako helburua baino nabarmen txikiagoa (%75).
- **Enpresek kapitalizazio eskasa dute eta kanpoko finantzazioa lortzeko arazoak dituzte;** horrek guztiak zailago egiten du enplegua sortzen duten inbertsio produktibo berriak abian jartzea.
- **Goi-teknologiako sektoreen garapena txikia da eta ezagutza-maila handia,** gai ez dena kualifikazio-maila handiko belaunaldi berrien lan-eskaintza bereganatzeko.
- **Lehen sektorea oso marjinala da;** 16 urtetik 64 urtera bitarteko biztanle guztien enplegu-tasa %0,6koa baino ez da, Europar Batasun osoan baino %1,4 gutxiago.
- **Jarduera ekintzailearen indizeak txikiak dira,** faktore hauen ondorioz, besteak beste: ekintzailetzarako espiritu eskasa, finantzazioa lortzeko zailtasunak eta enpresa berriak sortzeko izapide burokratiko gehiegi.
- 2008-2012 epean **enplegua erregulatzeko espediente (ERE) asko.**
- **Hezkuntza-maila kontuan hartuta, biztanleria aktiboa banatuta dagoen modua oso atipikoa da,** Europak duen banaketaren aldean. Izan ere, oso polarizatuta dago; batetik, hezkuntza-maila handia duen pertsonen prebalentzia oso handia da (horrek esan nahi du, ikerketarako, teknologia-garapenerako eta berrikuntzarako aukera handia dagoela), eta bestetik, lehen mailako ikasketak dituztenen kopurua Europako batez bestekoa baino handiagoa da.
- Ez datoz bat **enplegua eta araututako prestakuntza-maila;** desoreka horrek, batez ere, kualifikazio-maila handien duten herritarrei eragiten die, haien eskariari aurre egiteko lanpostu-eskaintza txikia baita.
- **Gure lan-merkatuaren dualtasuna,** aldi baterako kontratua duten pertsonen eta lan-kontratu mugagabea duten pertsonen artean. Aldi baterako kontratuen tasa handia da (%21,7), EBko batez bestekoa baino askoz handiagoa (%13,7).
- **Lanaldi partzialeko kontratua** duten pertsonen ehuneko handi bat **ez dago gustura daukaten lanaldiarekin,** lanaldi osoko kontratuak nahiago baitituzte.
- **Emakumeek zailtasunak dituzte lan-merkatuan sartzeko eta baldintza berdinak lortzeko;** emakumeen eta gizonen langabezia-tasa berdintsua bada ere, gizonen aldean jarduera-tasa txikiagoa dute, aldi baterako zein lanaldi partzialeko kontratu gehiago dituzte eta soldata txikiagoak dituzte.
- **Gazteen langabezia-tasa handia da.** Gainera, nahiz eta EAEn eskola uzten dutenen tasa (%7,7) Europak 2020rako ezarritako helburua baino txikiagoa izan (%10), oraindik ere kualifikazio eskasa duten eta epe laburrean zein luzean kalitate oneko enplegua lortzeko aukera gutxi duten gazteen kopurua handia da.
- Adina, eta zehatz-mehatz, **adin heldua da lan-merkatutik diskriminatzeko faktore nagusietako bat,** ez bada jada diskriminatzailleetako bat. Lan-alorreko erreformek erretiroa hartzeko legezko adina 70 urtetan ezartzera bideratuta daude, baina merkatuaren funtzionamenduak oztopo handiak jartzen dizkiete beren borondatearen kontra enplegua galdu duten eta berriro lanean hasi nahi duten 45 edo 50 urteko pertsonei.
- **Iraupen luze**ko langabezia-poltsa handiak.

- **Desgaitasunen bat duten pertsonen arazo asko dituzte lanean hasteko**, ohiko lan-merkatuan hasteko, batez ere.
- **Etorrinen langabezia-tasa** espainiarren langabezia-tasaren bikoitza da.
- Enpleguaren alorrean, **eremuen artean desoreka** handiak daude; izan ere, zenbait eskualdetan langabezia-tasa %20tik gorakoa da (Ezkerraldea eta Enkarterriak).

MEHATXUAK

- **Globalizazioak gero eta erronka handiagoa dakar lehian** aritzeko gaitasunean; izan ere, gero eta herrialde lehiakide gehiago dago, soldatetan gastu txikiagoak dituztenak, giza kapitalaren stock handia dutenak eta kapitala erakartzen dutenak.
- **Lan intentsiboko produkzio-jarduerak deslokalizatzeko** arriskua, kualifikazio txikiko industria-alorreko enplegua galtzea ekar dezakeena.
- **Administrazio publikoetan lan-eskaera gutxiago** egiteko arriskua, aurrekontuetan murrizketak egitearen ondorioz.
- **Enplegua polarizatzeko** arriskua, maila handiko eta maila txikiko lanbideen eskarien kopuruak gora egiten duela eta maila ertaineko lanbideetan eskarien kopuruak behera egiten duela edo bere horretan geratzen dela.
- Kualifikazio-maila ertain eta handiko langileek, orain arte bezala, enplegu hobeak bilatzeko aukera gehiago izango dituzte, kualifikazio-maila txikia dutenen aldean; hala ere, aurreikusitakoaren arabera, krisi-garaian, **kualifikazio-maila handi eta ertaina duten langile askok kualifikazio-maila txikia eskatzen duten lanpostuetan arituko dira**. Batzuentzat aldi baterako lan-egoera izango da, baina egungo egoera zenbat eta gehiago luzatu, egoera horrek eragiten dien pertsonen sentituko duten frustrazioa ere handiagoa izango da, eta horrez gain, haien kualifikazioari benetan dagozkien profilen prozesuak zaharkitu egingo dira.
- **Desoreka demografikoa oso handia** da, jaiotza-tasa oso txikia delako 80ko hamarkadaz geroztik. Horrek giza kapitala nabarmen murriztea ekarriko du eta lan-indarra ordezteko arazoak izatea, bai eta berebiziko garrantzia duten sistemetan –esaterako, Gizarte Segurantzaren– kontuak koadratzeko arazo handiak edukitzea ere. Horrez gain, gazteen emantzipazioa atzeratzen ari denez, familia bat osatzeko aukera ere atzeratu egingo da, eta horren ondorioz, gizarteak aurrera egin dezan beharrezkoa den belaunaldi-erreleboa ere bai.
- Gazteen enplegu-tasa handia da eta lanean hasteko garaia atzeratzen ari da, eta beraz, horren ondorioz, **gazte askok emigratu beste aukerarik ez dute izango**, eta horrek, aldi berean, alde egin zutenek **berrito "etortzera" arriskatu nahi ez izatea** eragingo du. Atzerritik etxera itzultzen ari diren gazteen kopuruak beheranzko joera du 2008. urteaz geroztik. 2011. urtean, gazteen %41 soilik itzuli zen atzerritik, eta 2005ean, berriz, gazteen %93 itzuli zen etxera.
- **Lan-erreformak eta adostutako hitzarmenen indarraldia amaitzeak** lan-alorrean gatazka handiko epe bat bizitzea eragin dezakete; izan ere, gaurdaino ez da posible izan enpresaburuen eta langileen artean adostasunik lortzea, gai horri elkarren artean adostuta aurre egin ahal izateko.

Baina indarrak eta aukerak ere baditu

INDARRAK

- **Ekonomiak alderdi positiboak** ditu. Besteak beste: heldutasun-maila handia; kanpo-sektoreak garrantzi handia; produkzio-maila handia eta biztanleko barne-produktu gordina handia; eta berrikuntza-politika, nahiz hobea izan zitekeen, dagoeneko ibilbide luzea du egina, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sare sendoa sortzea eragin duena. Barne-produktu gordinaren %2,06 erabiltzen da I+G+Bren alorrean; hau da, autonomia-erkidego berritzaileenetako bat gara, nahiz eta gai horretan erreferentziatzat hartzen diren herrialdeen mailara iristen ez garen (%3,5 ingurukoa da).
- Gure ekonomian, **pobrezia-maila eta behin-behinekotasunaren maila txikiak dira**, herrialde aurreratuenen antzekoak dira; hori horrela dela agerian dago, Espainiaren aldean barne-eskaria gutxiago murriztu delako eta lanean ari direnen koefizienteak handiagoak direlako eta finkatutakoak daudelako.
- **EAEko produkzio-sareak ahalegin handiak** egin ditu beste merkatu dinamikoago batzuk bilatzeko eta gehiago esportatzeko, hain zuzen, estatuko eskariaren beherakada eta bertako barne-eskariaren beherakada konpentsatzeko.
- **Sektore-egitura orekatua** da; industriaren sektoreak garrantzi handia du eta eraikuntzaren sektoreak gutxiago, krisi honetan ezaugarri bereizgarria izatea eragin duena.
- **Industriaren sektorea** oraindik ere EAEko jarduera ekonomikoaren ezaugarrietako bat da, nahiz eta azken urteotan protagonismoa galtzen ari den nabarmen, eta bereziki bizi dugun krisi-garai honetan. Gaur egun, enplegu-tasa industrian %14,1ekoa da, Europar Batasuneko batez bestekoa baino 3 puntu handiagoa. Lana duten biztanle guztien %22,8 industriaren sektorean ari da lanean.
- **Prestakuntza- eta hezkuntza-eskaintza** zabala eta kalitate onekoa da, eta horrez gain, hezkuntza-sistema eta produkzio-sistema betidanik egon dira elkarri lotuta.
- **Gazteen kualifikazio-maila oso handia da**, gazteen %61,7k du hirugarren mailako ikasketa.
- **Mugikortasun geografikoaren saldoa positiboa da**. Oraindik ere saldo positiboa dugu kontratazioaren alorreko mugikortasunean, eta beste autonomia-erkidego batzuetako laneskua jasotzen jarraitzen dugu.
- **Gizarte-politika aurreratuak**, langabeziak eragindako ondorio sozialei aurre egiteko gizarte-babeseko eta -kohesioko bermea baitira.
- **Gizarte-ekonomiaren sektorean**, enplegu-tasa handia da, EAEko enpleguaren %7 egiten baitu.
- Geure **zerga-politika** edukitzeak, defizitari dagokionez, egoera ona edukitzea eragin du, eta horri esker, gastuari eusteko politika ez da izan, oinarrian, enplegu publikoaren murrizketaren ondorio, beste autonomia-erkidego batzuetan gertatu den bezala.

AUKERAK

- **I+G+Bren alorreko politikak eta industria-garapenerako eta garatzen ari diren sektoreak bultzatzeko politikak**, gurean finkatuta dauden industriaren, teknologiaren eta esportazioaren alorrekin batera, enplegu-aukerak sortuko dituztenak, nazioarteko merkatuak aktibatzen direnean.

- **Zerbitzuen** sektorean, enplegu-tasa EAEn %43,4koa da, Europar Batasuneko batez bestekoa baino 2 puntu gutxiago; beraz, oraindik ere badugu non hazi, batez ere, merkataritza-zerbitzuetan, banaketan eta garraioaren alorrean, bai eta osasun-arretaren eta hezkuntzaren alorrean ere.
- **Eraikuntzaren** sektorean, enplegu-tasak epe luzera pixka bat gora egitea aurreikusten da (%3,7koa da, Europar Batasuneko batez bestekoa baino ia puntu 1 gutxiago), nahiz ez den lortuko 2008an izan genuen %6ko tasa.
- Alde onak **oinarrizko egitura-adierazleetan**, lagungarrik direnak krisi garaietan hazteko eta egokitzen asmatzeko; hauek dira, besteak beste, egitura-adierazle horiek: giza kapitala, askatasun handiagoa enpresa-jardueran, ahalegina ikerketan eta azpiegituren zuzkidura.
- Alde onak **eskualde-lehiakortasunaren indizean**, Europako Batzordeak egindako azterlanaren arabera; bertan adierazi du EAEn indizea Europar Batasuneko batez bestekoaren gainetik dagoela; hortaz, ekonomia berreskuratzeko erritmoan bultzada eman beharko luke.

Ekonomiaren alorrean nolabaiteko susperraldia aurreikusten da, nahiz erritmoa geldoa izango den, ekonomiaren hazkundeari zein ondoriozko enplegu-sorrerari dagokionez

Aurreikuspenen arabera, 2014an hasiko da hazkunde positiboa, eta 2015ean eragingo ditu ondorioak enpleguan.

Europako ekonomiaren susperraldiak berekin dakar zalantza beteriko testuingurua –hasieran uste zena baino gehiago ari da luzatzen atzeraldia eta sakonagoa ere bada–, eta testuinguru horrek ondorio zuzenak zein zeharkakoak eragin ditu EAEko ekonomiaren hazkunderan.

Jarduera ekonomikoak behera egin du 2012. urtearen joanean, eta horrek beste atzeraldi bat eragin du EAEko ekonomian, nahiz eta 2009an bizi izan genuena baino intentsitate txikiagokoa izan oraingoz. 2013. urteko egoera ekonomikoak agerian utzi du aurreko urtean baino gutxiago egin duela behera jarduerak (-%1,1), eta **barne-produktu gordinaren hazkunde positiboa 2014an hastea** aurreikusten da, barne-eskaera berreskuratzen den neurrian. Aurreikuspenen arabera, EAEn barne-produktu gordinak %0,9 egingo du gora 2014an, %1,4 egingo du gora 2015ean eta %1,7, berriz, 2016an.

Jarduera ekonomikoaren susperraldi txiki horrek 2015ean eragingo ditu ondorioak enpleguaren sorreran; hortaz, ez da aurreikusten krisi garaian suntsitutako enpleguak epe ertainera berreskuratzea. 2013. urtean 20.000 enplegu baino gehiago suntsitu ziren eta 2014an beste 4.000 enplegu suntsituko direla aurreikusten da. 2015. urtera arte ez da lanpostu-sorrera garbirik izango, eta sortzen hasten direnean ere sorrera gutxinaka gertatuko da (2015ean %0,7 eta 2016an %1,1).

Langabeziari dagokionez, aurreikuspenek adierazten dute langabezia-tasak zertxobait behera egingo duela 2014an, eta 2015az geroztik izango dela nabarmenagoa beherakada; nolana ere, 2016. urtearen amaieran biztanle aktiboen %11 baino gehiago langabe egotea aurreikusten da.

EAEko ekonomiari buruzko aurreikuspen ekonomikoak (urtetik urterako aldaketak, ehunekotan)

(Iturria: Testuinguru makroekonomikoa. Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza. 2013ko urria)

	2013	2014	2015	2016
BPGd erreala	-1,1	0,9	1,4	1,7
Azken kontsumoa	-1,0	0,4	0,8	1,2
Kontsumo pribatua	-0,8	1,0	1,2	1,5
Kontsumo publikoa	-1,9	-1,9	-0,6	-0,1
KEG	-3,6	-0,5	1,3	2,6
Barne-eskaria	-1,6	0,2	1,0	1,6
Ekarpena kanpoko saldoa	0,5	0,7	0,4	0,1
Deflatorea	1,2	1,3	1,6	2,0
Enplegua (landunak)	-2,2	-0,5	0,7	1,1
Langabezi-tasa	14,4	14,2	13,1	11,6

"Enplegua, gure lehentasuna". Egungo Jaurlaritzaren konpromisoari eta EAEko herritarren eskaerari erantzuten dion plana

Enplegua da, zalantzarik gabe, EAEko herritarren kezka nagusia. Hori hala dela adierazten dute Euskal Soziometroak jasotako azken datuek; izan ere, EAEko herritarren %79k adierazi zuen lan-merkatuarekin zerikusia duten arazoak direla gure gizartearen arazo garrantzitsuenak.

Enplegua da, halaber, egungo Jaurlaritzaren kezka, lehentasun eta konpromiso nagusia. Horrela adierazi zuen Iñigo Urkulluk lehendakaria izendatzeko eztabaida-ekitaldian; bertan aurkeztu zituen Ekonomia Sustatzeko Plana eta Enpleguaren aldeko txoke-plana, legealdi honetarako programetako hiru konpromisoetatik lehenengoa osatzen duten aldetik. Honela adierazi zuen: *Gure konpromisoaren ardatza pertsonak izanik, helburua hazkundera eragitea eta aberastasuna zein enplegua sortzea da, kalitate oneko zerbitzu publikoak ziurtatuko dituen gizarte-politika baten bidez.* Horrez gain, adierazi zuen Enpleguaren aldeko txoke-plan hori ahalik eta lasterren abian jartzeko konpromisoa bere gain hartzen zuela, etaaldi berean, esan zuen erakundeetako eta gizarteko beste eragile batzuen ekarpenak jaso nahi lituzkeela. *"Ekimen hauek ere kontrastatuko ditugu, haien berri izan nahi dugulako eta elkarren artean osatu nahi ditugulako".*

Herrialde-mailako hiru konpromisori aurre egiteko 2012-2016ko Gobernu Programa 2013ko apirilaren 9an aurkeztu zuen, Eusko Jaurlaritzaren X. legegintzaldiko programa den aldetik. Gobernu Programa horrek hiru konpromiso nagusi hartzen ditu bere baitan: **I- Enplegua eta pertsonak**; **II- Bakea eta elkarbizitza**; eta **III- Estatus politiko berria** Euskadirentzat. Horrez gain, Gobernu Programak helburu politikoen lehentasunak zein diren ere adierazten du, lotura zuzena izan behar dutenak Enplegu Planarekin; hain zuzen dio "enplegua sortzea jarduera politikoen oinarritzko eta lehentasunezko ardatza izango da", eta "enpleguaren gaia premiazkoa eta garrantzitsua da, alegia, jorratu beharreko lehenengoa". Horrez gain, dio: "Enplegua oinarritzko eta ezinbesteko osagaia da pertsonak komunitatean integratzeko, gizarteratzeko eta parte hartzeko prozesuetan. Emantzipazioa eta bizitza independentea lortzeko prozesuak ere lanaren mende daude neurri handi batean" eta "horregatik, Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartzen du enpleguaren defentsari eta pertsonen enplegarritasunaren sustapenari dagokienez".

Honela jarraitzen du: "Enplegua ez da dekretu bidez sortzen. Dena den, politika publikoek lanpostu berriak sortzeko aukera emango duten legezko eremuak eta baldintza publikoak gara ditzakete eta garatu behar dituzte. Eusko Jaurlaritzak lan egingo du enplegua sortzeko inbertsioa ahalbidetuko duen eremu publikoa sortzen, Euskadin enplegua egon eta sor dadin lagunduko duten ekimen publiko eta pribatu horiei lehentasuna emanez eta horiek sustatuz".

Printzipio eta jarraibide horiekin bat, Gobernu Programaren «**1. ardatza: hazkunde iraunkorra**», izenekoaren barruko «**1.1 Enpleguaren aldeko politika aktiboen garapena**», atalean 4 xede nagusi hauek adierazten dira: 1. Enplegua defendatzea; bertan, ekonomia suspertzeko txoke-planaren ekimena nabarmenduz. 2. LANBIDE berria; kudeaketa-eredua berrorientatzeko prozesu berri baten bidez. 3. Oso gaituta dauden pertsonak. Eta 4. Gizarte-elkarrizketa eta gizarte-kohesioa. Ardatz horrek, halaber, **Garapen ekonomikoa eta lehiakortasuna** izeneko jarduera-eremua ere hartzen du bere baitan, eragin nabarmena duena kalitate oneko enpleguaren eta enplegu iraunkorraren sorreran. Jarduera-eremu horren bidez, programak ekintzailtzaren eta ekoizpen-ekonomiaren aldeko apustua egiten du, eta enpresen, eta, oro har, EAEko ekonomiaren lehiakortasuna identifikatu du, enplegu-maila berreskuratzeko erronka nagusizat.

Eusko Jaurlaritzak, legealdi honetan, 2013-2016 eperako Enplegu Plana formulatzeko eta onartzeko konpromisoa hartu zuen bere gain, eta konpromiso horri erantzuten dio agiri horrek. Plan hau Gobernu Programa gisa formulatzeko konpromisoa 2013ko ekainaren 11ko Gobernu Kontseiluaren Akordioan erabaki zen, eta horren bidez onartu zen 2013-2016 X.

legegintzaldiko plan estrategikoen egutegia. Horrekin batera, **Enpleguaren Euskal Legearen** aurreproiektua Legebiltzarrari aurkeztea aurreikusi du Jaurlaritzak.

Horrez gain, plan hau bat dator **EAJ eta PSE-EE (PSOE) alderdi politikoek** 2013ko irailaren 16an sinatu zuten **Akordioan** beren gain hartu zituzten konpromisoekin eta adostutako printzipioekin. Akordio horrek **Euskadi modernoagoa, solidarioa, iraunkorra era lehiakorra izan dadin** du helburu.

EAEko biztanleen kezka nagusiak

Iturria: Euskal Soziometroa, 2013ko ekaina

ZURE USTEZ ZEINTZUK DIRA EUSKADIKO KOMUNITATE AUTONOMOKO HIRU ARAZO NAGUSIAK? / EN SU OPINIÓN ¿CUÁLES SON LOS TRES PROBLEMAS MÁS IMPORTANTES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA VASCA?

	GUZTIRA / TOTAL
Lan merkatuari lotutako arazoak / Problemas ligados al mercado de trabajo	79
Arazo ekonomikoak / Problemas económicos	36
Politikari lotutako arazoak / Problemas ligados a la política	26
Etxebizitza eta etxe-gabetzeak / Vivienda y desahucios	16
Ustelkeria eta iruzurra / Corrupción y fraude	7
Osasungintza, Osakidetza, Gizarte Segurantza / Sanidad, Osakidetza, Seguridad Social, salud	6
Murrizketak / Recortes	5
Zerbitzu publikoen funtzionamendua eta hedadura, laguntzak / Funcionamiento y cobertura de los servicios públicos, ayudas	5
Hezkuntza / Educación	4
Delinkuentzia eta segurtasun falta / Delincuencia e inseguridad ciudadana	4
Immigrazioa eta horrekin lotutako arazoak (arrazakeria) / Inmigración y problemas relacionados con ella (racismo)	3
Indarkeria, terrorismoa / Violencia, terrorismo	3
Arazo eta desberdintasun sozialak / Problemas y desigualdades sociales	2
Gazteen arazoak / Problemas de la juventud	2
Balioen krisia, norberekeria, intolerantzia, errespetu falta, kontsumismoa / Crisis de valores, egoísmo, intolerancia, falta de respeto, consumismo,...	2
Pentsioak / Pensiones	2
Ingurumena / Medio ambiente	1
Hizkuntza egoerarekin lotutako arazoak / Problemas relacionados con la situación lingüística	1
Beste arazo batzuk / Otros problemas	1
Ed-Ee / Ns-Nc	3

1.2 Eragina



Ekintza-planak beharrezkoak diren lan-aukera berriak eskaintzea du xede; izan ere, enpleguaren egoerak negatiboa izaten jarraituko du 2014an gutxienez

Plan honek **ez du xede lehendik dauden** eta gauzatu diren **estrategiak ordezkatzea** – esaterako, Enpleguaren Euskal Estrategia, bere baitan hartzen dituena Eusko Legebiltzarrean eztabaidatu eta onetsitako hausnarketak–, **baizik eta haiek zehaztea eta epe laburrera eragina izango duten neurri zehatzen bidez hausnarketa horiei erantzutea.**

Enplegu Plan honek bere baitan hartzen dituen neurriek **ondorio positiboak ekarriko dituzte, baina ez dira nahikoak izango 2013rako aurreikusitako barne-produktu gordinaren bilakaera negatiboak eta 2014rako aurreikusitako susperraldi geldoak enpleguan izango duen eragina aldatzeko.**

Zoritxarrez, langabeziak gora egiten jarraituko du hurrengo bi urteetan eta zaila izango azkar murriztea datozen urteetan. Baina hala eta guztiz ere, erabat ziur gaude **egoera are eta okerragoa izango litzatekeela nabarmen txoke-neurrien premiazko plan hau abian jarriko ez bagenu. Neurri horiek ez dute arazoa konponduko, baina egoera arintzen lagunduko dute**, gure ahalmenen barruan.

Administrazio publikoen erantzukizuna da, eta hain zuzen, Eusko Jaurlaritzarena, gure eskumenen eta aurrekontu-ahalmenen arabera jardutea, ekimen pribatuak –enpresaburuek– konfiantza berreskura dezan, bai eta beharrezko baldintzak sustatzea ere, etorkizuna itxaropenez ikus dezan. Azken batean, administrazio publikoen betebeharra da laguntzea, sustatzea, bultzatzea eta bidea prestatzea. Baina kontuan izan behar da enplegua ez dela dekretu bidez sortzen. Ez dago hagaxka magikorik. **Enpresa-espektatiben eta -erabakien arabera sortzen edo suntsitzen da enplegua.**


Horren haritik, ezinbestekoa da erakundeen arteko lankidetzeta, bai eta arlo publiko eta pribatuak ekonomia-alorreko eragileekin elkarlanean jardutea ere. Euskadiko ekonomia erabat lotuta dago estatuko eta Europako ingurune ekonomikoaren bilakaerarekin.

Datozen hilabeteetarako aurreikuspen ekonomikoak ez dira oso itxaropentsuak Espainiako eta Europako inguruneetan, baina aurreko hilabeteetakoak baino pixka bat baikorragoak badira. Ezin dugu gure burua engainatu, zintzoak eta gardenak izan behar dugu. Nahiz ahalegin handia egin dugun, **langabezia-tasak behera egingo du, gure barne-produktu gordinak (BPG) gora behar beste egiten duenean.** 2014a azken aldiko historiako urte latzenetako bat izango da, latzena ez bada.

Hala eta guztiz ere, plan honek bere baitan hartzen dituen ekimenei esker, **lana hobetzeko aukera izango du jende askok.** Aukera horietako batzuk aringarriak izango dira, aldi baterako enpleguak baitira; eta beste batzuek, berriz –esaterako, enpresa berriak sortzearekin zerikusia dutenak–, denbora luzeago irauteko asmoa dute.

Ekonomia suspertzeko eta enplegua sortzeko estrategia global baten baitan dagoen plana

Jaurларitza jakitun da **pizgarrien plan hau beharrezkoa dela**, langabeziak **gizartearen eragiten dituen ondorioei aurre egiteko ezinbestekoa** baita; baina, jakitun da, halaber, arazo horri konponbidea emateko, **ekonomia suspertzeko duten egiturazko politikak** beharrezkoak direla, **epe ertain eta luzean hazkundera berruntzeko dutenak, eta horren ondorioz, enplegua sortzeko dutenak**. Egiturazko politika horiek –inbertsioa, berrikuntza, nazioartekotzea eta industrializazioa– osatuko dute Ekonomia Suspertzeko Estrategia, Enplegu Plan honen osagarri izango dena.



Hezkuntzako eta prestakuntzako politikekin lotura zuzena duen plana

Ekoizpen-prozesuak oso azkar eta etengabe eraldatu dira, besteak beste, teknologiaren alorrean aldaketa asko gertatu direlako, ekoizpena zein lana antolatzeko modua aldatu egin delako eta merkatuak globalizatzearen ondorioz ere aldaketa ugari izan direlako. Horren guztiaren ondorioz, enpresetan gaitasun-premia berriak sortu dira, eta gaitasun horiek batzuetan oso nekeza da hezkuntza formalaren bidez eskuratzea; horrez gain, gaitasun-premia horiek epe ertain zein luzera izan dezaten eraginari buruzko zalantza eta ezegonkortasuna ere sortu da. Aldaketa horien ondorioetako bat hau da: hezkuntza formaleko ziurtagiriek, nahiz garrantzia galdu ez duten, pertsonen gaitasunei buruzko informazio gero eta mugatuagoa eta osatu gabea eskaintzen dute.

Horrenbestez, premia berriak sortu dira; besteak beste:

- Gaitasunak egiaztatzeko beste bitarteko batzuk.
- Prestakuntza- eta ikaskuntza-ibilbideak bizitza osoaren joanean antolatu eta kudeatu behar dira (lifelong learning).
- Informazioaren eta Ezagutzaren Teknologiekin zerikusia duten gaitasunak etengabe eguneratu behar dira.
- Enpresek gero eta gehiago eskatzen dute hizkuntzak jakitea, egungo ekonomian enpresek ezinbestez jo behar baitute merkatu globalera.

Horrenbestez, hezkuntza- eta prestakuntza-politikak eta enplegu-politikak zuzenean lotuta egotea gero eta garrantzitsuagoa da, eta ondorioak eragin behar ditu, besteak beste, hasierako prestakuntza dualaren eremuan, hasierako prestakuntzarako eta birziklitzeko bitartekoen arteko bateratasunean, eta prestakuntza arautua laneratzearen ikuspegitik ebaluazioa egitean.

Enplegu Plan honek **Enplegurako prestakuntzako programa operatibo espezifikoa** jasotzeaz gain, kontuan hartuko ditu plana garatzerakoan, besteak beste, **Lanbide Heziketako IV. Euskal Planak, Bizitzaren Zeharreko Ikaskuntzaren Legeak eta etorkizuneko Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko Legeak xedatutakoak.**

Aldi berean, "txokekoak" ez diren beste jarduera-ildo batzuk bultzatzen jarraituko dugu, enpleguan eragina duten aldetik

Plan honek "enplegu gehiago" lortzea du helburu, baina enplegurako EAEko politikak, orain arte bezala, beste helburu osagarri batzuk izan behar ditu, hura bezain garrantzitsuak baitira:

- ❶ ENPLEGU HOBEA = Kalitate oneko enplegua sustatzea.
- ❶ BERDINTASUN HANDIAGOA = Desberdintasunak desagerraraztea, laneratzean eta lan-baldintzetan, gizarteko kolektibo guztiei dagokienez.
- ❶ KUDEAKETA HOBEA = Enpleguaren alorreko zerbitzuak eta programak modu eraginkorragoan eta efizienteagoan kudeatzea.

Helburu osagarri horietako bakoitzak zenbait jarduera-ildo hartzen ditu bere baitan, ekintza irmoak behar dituztenak eta oinarritzkoak direnak lan-merkatu efizienteagoa, inklusiboagoa eta bidezkoagoa lortze aldera. Jarduera-ildo garrantzitsuenetako batzuk hauek dira:

- **LAN-EGONKORTASUNA.** Egonkortasuna ez da pertsonen soilik nahi duten balioa, enpresentzat ere errentagarria baita; izan ere, lehiakortasunak eta inbertsioek – berrikuntzan, teknologian eta prestakuntzan– ezinbestean behar dute enpleguan iraunkortasuna, eraginkortasun-maila handiagoa lortuko badute.
- **OSASUNA ETA SEGURTASUNA LANEAN.** Lan-arriskuak prebenitzea, enpresentzat betebeharrak legala eta morala izateaz gain, oinarritzkoa da enpresentzat behar bezala funtzionatuko badute; izan ere, ez da kostua, baizik eta lan-ezbeharrek eragindako kostuak eragozten dituen inbertsioa. Prebentzioa, halaber, langileen ardura ere bada, erabat kontzientziatuta egon behar baitute prebentzioaren gaiarekin eta beharrezko neurri guztiak eskatu behar dituzte, osasuna eta segurtasuna ziurtatzeko.
- **BATERATZEA.** Eremu profesionala eta pertsonala bateratzea xede duten ekintzak; izan ere, ezinbestekoa da pertsonen, enpresei, familiari eta gizarte-ingurune osoari eragiten dion arazo horri aurre egitea. Erakundeek arazo horrekiko jarrera arduratsua edukitzeak berekin dakar beste antolaketa-kultura bat garatzea eta langileek enpresarekin gusturago egotea zein enpresarekiko konpromiso handiagoa edukitzea, horrela lortuko baita produkzio-maila eta lan-giroa hobetzea.
- **EMAKUMEAREN ENPLEGUA.** Emakumeen langabezia-tasa eta gizonen langabezia-tasa ia berdintsuak badira ere, oraindik ere desberdintasunak nabarmenak dira beste adierazle batzuetan. Esate baterako, desberdinak dira jarduera-tasa, batez besteko lanaldia, soldata eta lanbidean gora egiteko aukera; horiek guztiek erabateko berdintasuna lortzea eragozten dute.
- **DESGAITASUNA.** Desgaitasunen bat duten pertsonen kolektiboaren jarduera-tasa eta okupazio-tasa nabarmen handiagoa da gure lan-merkatuaren batez bestekoaren aldean. Horrez gain, ohiko enpleguan lanera daitezten da lortu beharreko helburua. Ezinbestekoa da enpresak eta gizarte-eragileak gai hauei buruz sensibilizatzen jarraitzea: desgaitasunaren errealitateaz, desgaitasunen bat duten pertsonen ahalmenez eta pertsona horiek laneratzeko indarrean dauden arauz eta programez.
- **LANERATZEKO ARAZOAK DITUZTEN BESTE KOLEKTIBO BATZUK.** Enplegu-tasa txikiagoak dituzten beste kolektibo batzuentzat enplegua sustatzea; esaterako, urte gehiago dituzten pertsonentzat eta lanbide-

kualifikazio-maila txikia izan eta egoera pertsonal eta/edo familiar gogorrei aurre egin behar izateagatik gizarte-bazterketako egoeran egoteko arriskua dutenentzat. Pertsona horientzat ezinbestekoa da prestakuntza. Esaterako, oinarrizko gaitasunei eta gizarte-zein merkatu-alorreko gaitasunei buruzkoa, eta gizarteratzeko prozesu pertsonalizatuei buruzkoa. Gainera, beharrezkoa izanez gero, gizarte-zerbitzuekiko koordinazioak eraginkorra izan behar du, pertsona bakoitzaren problematikari modu integralean erantzun ahal izateko.

- **AUKERAK HAUTEMATEA ETA PREMIEI AURREA HARTZEA.** Euskal Autonomia Erkidegoko pertsonen eta enpresen prestakuntza- zein enplegu-premiak hautematera eta garatzen ari diren sektoretako enplegu-aukera hautematera bideratutako jarduerak. Horrez gain, EAEko enpleguan eragina izan dezaketen nazio- zein nazioarte-mailako joerak ere identifikatu behar dira, bai eta beste eskualde batzuetan garatzen dituzten jardunbide egokiak ere. Bestalde, eskuratutako ezagutza hedatu egin behar da gure lan-merkatuan eragina duten ekonomia- eta gizarte-eragileen artean.
- **ARRETA PERTSONALIZATUA ETA BALIO-ZERBITZUAK PERTSONEI ETA ENPRESEI.** Herritarrei eta enpresei arreta banaka egiteko eredu finkatzera bideratutako jarduerak, bai eta enpleguaren alorrean balioa emateko zerbitzu berriak sortzera bideratutakoak ere. Eta bultzatzea, halaber, herritarrak informatzeko eta haiek parte hartzeko bideak.
- **LURRALDE-KOHESIOA.** Langabezia-tasa handia edo arazoak dituzten sektoreekiko mendetasun handia duen eremuetan tokiko enplegua sustatzea xede duten proiektuak bereziki sustatzea, enpleguaren alorrean lurraldeen arteko desoreka eragozteko.

Aurrekontuetan zorrotzak izateko eta hazkundera suspertzeko premien arteko oreka kontuan hartzen duen plana, "enpleguaren aldeko elkartasunaren" printzipioari erreparatuta, betiere.

Enplegua sortzea helburu duten pizgarri ekonomikoen plana da. Nolanahi ere, kontuan izan behar da aurrekontu-orekari erreparatzen diola planak, egungo egoeran ezinbestekoa baita.

Horrenbestez, ezinbestekoak dira honako hauek:

- **Aurrekontu publikoak berriro esleitzea eta enplegua sustatzearekin zerikusi zuzena duten funts eta kontu-sail espezifikoak plan honetara bideratzea.**
- Nahitaez mugatuak diren ekarpen publikoak **inbertsio eta finantzazio pribatuen katalizatzaile gisa erabiltzea.**
- Garatuko diren programak eta ekimenak hasieratik arretaz hautatzea eta haien guztien eragina etengabe **ebaluatzea.**

Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzak 2014. urterako duen aurrekontuetatik asmo handiko ekarpenarekin eta 2015. eta 2016. urteetarako aurreikuspenekin abiatu da plana. Ekarpen horrek, halaber, erakunde arteko akordioen ondorioz ezartzen diren neurriek eragiten dituzten aldaketak ere hartuko ditu bere baitan. Esate baterako, **Ekonomia eta Enplegua Sustatzeko Erakunde Arteko Mahaia** dugu; izan ere, Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek konpromisoa hartu dute, EUDEL erakundearekin batera, inbertsio publikoa bizkortzeko eta enplegua sustatzeko plan bereziak abian jartzeko. Horrek agerian uzten du honako hau: "*denok norabide berean ekin diogu bideari: enplegua suspertzea eta berreskuratzea*".

Planak abian jartzen diren epean, aurrekontu-zuzkidura handiagoa espero da; izan ere, gure herrialdean proposatu diren zerga-erreformen ondorioz diru gehiago biltzea espero da, EAJ eta PSE-EE (PSOE) alderdi politikoen 2013ko irailaren 16an sinatutako akordioaren arabera.

Erakundeen arteko akordioa zein lehen aipatutako akordio politikoa dira, hain zuzen, **enpleguaren aldeko elkartasunaren** printzipioaren seinale. Hau da, garbi dago erakundeek eta gizarte-eragileek lehentasuna ematen diotela enplegua sortzeari, bai eta lan-aukera gutxien dituzten pertsonen aukera gehiago bideratzeari ere.

1.3 Ezaugarriak



Enplegu Plan hau bat dator 2013ko martxoaren 8an Legebiltzarrean onartutako oinarritzko ildoekin eta ebazpen-proposamenekin

Martxoaren 8an Eusko Legebiltzarrak enpleguari buruz egindako osoko bilkuran enpleguaren aldeko ehun ebazpen-proposamen baino gehiago onartu ziren. Proposamen-kopuru handi horrek agerian uzten du alderdi politiko guztiek dutela kezka eta ardura enpleguaren alorrean.

Onartutako proposamen horiek heterogeneoak dira, eta askotariko helburu eta jardueraren emumen baitakoak dira. Batzuk arau-emaileak dira, eta beste batzuen eragina, berriz, epe ertainean nabarituko da, ekonomia suspertzeari dagokionez. Nolanahi ere, Legebiltzarreko bozeramaileen esku-hartzeek eta ebazpen-proposamenek honako printzipio hauek dituzte oinarri:

- **Larrialdi-egoeran gaude**, eta beraz, Enplegua Sustatzeko Plana lehenbailehen aurkeztu beharra dago.
- Lehendik dauden enpleguei eustea eta berriak sortzea **Jaurlaritzaren lehentasun nagusia** izan behar du.
- Egoera ahulean dauden pertsonak laneratzea behar-beharrezkoa da, **haiek bizi duten gizarte-bazterketako egoera betikotu ez dadin**.
- **Enplegua konpromiso globala da**. Horretarako, ezinbestekoa da EAEko erakunde guztien arteko lankidetzeta eta elkarrekiko osagarriak izatea.
- **Elkarrizketaren eta elkar-hartze sozialaren kulturak** erabakigarria izan behar du enpleguari eusteko.
- Enpleguaren aldeko txoke-plan bat beste neurri batzuekin osatu behar da; hain zuzen, enpresa ertain eta txikien lehiakortasuna epe ertainera hobetzen lagunduko duten eta ekonomia suspertzen lagundu duten neurriekin.

Denenak diren printzipio horiek oinarri hartuta, Eusko Legebiltzarrak adierazi du Enplegu Planak helburu hauek bete behar dituela, besteak beste:

- Egoera ahulean dauden pertsonen eta batez ere gazteek enplegua lor dezaten eta haiek laneratzea lor dezaten sustatzea.
- Ekintzailtza sustatzea eta enpresa txiki eta ertainei laguntzea.
- Enpleguan eragin zuzena duten lanetan eta proiektuetan inbertsio publikoa zein pribatua sustatzea.
- Erakundeen arteko lankidetzeta eta arlo publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlana sustatzea, enplegu-suntsiketa arintze aldera.

Horrez gain, jarduera-ardatz hauek adierazi ditu, Legebiltzarraren proposamenak gauzatzeko bitarteko komunak baitira:

- Enpresa txiki eta ertainak (ETEak) finantzatzen laguntzea.
- Gure udalerrien eta eskualdeen gaitasun endogenoak baliatzea.
- Ekintzailtza eta autoenplegua.
- Gazteen enplegua sustatzea.
- Enplegurako prestakuntza.
- Enplegua sortzeko inbertsioa.

Plan hau bat dator eta koherentea da Europako, Espainiako eta beste autonomia-erkidego batzuetako politikekin eta plangintza estrategikoko esparruekin

Enplegu-politikaren bat garatzen denean, kontuan hartu behar da gobernuaren helburu eta estrategia globalen testuingurua; izan ere, ezinbestekoa da bat etortzea eta koherentea izatea ekoizpen-sisteman zein giza kapitalean eragina duten beste politika batzuekin eta plangintza estrategikoko beste esparru batzuekin, funtsezko elementuak baitira enpleguaren alorreko helburuak lortzeko.

Horren haritik, Enplegu Planak lotura izan behar du eta koordinatuta egon behar du beste politika publiko, plan edo jarduera batzuekin, planaren helburuak lortzen lagun dezaketenean. Eskumen-esparrua eta egun dauden jarduera-eremuen banaketa oinarri hartuta gauzatuko da beti politika horien arteko elkarrekintza, jarduera-multzoaren eraginkortasuna hobetzea baita helburua.

Horregatik guztiagatik, **2014-2016 eperako Enplegu Planak kontuan hartu du programa horiek osatzea beharrezkoa dela, eta programa horiek beren baitan hartzen dituzten alderdiei bereziki erreparatu behar zaiela.**

1. EAE-KO POLITIKA PUBLIKOAK

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren esparruan identifikatutako zenbait arlo Jaurlaritzaren Ekintza antolatzekeo prozesuaren antzeko prozesuan planifikatuta daude edo planifikatuko dira (2013ko ekainaren 11ko Gobernu Kontseiluaren Akordioa).

Abian dauden plan batzuen indarraldiak bat egiten du Enplegu Planak planifikatzen duen epealdiarekin eta Eusko Jaurlaritzak beste plan batzuk ere onartuko ditu aurrerago. Hortaz, honako hauek identifikatu ditugu eta zerrendatu ditugu, helburu estrategiko batzuk oinarri hartuta garatu beharreko ekimenen lorpena optimizatze aldera; izan ere, helburu estrategiko horiek Eusko Jaurlaritzaren X. legegintzaldiko Gobernu Programan ere identifikatzen dira.

2013-2016rako Lanbideren Plan Estrategikoa¹: Plan honen xedea Lanbideren jarduna, antolaketa eta kudeaketa eguneratzea da, pertsoneri eta enpresei zerbitzu eraginkorragoa, efizienteagoa eta gainerako eragile sozioekonomikoekin integratuagoa eskaintzeko.

2011-2014rako Enpleguaren Euskal Estrategia²: Estrategiak bere baitan hartzen duen epeak oso denbora laburrean egiten du bat Enplegu Planak hartzen duenarekin, baina haren esparru teoriko orokorrak kontuan hartzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-politikaren elementu erabakigarriak. Estrategiaren helburu orokorra hau da: biztanleriaren jarduera eta biztanleria aktiboaren kalitatezko enplegu egonkorra handitzea, lan-merkatu ireki eta iraunkor baten barruan, oinarri hartuta aukera-berdintasuna eta gizarte- eta lurralde-kohesioa. Beraz, estrategia eta Enplegu Plana bat datoz botere publikoek enpleguaren alde sustatu beharrekoan. Denboraren ikuspuntutik, Estrategia 2011-2014 aldirako ezarri da, Europa- eta Espainia mailan indarrean dauden esparru estrategikoko koherentziari eusteko³.

¹ 2013-2016rako Lanbideren Plan Estrategikoa 2013ko abenduaren 3an onartu zuen Lanbideren Administrazio Kontseiluak eta 2013ko abenduaren 23an jakinarazi zitzaion Gobernu Kontseiluari

² Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, lehendabiziko estrategia 2000. urtekoa da; lehendabizi 2000-2003 eperako Erakunde Arteko I. Enplegu Plana egin zen, haren segidan 2003-2006 eperako Erakunde Arteko II. Enplegu Plana eta 2007-2010 eperako III. Erakunde Arteko Enplegu Plana. Gero, enpleguko politika aktiboak EAera eskualdatu ziren, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua eratu zen eta 2011-2014rako Enpleguaren Euskal Estrategia onartu zen.

³ Hazkunderako Europa 2020 Estrategia du oinarri, eta, aldi berean, 2012-2014rako Espainiako Enplegu Estrategia egiteko erabakigarria izan zen, Europako Estrategiaren arabera zehaztu eta diseinatu baitzen.

Enpleguaren Euskal Estrategia sei ardatz edo ildo estrategiko hauek osatzen dute: 1. Enpresa-lehiakortasuna hobetzea; 2. Enplegarritasuna eta moldagarritasuna hobetzea; 3. Gazteen enplegua sustatzea eta hezkuntzatik enplegurako trantsizioa hobetzea; 4. Gizarte- eta lurralde-koherentsia sendotzea; 5. Enplegurako baliabideak eta zerbitzuak hobetzea; 6. Norabideen kontrola eta ebaluazioa ziurtatzea. Gainera, ardatz horietako bakoitzak zenbait jarduerak norabide edo -helburu espezifiko hartzen ditu bere baitan; guztira, 19 norabide espezifiko biltzen ditu.

1.1 Ekonomiaren garapena, enplegua sortzeko faktorea den aldetik

Enplegua sendotzeko eta sortzeko baldintzak errazte aldera jardura-publikoari buruz dokumentu honek duen ikuspegiaren arabera, agerian dago lotuta daudela ekonomia- eta enpresa-garapena eta enpleguaren sorrera. Horrez gain, egiaztatu da enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sortzeko duen jardura ekonomikoa bat datorrela kalitate onekoak eta lehiakorrek izango diren ondasunak zein zerbitzuak sortzeko eta eskaintzeko gaitasunarekin. EAEko administrazioak ikuspegi horiek guztiak onartuta ditu, joan den mendeko 80ko hamarkadan bizi izandako ekonomia- eta industria-birmoldaketaren ondorioz EAEko ekonomia eraldatu behar izan zenetik beretik; ikuspegi horiek honako hauen bidez osatutako jardura-ildoez osatuta daude:

Espezializazio Adimendurako Euskal Estrategia RIS3: Espezializazio adimendurako herrialdeetako eta eskualdeetako berrikuntza-estrategiak (RIS3 estrategiak) lurralde-ekonomia eraldatzeko agenda integratuak dira, bost gai garrantzitsu hauen ardura hartzen dutenak: ezagutza oinarri duen garapenerako herrialdeko edo eskualdeko funtsezko lehentasunetan, erronketan eta premietan inberti dadin eta politika gara dadin bultzatzea; herrialde edo eskualde bakoitzeko alderdi indartsuak, lehiarako alde onak eta bikaintasunerako ahalmenak baliatzea; teknologia-alorreko berrikuntza babestea, bai eta praktika oinarri duen berrikuntza ere, eta horrez gain, sektore pribatuaren inbertsioa sustatzea; eragile parte-hartzaileak buru-belarri inplikatzeko eta berrikuntza zein esperimendazioa sustatzea; eta ebidentzia oinarri hartzeaz gain, gainbegiratzeko eta ebaluatzeko sistema sendoak ezartzea.

Hau da helburua: ezagutza oinarri hartuta eta garapen ekonomikoaren ikuspuntua izanik, politikak eta inbertsioak bideratzea, batik bat, lehentasunetan ikertu eta berritu dadin. Espezializazio adimenduna funtsezkoa da ikerketan eta berrikuntzan egindako inbertsioak benetan eraginkorrak izan daitezen. Europako Batzordeak kohesio-politikaren alorrean 2014-2020 eperako egindako proposamenaren arabera, ikerketako eta berrikuntzako espezializazio adimendurako estrategia edukitzea ezinbestekoa izango da Eskualde Garapenerako Europako Funtsa (EGEF) erabiltzeko 2014-2020 epean, mota horretako inbertsioak bultzatze aldera. Hala ere, lurralde bakoitzeko espezializazio adimendunari eta haren aplikazioari buruzko hausnarketak ez du bakarrik oinarri izan behar baldintza hori betetzea, baizik eta batez ere hausnarketa eta planifikazio estrategikoa egiteko aukera, bai eta kasuan kasuko eskualdeko eragile guztien ahaleginak bat egitea ere.

Gure RIS 3 eginez, Euskal Autonomia Erkidegoak espezializaziorako lehentasunezko sektoreak eta eremuak zehaztu ditu. Hau da, I+G+Bren alorrean inbertsio-politikak eta alor hori sustatzeko politikak eta enpresa-garapena eta -lehiakortasuna sustatzeko politikak zertara bideratuko diren zehaztu da. Horrek berekin dakar enplegu-aukera berriak sor daitezen sustatzea, EAEko politiken bidez baliatu beharko direnak.

2013-2016rako Industrializazio Plana (amaitu gabe): Aurreko legegintzaldia amaituta eta aurreko planak planifikatutako epearen azken urtean gaudela, X. legegintzaldiko Eusko Jaurlaritzak ikuspegi bera du: ezinbestekoa da ekonomia- eta enpresa-garapena, EAEko gizartearen oinarri den aldetik, azken hamarkadetan lortutako ongizateko parametroen baitan. Ikuspegi hori sendotu egin da, industria-jardura berreskura dadin bultzatu baitu, enpresa-sare sendo eta lehiakorra finkatzeko oinarritzkoa den aldetik (Gobernu Programan jasoa).

Horrez gain, Industrializazio Plan bat hartzen du bere baitan Jaurlaritzaren Planifikazio Estrategikoak, Ekonomia Sustatzeko Estrategiaren funtsezko atal gisa.

Euskadi Nazioartekotzeko 2013-2016rako Plan Estrategikoa (amaitu gabe). Ekonomia Sustatzeko Estrategiaren beste atal bat da, Euskadi, oro har, "nazioartekoatzea" xede duena. Hau da, Euskal Autonomia Erkidegoa mundura irekitzea eta globalizazio-prozesuan modu aktiboan parte hartzea, betiere kanpo-ekintza erakundeen eta gizarte zibilaren agendetako erreferente nagusitzat hartuta, enpresaren, hezkuntzaren, osasunaren, kulturaren, gizartearen, ingurumenaren... eremuetan. Enpresaren eremuan, bereziki, hauek dira helburuak: enpresen nazioartekotzeari laguntzeko euskal sistema sendotzea eta indartzea; nazioartekotzean giza kapitala sortzea; kanpoko jarduera erakartzeko eta eusteko estrategia garatzea; eta ekintza proaktiboa lankidetzan eta finantzaketan, nazioartean nahiz alderdi anitzetan.

2012-2016 eperako Eusko Jaurlaritzaren Programaren sailtako hainbat plan, zerikusia dutenak ekintzailtza-, merkataritza- eta turismo-jarduerarekin, bai eta nekazaritza eta arrantzarekin zerikusia dutenak ere. Industria-jarduera eta ondasunen zein zerbitzuen nazioartekotzea garrantzitsuak dira EAEn enplegua sortzeko eta enpleguari eusteko. Baina, hala ere, beste produkzio-jarduera batzuekin osatzen dira; esaterako, nekazaritza eta arrantzarekin lehen sektorean, eta merkataritza- eta turismo-jarduerarekin, bai eta jarduera ekintzailearekin ere, oro har. Horregatik, beraz, 2013-2016rako Enplegu Planak kontuan hartu behar du, helburuei dagokienez, zer alderdik duen lotura sailtako plan eta estrategia hauekin, Gobernu Programan ere biltzen direnak:

- Txikizkako euskal merkataritzaren plana (Merkataritza Plan Integrala)
- Turismo-sektorea sustatzeko euskal estrategia
- Nekazaritza-sektoreari laguntzeko plan integrala; Gaztenek nekazari gazteentzako plana
- Arrantza-sektorea suspertzeko plana
- Ekintzailtza-jarduerari laguntzeko plana

1.2 Ikaskuntza eta trebakuntza, pertsonen enplegarritasunerako eta lan-merkatuaren lehiakortasunerako faktore gisa

Pertsonak dira jarduera publikoaren funtsezko bektorea, eta aldi berean, gizarteak dituen arazoei aurre egiteko gizarteak berak duen oinarritzko elementua. Egungo egoera ekonomikoa eta lan-egoera halakoa izanik, X. legegintzaldiko Eusko Jaurlaritzak "Enplegua eta Pertsonak" ezarri ditu Gobernu Programaren I. konpromiso gisa. Bi elementu horiek ezinbestez hartu behar ditu bere baitan Enplegu Planak.

Bietan jasotako alderdien artean, nabarmentzekoa da Eusko Jaurlaritzak tinko eusten diola eta indartu egiten duela uste sendoa hau: ezinbestekoa da ondo prestatutako eta trebatutako pertsonak edukitzea, ekonomia- eta enpresa-oinarri sendo bati aurre egiteko, kalitate oneko eta lehiakorak izango diren ondasun eta zerbitzuak sortu ahal izateko, erakargarriak izango direnak hurbileko eta munduko gainerako lekuetako merkatuetan.

Eusko Legebiltzarrak onartutako **Bizialdi osoko ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Lege berriarekin** bat etorrira, gaitasun pertsonalak, sozialak eta profesionalak hobetzea da helburua, gizarte parte-hartzaileago, kulturantzunago eta iraunkorragoa lortzeko, ezagutzaren ekonomiaren aldetik aurreratua izango dena. Bizitza osoan ikasten aritzea sustatuko duen sistema integratu bat definitzen du, Haur Hezkuntzan hasi eta erretiroa hartu eta gero ere jarraituko duena, eta herritar guztiak horretan jarriko dituena; trantsizio-modu hobeak ere ezartzen ditu hezkuntzaren, prestakuntzaren eta lan-munduaren artean; eta gainera, bertan adierazten da ikastea testuinguru formaletara, arautuetara mugatzen duen ideia gainditu behar dela eta aitortu egin behar direla testuinguru informaletan ikasteko beste bide batzuk ere.

Enplegu Planaren 4. programa operatiboari dagokionez, enplegurako prestakuntzari buruzkoa bera, nahitaez adierazi behar da zerikusi zuzena duela, normala den bezala, **Enplegurako Urteko Prestakuntza Planarekin**, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzko urriaren 13ko 3/2011 Legearen 3. artikuluko p) idatz-zatian xedatutakoarekin.

X. legegintzaldian, bi plan estrategiko aurreikusi dira, enplegua sortzeko helburua lortzen lagun dezaketenak. Jakin badakigu Enplegu Planak ondorioak epe laburrean lortu nahi dituela, baina,

hala ere, orain aipatuko ditugun planak denboran ikuspegi zabalagoa izanik formulatu dira, eraginkortasunari eta gizartean izango duten eraginari dagokionez.

2014-2016rako Lanbide Heziketako IV. Euskal Plana (amaitu gabe): Lanbide-heziketa funtsezkoa da herrialde baten lehiakortasunean; izan ere, pertsonen gaitasunak eta ezagutzak hobetuz, giza kapitala eta haren enplegarritasuna indartzea du xede. Horretarako, lanbide-profilak eta profil horiek lortzeko prestakuntza produkzio-sektoreen benetako eskarira ahalik eta gehien egokitu behar dira, lehiakide gogorragoak izango baitituzte enpresek, krisitik atera ondoren. Egun, 2011-2014rako Lanbide Heziketako III. Euskal Plana dago indarrean, helburu estrategiko hauek ezarri zituena: lanbide-alarreko gaitasunak gehitzea; LHko ikastetxeen eta enpresen artean harreman handiagoa edukitzea; eta LHko azpisistemen artean lotura ezartzea, lan-esperientzia eta prestakuntza ez-arautua onartzea eta egiaztatzea lor dadin. Lanbide Heziketako plan berriarekin batera, kontuan hartu behar dira, baita ere, Lanbide Heziketari buruzko lege-proiektua eta "LH Heziketa 2015" Agenda Estrategikoa.

2013-2016rako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana (amaitu gabe): Zientzia, teknologia eta berrikuntza funtsezkoak dira garapen-eredu iraunkor berria lortze aldera, eta horrez gain, oinarrizko zutabeak dira lehiakortasuna epe ertain eta luzera lortzeko. I+D+Gren alorrean BPGren %2 baino gehiago inbertitzeak, Espainiako eskualdeen artean lehen postuan egotea ekarri digu, baina oraindik ere Europar lider diren herrialdeetatik urrun gaude. Gaur egun, ikerketa zientifikoa beharra gutxietsi gabe, Euskal Autonomia Erkidegoan garatutako ikerketa aplikatuaren lorpenak hobetzea sustatzen da, hori guztia ekonomiaren eta enpleguaren hazkundera suspertzeko helburuaren baitan, eta balio erantsi handiagoa eragingo duten jarduerak sustatuta, zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren bidez. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plan (ZTBP) berriak 2015ean amaitzen den egungo planaren zenbait alderdi sendotuko ditu; izan ere, haren ebaluazioa egin ondoren, zer alderdi berrikusi behar diren zehaztuko da, kontuan hartuko baita EAEn zientzia-, ikerketa- eta berrikuntza-jarduerak garatu behar duten eragileek zer egoera eta errealitatean garatu behar duten jarduerak zientifikoa. Horren haritik, dibertsifikazio-estrategia adimendunak gara daitezten sustatuko da, Euskal Autonomia Erkidegoak industria-oinarriari eutsi diezaion, balio erantsi handiko jardueren bidez. Horrez gain, hainbat tipologiatako eta espezializatiotako zientzia- eta teknologia-alarreko eragileen sarea kudea dadin landuko da, sinergia handiagoak lortzeko eta beren artean sor daitezkeen bikoiztasunak desagerrarazteko.

Bi plan estrategiko horiez gain, 2015-2018rako Unibertsitate Planak ere pertsonen enplegarritasunean eragina izango duten jarduerak biltzen ditu.

2015-2018rako Unibertsitate Plana (amaitu gabe): Euskal unibertsitate-sistema estrategikoki gara dadin bideratuta dago, bai eta beren eragileekin adostutako jarduerak esparru bat zehaztera ere; izan ere, lortu nahi da eragile horiek gai izatea erantzuteko euskal gizarteak prestakuntzan eta jakintzaren sorreran zein hedapenean dituen arazoei eta premiei, eta nazioartean ezagunak izatea irakaskuntzan eta ikerketan duten mailarengatik, bai eta gizartearekin arduratsuak izateagatik eta eraginkortasunez kudeatzen jakiteagatik ere. Horren haritik, euskal unibertsitate-sistemaren egungo egoera ebaluatuko da, hobekuntzak egin ahal izateko gobernantzaren, irakaskuntzaren eta ikasketa-eskaintzaren alorretan. Horrela lortuko baita hiru zikloetan kalitatezko titulu-eskaintza harmoniatsua finkatzea eta unibertsitate-sistemak ikerketa-alarrean ekarpen handiagoa egitea Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sistemari.

1.3 Pertsonen aldeko eta pertsonen enplegua lor dezaten eta enpleguari euts diezaioten bultzatzeko beste politika publiko batzuk

Enpleguaren ikuspegitik lehen adierazi dugun pertsonen ikuspegi konpromisoa ez da mugatzen ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko oinarriaren ikuspegira. Izan ere, pertsonak dira administrazio publikoen izateko arrazoia, bai eta haien ongizatea ziurtatzea ere. Horren haritik, enplegua sortzea premiazko beharra bada ere, kontuan izan behar da gizarte osatzen duten pertsona guztiak desberdinak direla, pertsona batzuek arazo gehiago dituztela lan-merkatuan sartzeko eta gizarteko pertsona horiek gizarte-bazterketako egoerak bizi ditzaten eragozteko ezinbestekoa dela. Eta azkenik, kontuan hartu beharreko beste elementu bat da pertsona

batzuek, askotariko arrazoiengatik, lan-merkatuan sartzeko aukera gutxiago dituztela eta haiei bereziki erreparatu behar zaiela.

Hori horrela izanik, Enplegu Planak, ekimenak antolatzerakoan, gai horrekin zerikusia duten eremuen plangintza kontuan hartuko du, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak berak, batez ere. Egun, plangintza-bitarteko hauek ditugu:

2014-2017rako EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VI. Plana: Legegintzaldi bakoitzean egiten da emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana,⁴ emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko –benetakoa eta eraginkorra–, politikagintzaren, ekonomiaren, kulturgintzaren eta gizartearen esparru guztietan. Enpleguaren eremuan, gizonen eta emakumeen artean dauden aldeak murriztea xede duten ekintzak sustatzen dira; esaterako, arlo hauetako aldeak murrizteko: lanean hastea, enplegu-tasa, enpleguaren kalitatea, familia eta lana bateratzeko arazoak, soldata-desberdintasuna eta lan-baldintzetako bestelako desberdintasunak –behin-behinetakotasuna eta nahi ez diren lanaldiak, besteak beste–. Lege-agindu bati jarraituz, berdintasunaren alorreko politikak hartu behar dituzte kontuan administrazio publiko guztiek beren zereginak betetzerakoan. Horrenbestez, ikuspegi hori aintzat hartu da enplegu-plana formulatzean eta bertan jasotako ekimenak ezartzean.

2013-2016rako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa (amaitu gabe): Gizarte-zerbitzuen sistemak zerikusi zuzena du enpleguarekin, gizarte-zerbitzuek eragina baitute langileengan; izan ere, lanean hasteko eta lanean jarraitu ahal izateko behar dituzten prestazioak ematen dizkiete, eta horrez gain, langabezia dauden pertsonen oinarriko zerbitzuak eskaintzen dizkiete, gizarte-bazterketako egoeran egoteko arriskua edo gizartean baztertuta egotea eragozteko.

2012-2016rako Gizarteratze Aktiboko Euskal Plana: Gizarte-bazterkeriaren prebentzioa eta tratamendua bultzatzeko erronkak eta lehentasunak ezartzen ditu politika publiko honek, eta Euskal Autonomia Erkidegoan gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuak errazteko aldaketak eta jarduerak hartzen ditu bere baitan. Gizarteratzeko esku-hartzearen kontzeptu-eremuari dagokionez, gizarteratze aktiboa esaten zaiotzari, enplegua da gizarte-bazterketako prozesuetako elementu erabakigarrienetako bat. Horrenbestez, planak bere baitan hartzen dituen neurri askoren xedea lanik gabe dauden edo enplegu prekarioak dituzten pertsonen gizarte-bazterketa eragozteko da; horretarako, enplegu-zerbitzuek, besteak beste, arreta espezializatuagoa eta sakonagoa eskaintzen diete pertsona horiei.

2011-2013rako Immigrazioaren, Herritarren eta Kultura arteko Bizikidetasunaren Plana: Immigrazioaren, Herritarren eta Kultura arteko Bizikidetasunaren Euskal Plana esku-hartze publikoa koordinatzeko bitartekoa da, immigrazioari, bizikidetasunari, aniztasunaren kudeaketari eta kulturartekotasunari dagokienez. Planak onartzen du enplegua, prestakuntza eta eskola-arrakasta integratzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoan dauden giza baliabideak mobilizatzeko bideak direla, produkzio-sarea indartze aldera. Hain zuzen, planaren 2.1 helburuak honela dio: "Euskadin bizi diren pertsonak lan-merkatuan sartzeko laguntzea, enplegarritasunaren eragozpenak eta mugak (lege-arloan, hizkuntza, prestakuntza eta abar) ezabatzen lagunduz". Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren ikuspegitik, etorkinak lanerako aktibatze ezinbestekoak diren esku-hartze prozesuetan eragin behar da, hainbat mekanismoren bitartez; hala nola, orientazioaren bidez, enplegua sustatuz eta lan-bitartekotza eginez. Horren haritik, Enplegu Planak errealitate hori bere baitan hartzeko aukera adieraziko du; nolahi ere, gai horren ingurukoak zuzenago landuko dira pertsona horien ezaugarriak modu integralagoan tratatzen dituzten plan berri baten bidez (2014-2016rako Immigrazioaren, Herritarren eta Kultura arteko Bizikidetasunaren IV. Plana).

2011-2015 eperako Familiei laguntzeko Erakundearen arteko III. Plana: Guri dagokigunez, familia-politikak badu eraginik enpleguan. Hau da, norberaren bizitza, familia eta lana bateratzea susta eta bultzatzea daiteke familia-politikaren bidez, bai eta aitatasun erantzukidea ere, eta horrela, emakumezkoa lanean hastea eta lan egiten jarraitzea susta daiteke, eta lanean aurrera gitea eta hobetzea ere bai.

⁴ 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa

III. Gazte Plana (amaitu gabe): Gazteek hainbat alorretan dituzten premia nagusiei aurre egitea du xede plan honek; besteak beste, alor hauetan dituztenei aurre egitea: lana, etxebizitza, balioak oinarri dituen hezkuntza, osasuna, gizarte-ekintza, aisia eta kultura, mugikortasuna eta parte-hartzea.

1.4 Arau-esparrua

Enplegua Sustatzeko Plan Estrategikoa diseinatzerakoan eta formulatzerakoan kontuan hartu beharreko elementuetako bat arau-esparrua da. Horren haritik, beharrezkoa da argitzea EAEk badituela eskumenak enplegu-politika pasiboen gailan, langabezia-prestazioak esleitzeari eta kudeatzeari dagokionez, baina oraindik ez dela eskumen horien transferentzia gauzatu (gizarte-segurantzaren ekonomia-erregimenaren transferentzia ere ez da gauzatu); horrenbestez, plan honek eta bere arau-esparruak ez du gai horri buruzko aipamenik egiten. Baina beste prestazio ekonomiko batzuk erregulatzen dira, oinarritzko premia ekonomikoei aurre egiteko nahikoa diru-sarrera ekonomikoak ez dituztenentzat; esaterako, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta, Gizarte-behar Larrietarako Laguntzak eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria.

Horrenbestez, nahiz plan hau ez den Eusko Jaurlaritzak egin eta onartzeko lege-agindu edo erregelamendu-agindu baten ondorio (jada adierazi dugu zergatik den erabakigarria eta garrantzitsua legegintzaldi honetan), egokia iruditu zaigu legegintza-alorreko proiektuak kontuan hartzea, berritzaileak diren aldetik, eragin nabarmena izan baitezakete planaren garapenean. Hauek dira horietako batzuk:

- **Enpleguaren Euskal Legea (2015eko lehen sei hilekorako aurreikusia, onartu den legegintza-egutegiaren arabera):** Hau da legearen xede nagusia: Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-politikaren helburuak eta printzipio gidariak ezartzea. Legeak helburu nagusi hauek izango ditu: enpleguaren maila, egonkortasuna eta kalitatea haztea, pertsonen enplegarritasuna eta lan-mundurako sarrera hobetzea, eta enplegu-politika aktiboak planifikatzeko eta gauzatzeko egiturak eta bitartekoak arautzea.

Hona hemen beste helburu batzuk: Eragile publikoen eskumenak eta haien arteko koordinazio-alorrak zehaztea, eta erakunde laguntzaileen parte-hartzea zehaztea ere bai; lan-bitartekaritzako eredua eta enplegu-politika aktiboen eredua garatzea; gizarte-partaidetzarako eredua egituratzea, parte-hartzeko eta kontsultako organoen bidez; Euskal Autonomia Erkidegoko Enplegu Sistemari zer eragilek parte hartzen duten eta zer funtzio betetzen dituzten identifikatzea.

- **Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko Legea (2015eko bigarren sei hilekorako aurreikusia, onartu den legegintza-egutegiaren arabera):** Lege-proiektu honen helburua hau da: kualifikazioen, lanbide-heziketaren eta orientabideen sistema integratua antolatzea; sistema horrek enpresen eta pertsonen premia guztiak batuko ditu, modu orokorrean eta malgutasunez, lanbide-heziketako modalitate guztiak barne hartuta (hezkuntza-sistemarenak nahiz enplegurako lanbide-heziketarenak), ikasteko eta gaitasun profesionalaz jabetzeko modu guztiak onartuta eta bultzatuta, eta neurri eta ekintza guztiak adin aktiboan dauden guztiei zuzenduta.

2. EUROPAKO POLITIKA PUBLIKOAK

Enplegu-politikak xede honekin formulatu behar dira: Euskal Autonomia Erkidegoko lan-merkatuaren errealitatea eta ezaugarriak modu koherentean lantzea; hain zuzen, EAE integratuta dagoen eremu zabalagorako formulatzen diren planteamendu orokorrekin modu koherentean lantzea. Horren haritik, Europaren testuinguruan integratuta dagoenez Euskal Autonomia Erkidegoa, ezinbestean hartu behar dira kontuan Europar Batasuneko erakundeek enplegua sustatzeko egiten dituen analisiak, proposamenak eta eskuragarri dituen bitartekoak (Espainiako Administrazioak ere plangintza xehatua du horiek betetzeko⁵)

⁵ 2012-2014rako Espainiaren Enplegurako Estrategia.

Zerikusi zuzena du Espainiako eta Europako politika orokor hauekin: Europa 2020 Estrategia eta Erreformen Programa Nazionala. Hainbat urtetarako estrategia bat da eta 2012-2014 epeari dagokiona da lehendabizikoa. 2012-2014rako Espainiaren Enplegurako Estrategia da Espainiako Enplegu Sistema koordinatzeko lehendabiziko bitartekoa (7 bis.a

Europa 2020 Estrategia: Europa 2020 Estrategia da epe luzerako hiru erronka handiri aurre egin behar dien europar ekonomian krisiak nabarmenarazi dituen egiturazko ahulguneei emandako erantzuna; hauek dira erronkak: mundializazioa, baliabideen gaineko presioa eta zahartzea. Estrategia hori 2010. urterako jada formulatu zen. Izan ere, 2000. urteko martxoan Lisboako Estrategia formulatu zen eta helburuak ez zirela behar beste bete ikusita eta 2005ean Lisboako estrategia berrikusi ondoren, Europako Batzordeak "Europa 2020 Estrategia" berria ezarri zuen⁶. Ekonomiaren alorreko erreferentzia-esparrua proposatzen zaie Europar Batasuneko erakundeei, eta egungo krisi ekonomikoari eta langabeziari aurre egiteko eta Lisboako Estrategia formulatzean hautemandako gabeziak zuzentzeko hiru lehentasun hauek ezartzen ditu: hazkunde zentzuduna, hazkunde iraunkorra eta hazkunde bateratzailea⁷.

Europako Enplegu Estrategia: Hazkunde-estrategian ezarritako helburuak lortzeko, Europar Batasuneko erakundeek, halaber, dokumentu estrategikoak egin dituzte. Hortaz, Europako Enplegu Estrategia⁸ egungo langabezia-tasa handiei aurre egitea eta lan-eskaintza hobetzea

artikuluak, Enpleguari buruzko abenduaren 16ko 56/2003 Legeari gehitua) eta enplegu-politika aktiboak diseinatzeko eta kudeatzeko Enplegurako Zerbitzu Publiko guztientzako estrategia hartzen du bere baitan. Hauek dira lau jardueraren eremuak: 1. Lanbide-orientazioa; 2. Kualifikazioa: prestakuntza eta birkualifikazioa, enplegu-aukerak eta prestakuntza; 3. Enplegu-aukera eta lan-merkatuaren egituraren hobekuntza; 4. Ekintzailtza eta tokiko ekonomia-garapena.

Gainera, giza baliabideak hobetzeko enpresei bideratutako zerbitzuak ere hartzen ditu bere baitan, bai eta ekonomia-jardueraren sorrera eta enplegu-sorrera ere. Horrenbestez, haren eragina ez da enplegurako zerbitzu publikoen eremura mugatu behar, enplegu-politika aktiboen gainerako eragileei ere eragin behar baitie.

Enplegu Politikako Urteko Plana. Enpleguari buruzko 56/2003 Legearen 4. artikulua ezarritakoaren arabera, Enplegu Politikako Urteko Planak urtero zehaztu behar ditu Espainian eta autonomia-erkidegoetan zer helburu lortu behar diren Espainiaren Enplegurako Estrategiaren baitan, bai eta helburuak zenbateraino bete diren jakiteko zer adierazle erabiliko diren ere. Horrenbestez, Espainiako Enplegu Zerbitzuak eta autonomia-erkidegoek garatutako enplegu-politika aktiboen ekintzak eta neurriak ebaluatzeko bitartekoa da Enplegu Politikako Urteko Plana.

2012-2014rako Adineko Langileen Enplegurako Estrategia Globala (55 eta gehiago estrategia). *Gizarte eta Ekonomia Akordioan* gizarte-eragileekin adostutako konpromisoa betetzen du ekimen horrek, eta enplegu egonkorreko trantsizioa sustatzeko eta langabeen lanbide-prestakuntza eguneratzeko premiazko neurri buruzko 2011ko otsailaren 11ko Errege Dekretuan zehaztuta dago hari buruzko lege-agindua.

Lau helburu orokor hauek xedatzen ditu: kolektibo horren enplegu-tasa handitzea eta langabezia-tasa murriztea; lan-bizitza luzatze aldera lanean jarrai dezaten sustatzea; lan-baldintzak hobetzea, lan-segurtasunaren eta -osasunaren alorrean, batik bat; eta lan-merkatuan berriro sar daitezen sustatzea, langabezia-egoeran dauden bitartean gizarte-babesa egokia ziurtatuta.

2013-2016rako Gazteen Ekintzailtza eta Enplegu Estrategia. Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak 2013-2016rako Gazteen Ekintzailtza eta Enplegu Estrategia diseinatu du. Estrategia horren bidez garatu dira epe laburrerako ekintzak (kontratazioa bultzatzea, autoenplegua eta ekintzailtza sendotzeko neurriak hartzea, prestakuntza indartzea eta bitartekotza-zerbitzuak hobetzea) bai prestakuntzaren eta hezkuntzaren alorreko egiturazko ekintzak.

⁶ 2010eko martxoaren 3ko Batzordearen Komunikazioa (KOM(2010) 2020). "EUROPA 2020, hazkunde zentzudun, iraunkor eta integrazailerako estrategia". Hiru lehentasun proposatzen ditu, elkarren sendogarriz:

- Hazkunde zentzuduna: jakintzan eta berrikuntzan oinarritutako ekonomia garatzea.
- Hazkunde iraunkorra: baliabideak modu eraginkorragoan erabiliko dituen ekonomia sustatzea, ekologikoagoa eta lehiakorragoa.
- Hazkunde bateratzailea: enplegu-maila handiko ekonomia sustatzea, gizarte- eta lurralde-koheretza dituen.

⁷ Europar Batasunerako ezarri dituen helburu nagusietako bat (6) hau da: "20 eta 64 urte bitarteko herritarren enplegu-tasa %69 izateko (gaur egungoa) %75 izatera lortzea, gutxienez". Enplegua bultzatzeko premiarekin zerikusi nabarmenena duen helburu nagusietako bat bada ere, sei helburuetatik beste bik ere, gutxienez, enpleguaren eta pertsonen aldeko konpromisoarekin zerikusia badute. Esate baterako: "Eskola uzten dutenen ehunekoak %10etik beherakoa izatea, eta belaunaldi gaztearen %40k, gutxienez, goi mailako ikasketak osoak izatea" eta "Estaturako pobrezia-mailatik behera bizi diren europarren kopurua murriztea, eta pobrezia-arriskutik 20 milioi pertsona gutxiago egotea".

Azken kopuru horiei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko ehunekoak hobeak dira. Izan ere:

- 18 eta 24 urte bitarteko herritar guztietatik, garaia baino lehen eskola uzten dutenen tasa* %7,7koa da EAEn. * Gehienez ere bigarren hezkuntzako lehen etapa gainditu duen eta ikasketarik edo prestakuntzarik jarraitzen ez duen biztanleriaren ehunekoak (Datuak: 2013ko apirilaren 25a, Iturria: EUSTAT)
- Pobrezia-arriskuaren tasa EAEn %10,8koa da (data: 2011, iturria: EIN). Kopuru hori urte horretako Espainiako batez bestekoaren erdia da (aurretik, Nafarroa eta Asturias bakarrik).

⁸ <http://ec.europa.eu/social/main.jsp?catId=101&langId=es>

xede duten Batasunaren politikak zehazteko formulatu da. Estrategia horrek ez ditu mugatzen estatu kide diren estatuetak, eskualdeetako edo tokikoetako eskumenak, baina lehentasun eta helburu nagusiak identifikatzen dituen erreferente denez, jarduera-jarraibideak proposatzen edo ezartzen ditu eragile guztientzat –sektoreetakoak, lurraldeetakoak, publikoak zein pribatuak izan–. Lan-merkatuaren alorreko neurri aktiboen, pasiboen eta egiturazkoen konbinazioak dira jarraibide gehienak, Europako enplegu-politikak diseinatzeko eta abiarazteko balio behar dutenak, edozein dela enplegu-politikak hartzen duen eremua (estatua, eskualdea zein tokian tokikoa).

Zehatz-mehatz, estatu kideen enplegu-politiken jarraibideak hauek dira: "... 7. Emakumeen eta gizonen partaidetza gehitzea lan-merkatuan, langabezia estrukturala gutxitzea eta kalitatezko enplegua sustatzea; 8. Lan-merkatuaren premiei erantzungo dien biztanleria aktibo kalifikatua lortzea, eta ikaskuntza iraunkorra sustatzea; 9. Hezkuntza- eta prestakuntza-sistemen kalitatea eta emaitzak hobetzea maila guztietan, eta partaidetza gehitzea goi-mailako irakaskuntzan edo baliokidean; 10. Gizarteratzeko aukera sustatzea eta pobreziaren aurka borrokatzea."

Kontseiluaren Gomendioa, gazteentzako bermea ezartzeari buruzkoa: Europan, gazteen artean langabeziak gora egin du etengabe eta 2012an inoizko tasarik handiena izan zuen. Esaterako, Grezian langabezia-tasa %62koa izan zen eta Espainian, berriz, %55ekoa. Egoera halakoa izanik, 2013ko otsailean izan zen Europako goi-bileran erabaki zen erkidegoaren aurrekontuetatik funts espezifikoa bat esleitzea gazteen arteko langabezia-tasari aurre egiteko. Funts hori 6.000 milioi euro ingurukoa izango da 2014-2020 eperako (haietatik 3.000 erkidegoaren funtsak beste modu batera esleitzearen ondorio dira, eta beste 3.000 milioiak, berriz, berriak), gazteen arteko langabezia-tasa handien duten eskualdeetarako, batez ere.

Ekimen horren oinarritzko printzipio bat "gazteentzako bermea" garatzea izango da; hau da, gobernuen, eskualdeetako agintarien eta enplegu-zerbitzu publikoen konpromisoa, gazteei enplegurako eta/edo prestakuntzarako aukera bat emateko, enplegua galdu ondoren edo hezkuntza formala amaitu ondoren denbora jakin bat igaro ostean. Estrategia eta gomendio horiei buruzko aipamenez gain, badira enpleguaren eta kualifikazioen alorretako Europaren beste ekimen eta gomendio batzuk ere, alderdi hauek xede dituztenak, besteak beste: gazteentzako aukerak, enpresen egitekoa lanbidearen ikaskuntzan, hezkuntzatik enplegurako trantsizioa hobetzea praktikak eginez eta zahartzea.

Enplegua sustatzea xede duen Jaurlaritzaren ekintzaren plan integratzailea

Esparru eta programa operatiboetan inplikaturik dauden Jaurlaritzako hainbat sailtako 50 lagunen baino gehiagoren parte-hartzearen ondorio izan da Enplegu Plan hau. Lehendakariaren Idazkaritzak koordinatu ditu parte hartu duten pertsona horiek guztiak, lan-batzorde baten bidez. Batzorde horretan, Lehendakariarekin gain, honako hauek aritu dira lanean; Ogasun eta Finantza Saila, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila, eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Sail horietako bakoitza bere eskumen-eremuarekin zerikusia duten jarduera-arloetan aritu da lanean. Horrenbestez:

- Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak jarduera hauek hartu ditu xedetzat: enplegurako prestakuntza, enplegua sustatzea, gazteen eta lan-merkatutik urrun dauden beste kolektibo batzuen enplegua, eta ekintzaitza eta gizarte-ekonomiako enpresak bultzatzea.
- Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak ekintzaitza sustatzearekin eta enpresa txiki eta ertainen finantziarioarekin zerikusia duten jarduerak hartu ditu ardurapean, bai eta gazteen enpleguarekin eta enpresak nazioartekotzearekin zerikusia duten beste jarduera batzuk ere.
- Ogasun eta Finantza Sailak enpresa txiki eta ertainen finantziarioarekin zerikusia duten jarduerak garatzen ditu (hitzarmenak, zerga-alorreko neurriak, zirkulatuzailearen finantziarioa, maileguak, etab.).

Horiez gain, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ere parte hartu du gazteen enpleguaren alorreko jardueretan, prestakuntzarako jardueretan eta ikastetxeak birgaitzeko jardueretan. Osasun Sailak ere bai, osasun-zentroen RENOVE Plan batean parte hartuta. Jaurlaritzak ere parte du; batetik Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen bidez, genero-berdintasunaren ikuspegi integral eta zeharkakoarekin zerikusia duten jardueretan; eta bestetik, Koordinazioko Zuzendaritzaren bidez, Jaurlaritzaren ekintza planifikatzeko jardueri buruzko aholkularitza eskaini du plana diseinatzeko, eta hala, lortu nahi dituen helburuetarako politika publiko egokia izan dadin.

Eskumen-eremua dela eta, Enplegu Plana aurrerantzean garatzeko eta gauzatzeko erantzukizun handiena Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak du, baina Jaurlaritza osoa inplikaturik egongo den estrategia bat da, Lehendakariak erabateko erantzukizuna duela.

Aurreko plan eta programen aldean, elementu bereizgarriak dituen plana

Plan honek, zenbait elementu bereizgarri ditu, aurreko plan eta programen aldean. Haien guztien artean, hauek dira nabarmentzeko modukoak:

- Proposatutako ekintza guztiek **enpleguarekin zerikusi zuzena dute**, hiru alderdi osagarri hauek oinarri hartuta:
 - ❖ **Lanpostu berriak sortzea.**
 - ❖ **Lehendik dauden enpleguei eustea.**
 - ❖ **Enplegagarritasuna gehitzea.**
- **Langabezia-tasa handien duen kolektiboari –gazteei– lehenetasunezko tratua eta bereizgarria** ematen zaio, bai eta laneratzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuei ere.
- **Ekintzaitzari aparteko garrantzia** ematen zaio; izan ere, balio horretan, besteak beste, euskal gizarteak egun galdua duen lidergoa berreskuratu behar du.
- **Ekimen eta inbertsio pribatuak sustatzeko eta abiarazteko aukera emango duten pizgarri publikoak** eskaintzearen aldeko apustua egin da.
- **Erakundeen arteko lankidetzarekiko** konpromiso argia dago; izan ere, sinergiak eratzea eta enpleguaren zerbitzura jarritako baliabide publikoak eraginkortasunez eta efizientziaz erabiltzen direla bermatzea da helburua. Konpromiso hori **Ekonomia eta Enplegua Sustatzeko Erakunde Arteko Mahaian** geratu zen agerian; 2013ko maiatzaren 8an izan zen Lehendakaritzan, eta bertan, lehendakaria, 3 foru-diputatuak eta Eudel erakundeko presidentea elkartu ziren. Erakundeen arteko esparru horretan, baterako lanean aritzea erabaki zen, honako xede hauek izanik: Ekonomia Sustatzeko Aparteko Plana diseinatzea eta gauzatzea, Enpleguaren alorreko tokiko zein eskualdeko planak egitea eta Ekintzaitzarako Euskal Funtsa abian jartzea.
- **Planak parte-hartzearen eta gardentasunaren aldeko apustu garbia egiten du.** Parte-hartzearen alde, erakundeen eta gizarte-eragileen proposamenak eta ekarpenak hartzen dituelako bere baitan. Eta gardentasunaren alde, plana etengabe ebaluatuko delako zenbateko eragina duen jakiteko eta ebaluazio horren berri Legebiltzarrari, erakundeei, gizarte-eragileei eta EAEko gizarte osoari emango zaielako.
- Planak etorkizuna du jomugan, eta gure herrialdeko **sektore traktoretan (hazkunde ekonomikoari berriro ekitean enplegua eragingo duten sektoretan) sortuko diren aukerak pertsonengana helarazteko** apustua egiten du.

Planak, halaber, ezaugarri hauek ditu:

Malgua

Eguneratze eta egokitzeko bere programak eta zenbateko ekonomikoa, hauen arabera: aurrekontu-gaitasuna eta suertatzen diren behar berrietara.

Praktikoa

Programa jakinekin eta konpromiso neurgarri eta zenbagarriekin.

Aldi baterakoa

Egituratzten da talka-plana moduan, 2013-2016 legegintzaldia denbora-muga duela.

Identifikagarria

Programa osatzen duten partidak eta programak Gobernuaren urteko aurrekontuetan bereziki identifikatuko dira.



2. Printzipioak eta helburuak



Printzipioak

Printzipio hauen arabera egituratu da plana:

1	Lehendik dauden enpleguei eustea eta berriak sortzea Jaurlaritzaren lehentasun nagusia da.
2	Administrazio publikoen betebeharra da enplegua sor dadin sustatzeko beharrezkoak diren bitartekoak eta behar diren baldintzak eskuragarri jartzea, estrategia global baten bidez eta jardueretarako aurrekontu arruntak oinarri hartuta. Enplegua ez da aldagai independente bat. Izan ere, kanpoko eta barneko faktore batzuen emaitza da. Hain zuzen ere, kanpoko faktore horiek estatuko zein nazioarteko egoera ekonomikoarekin zerikusia dute, eta barneko faktoreek, berriz, lehiakortasuna, nazioartekotzea, prestakuntza, inbertsio publikoen politika, berrikuntza, ekintzailtza eta langabe dauden pertsonak laneratzea xede duten politikak hartzen dituzte beren baitan.
3	Enplegu-politika aktibo en dinamizazioa, ekintzailtza eta prestakuntza ezinbestekoak dira enpleguaren aldeko estrategia eraginkor bat garatzeko.
4	Egoera ahulean dauden pertsonak gizarteratzeko eta haien bazterketa eragozteko modu egokiena haien laneratzea bideratzea da, langabezia-tasa handien duten eskualdeetan indar gehiago jarrita. Bereziki erreparatu behar zaio gazteen kolektiboari; horretarako, lan-esperientzia praktikoak eskaini behar zaizkie, hezkuntzaren alorretik lan-arlorako trantsizioa errazte aldera. Horrez gain, nazioartean lanean ari diren gazteak itzul daitezen sustatu behar da, haientzako aukerak sortuz Euskal Autonomia Erkidegoan.
5	Gizarte-eragileen arteko elkarrizketaren eta etengabeko negoziazioaren kulturak erabakigarria izan behar du EAEn enpleguari eusteko eta lanpostu berriak sortzeko, eta EAEko gizartearen kohesioa lortzeko, gizarte guztiaren premiei erantzun ahal izateko.
6	Tokiko ekonomiak duen indarra baliatzea, produkzio-aukera berriak hautemateko, oinarri hartuta udalerrietako eta eskualdeetako eragile guztiak; eta eskualdeetako eta tokiko indar endogeno hori baliatzen asmatuko duten neurriak abian jar daitezen sustatzea, enplegua sortzeko eta enpleguari eusteko.
7	Enplegua guztion konpromisoa eta herri-erronka da. EAEko erakundeen arteko osagarritasunaren eta lankidetzaren printzipioa hartu behar dute oinarri enpleguaren aldeko estrategia eta programa operatiboek. Funtsezkoa da, batez ere, Jaurlaritzaren eta foru-aldundien arteko lankidetzeta. Horren haritik beretik, enplegua sortzea xede duten estatuetako eta Europako funtsen ekarpen ekonomikoa eskatzen da.
8	Larrialdi-egoeran gaude, eta azkar eta erabakimenez jardun behar dugu, Enplegu Plana epe laburrean gauzatu ahal izateko. Enpleguaren aldeko ohiko jardueraz gain, ezinbestekoa da zerga-erreformak eta iruzurraren aurkako borrokak eragindako baliabideen zati bat ekonomia suspertzeko eta enplegua sortzeko programetara bideratzea, enpresen lehiakortasuna eta enplegua sortzeko aukera handitzeko, gazteen artean, batik bat.

9	"Sustapen-plan" honekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoan lehiakortasuna epe ertainean hobetzeko estrategia globala bultzatu behar da. Inbertsioa, berrikuntza eta nazioartekotzea oinarri izango dituen estrategia bat, ekonomia suspertzea bultzatuko duena, EAEn enplegua sortzeko eta berreskuratzeko oinarri sendoak jartzen lagunduko duena.
10	Errealitatearen printzipioak berekin dakar defizita murriztearen eta zerga-erreformaren ondorioz sor daitezkeen baliabideak aurrekontu-ahalmenetara egokitzea. Printzipio hori betetze aldera, asmo handiko baina lor daitezkeen konpromisoak proposatzen zaizkio gizarteari, benetako ekonomia- eta aurrekontu-mugen arabera gauzatu daitezkeenak.
11	Errealitatearen printzipio horrekin batera, fustezko beste printzipio hau ere kontuan izan behar da: enpleguaren aldeko elkartasuna . Horretarako, aurrekontu publikoen zati handi bat enplegu-sorrerarekin zerikusia duten politiketara bideratu behar da.

Helburu estrategikoak

Helburu hauek ditu planak:

1	Krisi ekonomikoaren ondorioz Euskal Autonomia Erkidegoan gertatu den eta gertatzen ari den enplegu-suntsiketa arintzea .
2	EAEko gazteen enplegua eta haien laneratzea sustatzea.
3	Egoera ahulean dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea bultzatzea.
4	Ekintzaitza bultzatzea eta autoenplegua sustatzea, aberastasuna eta enplegua sortzeko oinarri diren aldetik.
5	Inbertsio publikoa zein pribatua aktibatzea , bai eta lan intentsiboak ere, enplegua sortze aldera.
6	Eskualdeko zein tokiko indar endogenoa baliatzea, enplegua sortzeko eta enpleguari eusteko.
7	Erakundeen arteko lankidetzeta eta enpleguaren aldeko ahaleginak batu daitezen sustatzea.
8	Egoera ahulean dauden kolektiboen eta 45 urtetik gorakoen kualifikazioa sustatzea, pertsona horientzako programa espezifikoak garatuta, enplegua lortzeko bidea den aldetik.
9	Lana, bizitza pertsonala eta familia bateragarri egitea.
10	Gizonen eta emakumeen arteko enplegu-berdintasuna.
11	Lan-ezbeharrak murriztea, produkzioaren ikuspegi baten bidez.
12	Lan-prekarietatearen aurkako borroka egitea eta enpleguan egonkortasuna eta kalitatea ziurtatzea.



3. Jarduteko programa eta ardatz estrategikoak



Programa Operatiboen eta Ardatzen taula orokorra

1	Enpresa txiki eta ertainak eta tokiko garapena sustatzea	<p>1.1 Enpresa txiki eta ertainen eta autonomoen finantziazioa.</p> <p>1.2 Turismoa eta tokiko merkataritza eta enplegua.</p> <p>1.3 Lehen sektorearen eta enpleguaren garapena</p>
2	Ekintzailatza sustatzea	<p>2.1- "Euskadi, lurralde ekintzailea". Euskal Ekintzailatza Sistema bultzatzea eta optimizatzea.</p> <p>2.2- Autoenplegua eta mikroekintzailatzari laguntzea.</p> <p>2.3- Enpresa berritzaile berriak.</p>
3	Gazteen enplegua sustatzea. Gazteentzako Bermea	<p>3.1- Gazteen ekintzailatzari laguntzea.</p> <p>3.2- Heziketa duala.</p> <p>3.3- Lehen lan-esperientzia.</p> <p>3.4- Gazte-talentua.</p>
4	Enplegurako prestakuntza	<p>4.1- Langabeentzako prestakuntza.</p> <p>4.2- Landunentzako prestakuntza.</p>
5	Enplegu inklusiboa. Enpleguarekiko elkartasuna	<p>5.1- Enplegu-planak tokiko eta eskualdeko esparruan.</p> <p>5.2- Kontrataziorako beste pizgarri batzuk.</p> <p>5.3- Baztertuta geratzeko arriskuan daudenak gaitzea eta laneratzen laguntzea.</p>
6	RENOVE Birgaitzea	<p>6.1 RENOVE Etxebizitza.</p> <p>6.2 RENOVE Hezkuntza.</p> <p>6.3 RENOVE Osasuna.</p>

Programa Operatiboak

Planak, hasiera batean, **6 programa operatibo** ditu

1	Enpresa txiki eta ertainak eta tokiko garapena sustatzea	Gure enpresa-sarearen finantziarioari laguntzeko ekimenak. Izan ere, finantziario hori ezinbestekoa da enpresek lehendik dauzkaten enpleguei eusteko, bai eta tokiko ekonomiaren indar endogenoa baliatzeko ere, eta hala, eskualde- eta toki-eremuetan lan intentsiboko jarduerak garatzeko; besteak beste, merkataritza, turismoa eta lehen sektoreko jarduerak garatzeko.
2	Ekintzailatza sustatzea	Programaren helburua da EAEn kultura ekintzailea biziberritzea, autoenplegua eta ekintzailatza sustatzea, eta enpresa berrien sorrera bideratzeko behar diren baliabideak eskaintzea.
3	Gazteen enplegua sustatzea. Gazteentzako Bermea	Gazteen langabezia-tasa handiei aurre egitea helburu espezifiko duen programa. Horretarako, zenbait neurri baliatzen dira, laneratzea, enplegurako prestakuntza eta gazteen ekintzailatza bultzatzea ardatz hartuta.
4	Enplegurako prestakuntza	Lanik gabe dauden zein lanean ari diren pertsonen enplegarritasuna handitzea helburu duen programa, batez ere aukera onak ematen dituzten sektoreetan jarduteko trebakuntzaren bidez.
5	Enplegu inklusibo. Enpleguarekiko elkartasuna	Gizarteratzeko arazo gehien dituzten kolektiboen laneratzea sustatzea xede duten jarduera espezifikoak, enplegu-politikaren tokiko ikuspegia sendotuko dutenak eta udalerrietako zein eskualdeetako premia eta aukera zehaztetara egokitutakoak. Horretarako, helburu berberak edukitzen, konpromisoak zehazten eta tokiko eragileekin jarduera-irizpideak zehazten lagunduko duten akordioak lortu behar dira.
6	REMOVE Birgaitzea	Birgaitzeen sektorean enplegua sortzea sustatu nahi duen programa, etxebizitzaren alorrean (hain zuzen ere, EAEko etxebizitzaren irisgarritasuna eta efizientzia energetikoa hobetzeko jardueretan), osasun-zentroen zaharberritzeetan, eta osasun-zentroetako mantentze-lanak eta birgaitzeak egiteko lanetan.

1. Programa Operatiboa- Enpresa Txiki eta Ertainak eta Tokiko Garapena Sustatzea

TESTUINGURUA. JUSTIFIKAZIOA

Kredituak murriztu egin dira, estatuko finantza-sistemak dituen zailtasun handiengatik, eta **enpresa txiki eta ertainei eragiten diete, batez ere**. Egoera horren ondorioz, enpresa horietako askok erabakitzen dute besteren finantziatorik ez eskatzea, lortzeko zailtasun handiak ikusten dituztelako, edota enpresek onartzeko moduko zentzuzko baldintzak lortzea zaila delako. Gainera, baldintza horiek gero eta zorrotzagoak dira, azken hiru urteetako bilakaerari erreparatuta.

Finantziazioa eskuratzeko zailtasun horrek arrisku bikoitza dakar, handiak ez diren enpresetan, batez ere: alde batetik, finantza-egitura ahula izateak arriskuan jar dezake enpresaren iraupena, edozein merkataritza- nahiz finantza-egoera negatiboren aurrean; eta bestetik, jarduera areagotzea eta horrenbestez enplegua sortzea ekarriko luketen negozio-linea berriei edota merkatu berriei ekiteko hedapen-proiektuei uko egin behar izatea enpresek hainbat kasutan.


Horrez gain, **toki-eremuetan, lan intentsiboko zenbait jarduerari –esaterako, merkataritzako, turismoko eta lehen sektoreko jarduerari– izugarri eragin die egungo egoera ekonomiko korapilatsuak**, eta horren ondorioz, azken urteotan enpleguak beheranzko joera izan du (lehen sektoreko jarduerekin zerikusia duen enpleguak izan ezik, zertxobait berreskuratu baita 2012an).

Jarduera horiek indar endogeno handia dute **tokiko ekonomiaren** garapenerako, eta horrek beharrezkoa egiten du jarduera espezifikoak zehaztea, xede izango dutenak jardueren garapena sustatzea eta **batik bat tokikoak diren sektore horietan enpleguari eusten eta enplegua sortzen** laguntzea, eta aldi berean, **tokiko eragileen eta erakundeen arteko lankidetz**a sustatzea xede izango dutenak.


Programa operatibo honen baitan aurreikusitako jarduerak legealdiaren joanean garatuko diren oinarritzko **3 lan-ildo** hauek hartzen ditu kontuan:

- **Enpresa txiki eta ertainen zein autonomoen esku jartzea haiek behar duten finantziazioa**, bai zirkulatzailari dagokionez, bai inbertsioak eta finantzak berregituratzeari dagokionez; **enpresen finantza-egituraren** bideragarritasuna ziurtatzea, haien kapitalizazioaren bidez; eta enpresa txiki eta ertainek finantziatorako aukera izan dezaten sustatzea, enpresentzako **finantziario pribatuaren zerga-tratamendua hobetuz**.
- **Tokiko merkataritzaren** garapena sustatzea eta bultzatzea, enpleguari eusteko garrantzi handiko sektorea den aldetik; eta **turismoaren sektorea** garatzea, **enplegua sortzeko eta tokiko garapenerako** sektore intentsiboa den aldetik.
- **Landa-garapena** sustatzea, lehen sektoreko jarduerari eta haiekin zerikusia duten jarduera eraldatzaileei lagunduta, landako eta itsasertzeko **tokiko enplegu-aukerei** eusten laguntzen duen estrategia baten baitan.

Besteren finantziakzioa lortzen saiatu diren estatuko enpresa txiki eta ertainen ehuneko (Iturria: "Ganberei egindako inkesta, enpresa txiki eta ertainek besteren finantziakzioa eskuratzearaz". 2012ko abendua)




Estatuko enpresa txiki eta ertainen egoera, besteren finantziakzioarako eskaeren arabera (Iturria: "Ganberei egindako inkesta, enpresa txiki eta ertainek besteren finantziakzioa eskuratzearaz". 2012ko abendua)



Enpleguaren bilakaera, EAEko merkataritzaren sektorean


(Iturria: Eustat, Jarduera Ekonomikoen Zuzendaritza)



(Oharra: handizkako eta txikizkako merkataritzako enpleguak eta motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketako enpleguak hartu dira kontuan)

Turismoak EAEko ekonomiari egiten dion ekarpenaren bilakaera, BPGren gaineko ehunekoaren arabera


(Iturria: Eustat, Jarduera Ekonomikoen Zuzendaritza)

Turismoaren sektorean, **51.950 lagun aritu ziren lanean EAEn.**

(Oharra: kontuan hartu dira ostalaritzako eta bidaia-agentzien jardueretako enpleguak, turismo-operadoreak, erreserba-zerbitzuak eta haiekin zerikusia duten jarduerak).

Enpleguaren bilakaera, EAEko lehen sektoreko jardueretan

(Iturria: EIN, Biztanleria Aktiboaren Inkesta)



(Oharra: nekazaritzako, abeltzaintzako, basogintzako eta arrantzako enpleguak hartu dira kontuan)

JARDUERA-ARDATZAK

1.1 ARDATZA- Enpresa txiki eta ertainen eta autonomoen finantziazioa.

1.2 ARDATZA- Turismoa eta tokiko merkataritza eta enplegua.

1.3 ARDATZA- Lehen sektorearen eta enpleguaren garapena.

2. Programa Operatiboa- Ekintzailtza Sustatzea


TESTUINGURUA. JUSTIFIKAZIOA

Euskal gizarteak ohartzen da pertsona ekintzaileak izatearen garrantziaz: jardunean aritzen diren pertsonak dira, norberaren laneko etorkizuna diseinatzearen eta sortzearen aldeko apustua egiten dute, eta aldi berean, beste pertsona batzuentzako lan-aukerak sortzen dituzte.

EAEEn, tradizioz, garrantzi handiko kultura ekintzailea izan dugu, eta horrek eman digu gizarte aurreratu bihurtzeko aukera, bai eta nazioarteko esparruan lehiakorrek izateko aukera ere. Enpresa-proiektuen mintegi bikaina izan da Euskal Autonomia Erkidegoa, laborategi handi bat. Laborategi horretan ideiek testuinguru egokia aurkitu dute, eta aberastasuna eta enplegua sortzeko gai diren enpresa berriak eratu dira.

Hala ere, azken urteetako datuek erakusten dute **gure dinamismo ekintzailearen zati handi bat galdu egin dugula**. Kultura ekintzaile horri eutsi egin behar diogu, bai eta garatu ere. Izan ere, bat-batean sortzen ez den abantaila dugu, eta berebiziko aktiboa da. Ekimenerako gaitasuna, berritzeko gaitasuna, aukera berriak bilatzeko eta arriskatzeko gaitasuna DNAn gordetzen ez duen euskal gizarteak ez du munduko eskualde lehiakorren artean egoteko aukerarik izango, ez eta garapen eta gizarte-ongizate handienak lortzen dituzten artean egoteko ere.

Datozen 3 urteetan, ELGAn, ekiteko prest dagoen helduen ehunekoa (Iturria: GEM ikerketa, 2011)




Egindako azterlanen arabera, EAEn ekintzaitzarako oztopo nagusiak honako hauek dira, ordenan adierazita: **ekintzaitzari buruzko sentsibilizazio eskasa** Lehen eta Bigarren Hezkuntzan, eta **finantziarioa lortzeko zailtasunak**.

Eusko Jaurlaritzak **gizarte ekintzaile baten lidergoa berreskuratu nahi du**, arriskuak bere gain hartzeko gaitasuna duen gizarte baten lidergoa, pertsona guzti-guztiak kontuan hartzekoak direla jakin behar duen gizarte baten lidergoa. Horregatik da garrantzitsua kultura ekintzailearen aldeko sentsibilizazioa eta mobilizazioa lantzea.

Eta sentsibilizazioa lantzeaz gain, funtsezkoa da **enplegua sor dezaketen enpresa-proiektuak sustatu nahi dituzten pertsonen laguntzea, eskura dauden baliabide guztiak erabiliz**. Are gehiago ekintzaitza-proiektuak dituzten pertsona-kopuru gero eta handiagoak kudeaketarako behar diren ezagutza eta trebetasunak ez dituenen. Egoera hori nabarmenagoa da "beharrak bultzatuta ekintzaile" direnen artean, eta gaur egun EAeko lau ekintzaitetik bat kategoria horretakoa da.

EAEko ekintzaitza-ekimenen inguruko baldintza formalen batez besteko balorazioa (Iturria: GEM azterlana, 2011)



Ekintzaitzarako motibazioaren bilakaera EAEn


(Iturria: GEM azterlana, 2011)

Neurketaren urtea	TEA	TEA aukera	TEA beharra	TEA beste kasu bat
2004	5,3 (100%)	4,4 (84%)	0,9 (16%)	-
2005	5,4 (100%)	4,7 (87%)	0,7 (13%)	-
2006	5,4 (100%)	4,7 (87%)	0,7 (13%)	-
2007	6,4 (100%)	5 (78%)	0,7 (10%)	0,7 (12%)
2008	6,8 (100%)	5,6 (82%)	0,8 (12%)	0,4 (7%)
2009	2,8 (100%)	2,2 (80%)	0,3 (10%)	0,3 (10%)
2010	2,5 (100%)	2,0 (80%)	0,4 (16%)	0,1 (4%)
2011	3,85 (100%)	2,8 (73%)	1 (26%)	0,05 (1%)


TEA (Total Entrepreneurial Activity) edo jardura ekintzailearen guztizko indizea. TEA bi ehuneko hauen batura da: alde batetik, herrialde/eskualde bateko enpresa jaioberrien sorreran (merkatuan hiru hilabete baino gutxiagoko jardura izan duten enpresak) parte hartu duten biztanle helduen ehunekoa, 18 urtetik 65era bitartekoak kontuan hartuta; eta bestetik, enpresa berrien sorreran (3 hilabetetik 42ra bitarteko jardura izan dutenak, soldatak ordainduz) parte hartutako en

Ekintzailtza-mota bakoitzerako egokiak diren bitartekoak oinarri hartuta antolatu behar da laguntza hori. Oinarritzko laguntza –funtsean oso handia izaten ez den finantziazioa– behar duten mikroekintzailtza-jarduerak kontuan hartu behar dira (gogoan izan behar da EAEko ekimeneen %94k sei lanpostu baino gutxiago sortzen dituela), bai eta enplegua sortzeko indar handia daukaten eta laguntza-bitarteko sofistikatuagoak behar dituzten proiektuak ere.

EAEko ekintzailtza-ekimeneen banaketa, sortutako enpleguen arabera (Iturria: GEM azterlana, 2011)



EAEn start-up bat abian jartzeko behar den hazi-kapitala (Iturria: GEM azterlana, 2011)



Helburu horiek guztiak **ekainaren 28ko 16/2012 Legean jasota daude, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzekoan**. Lege horrek EAEn eskumen-esparruan ekintzailtza-jarduera sustatzea eta bultzatzea du xede. Lege horren ondorioetarako, “ekintzailtza-jardueratzat hartzen da pertsona fisiko batek, enpresa berri batek edo merkatuan lehendik dagoen enpresa batek produkzio-jarduera berri bat hasteko baliatzen duen prozesua”, eta ekintzailtzat, berriz, “Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan jarduera ekonomiko bat garatu ahal izateko aurretiazko tramiteak egiten ari diren pertsona fisikoak, forma juridikoa edozein izanda ere, edo jardueraren bat betetzen dutenak autonomo gisa, kooperatibista gisa edo mikroenpresetako nahiz enpresa txiki eta ertainetako edo lan-sozietateetako bazkide gisa edo bestelako merkataritza-formula baten bidez, beren helbide fiskala Euskal Autonomia Erkidegoan dutela”. “Ekintzailtzat hartzen dira, halaber, euren jardunean etengabeko konpromiso etikoari eusten dioten eta konpromiso etikoa garatzen duten pertsonak, eta hori hala dela agerian geratzen dena, besteak beste,

lurraldearekiko atxikimenduan eta jarduerari eusteko konpromisoan".

Ekintzailtza Sustatzeko Programak **ekintzaileei laguntza osoa ematea** du helburu, ekiteko jarduerari eta egokierari buruz sensibilizatzetik hasi eta enpresa berriak abian jarri eta lehen urratsak eman arte. Bai eta jarraipena egitea eta lagun egitea ere lehendabiziko hilabeteetan, diskriminazio positiboa eginez kultura- eta sormen-industriekin zerikusia duten enplegu-haztegiekiko, ingurumenarekin zerikusia duten enpresekiko (green jobs), arreta soziosanitarioarekin zerikusia dutenekiko (white jobs), informazioaren eta komunikazioaren teknologiekiko zerikusia dutenekiko (blue jobs) eta espezializazio adimendurako (RIS 3) euskal estrategiaren esparruko sektore estrategikotzat hartzen direnekiko ere bai.

Laguntza hori emateko, proiektu ekintzaile bakoitzaren premien arabera egokitutako bitartekoak erabiliko dira. Bitarteko horien artean, garrantzi handikoak dira **finantziazioa lortzea** kontuan hartzen dutenak; izan ere, horixe da Euskadiko ekintzailtza-jardueren oztopo nagusia, gaur egun. Zehazki, **mikrokredituak** sustatzen dira, mikroekintzailtza-jarduerari laguntzeko oinarritzko bitarteko diren aldetik, bai eta ekainaren 28ko 16/2012 Legean, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzekoan, jasotako beste bitarteko batzuk ere, **Euskadiko Ekintzailtza Sistema baten eraketaren esparruan eta "leihatila bakarraren" filosofia oinarri hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoan sortzen diren enpresa-ekimenei eraginkortasunez eta efizientziaz laguntzeko.**

JARDUERA-ARDATZAK

2.1 ARDATZA- "Euskadi, lurralde ekintzailea". Euskal Ekintzailtza Sistema bultzatzea eta optimizatzea.

2.2 ARDATZA- Autoenpleguari eta mikroekintzailtza laguntzea.

2.3 ARDATZA- Enpresa berritzaile berriak.

3. Programa Operatiboa- Gazteen Enplegua Sustatzea. Gazteentzako - Bermea

TESTUINGURUA. JUSTIFIKAZIOA


Langabezia-egoera, oro har, larria da, eta gazteen kasuan are eta larriagoa: **lan egin nahi duten 25 urtetik beherako hamar lagunetatik lauk ez dute lanik aurkitzen. EAEko langabetuen hirutik bat 35 urtetik beherakoa da jada.**

Gazte horietako askok ez dute inolako lan esperientziarik eta sorgin-gurpil batean daude: “esperientziarik gabeko gaztea ⇒ esperientziarik gabeko gazteak kontratatzen ez dituzten enpresak ⇒ esperientziarik gabeko gaztea”. Beste askok ez dute behar besteko trebakuntza gure enpresa-sareak behar dituen lehiakortasun-eskakizunei aurre egiteko; horrenbestez, haien enplegarritasuna epe ertainean eta luzean oso txikia edo txikia da.

Gazteen langabeziak, eta gazteek enplegua bilatzeari uko egitea dakarten egoerek kostu jakin bat eragiten du ekonomian, gizartean, norbanakoan eta familian. Lanik ez izateak, gaztetan gertatzen bada, pertsona baten etorkizunerako itxaropenak mehatxatzen ditu, eta bizitza guztian iraun dezaketen laneko portaera-eredu desegokiak sortzea eragin ohi du. Horrez gain, ondorio psikosozialak ere aintzat hartzekoak dira, bai eta gizarte batek hezkuntza formalean egindako inbertsio handiaren ondoren bueltan jasotzen dituen emaitza urriak ere.

EAEko langabezia-tasak, adinaren eta sexuaren arabera

(Iturria: Eustat, 2012ko 4. hiruhilekoa)



Horregatik, EAEko gazteen enplegarritasuna eta laneratzea bultzatzea da Gazteentzako Bermea - Gazteen Enplegua Sustatzeko Programaren helburua. Horretarako, hauek dira jarduerak:

- EAEko gazteen artean autoenplegua berriaz sustatzea, eta gazteei mikroenpresa berriak eta negozio txikiak abian jartzeko laguntza ematea.
- **Gazteen eta enpresen arteko hurbiltasun handiagoa**, bai prestakuntza-programen esparruan enpresetan gauzatutako prestakuntzak duen garrantziaren aurrerabideari dagokionez (batez ere, lanbide-heziketan), bai gazteei **lehenengo lan-aukera** emateko programak eta laguntzak ezartzeari dagokionez.
- Euskadiko talentu gazteei laguntzea, gure gazteek **prestakuntza bikaina** izan dezaten bideratuz.

JARDUERA-ARDATZAK

3.1 ARDATZA- Gazteen ekintzailtzari laguntzea.

3.2 ARDATZA- Heziketa duala.

3.3 ARDATZA- Lehen lan-esperientzia.

3.4 ARDATZA- Gazte-talentua.

4. Programa Operatiboa- Enplegurako Prestakuntza

TESTUINGURUA. JUSTIFIKAZIOA

Enplegarritasunean eragin handien duen aldagaietako bat prestakuntza da.

EAEko langabeen artean, hamarretik zazpi dira Lanbide Heziketa baino maila eskasagoko prestakuntza akademikoa dutenak. Datu horren oso bestelakoak dira Europar Batasuneko enplegua gero eta kualifikazio-maila handiagoko okupazioetara bideratzen ari dela adierazten duten azterlanak. Izan ere, 2000. urtean enpleguen %29 kualifikazio txikiko lanpostuak ziren, baina aurreikuspenek adierazten dute 2020an %19ra jaitsiko dela ehuneko hori.


Prestakuntzan inbertitzea behar-beharrezkoa da, baina inbertsio hori "aukera onak ematen dituzten sektoreetara" bideratzea funtsezkoa da, bai profil profesional oso zehatzak eta gaur egungo egoeran ere betetzen zailak diren hobiak helburu hartuta, bai ekonomia berriro hazten hasten denean pertsona berriak hartzeko premia izango dutela aurreikusitako sektoreak kontuan hartuta.

Eskaintako kualifikazioen eta eskatutako kualifikazioen arteko desorekaren testuinguru horretan, **zenbait kolektibo trebatzeko premiazko jarduera** ezinbestekoa da. Kolektibo horien artean nabarmentzen dira, besteak beste, enplegu-erregulazioko prozesuen ondorioz kaltetutakoak, laneko esperientzia izan arren gaitasun profesionalak etorkizun hobeko profiletara bideratu behar dituztenak, eta desgaitasunen bat duten eta/edo bazterketa-arriskuan dauden pertsonak.


Gainera, osagarri gisa, **landunen kalitate handiko prestakuntza** garatu behar da. Izan ere, helburua da, alde batetik, eginkizunak hobeto betetzea, egungo lanpostuetako produktibitateari eta balio-ekarpenari erreparatuta; eta bestetik, laneko ikuspegiak (enplegarritasuna) areagotzea, egungo lanpostua galtzeko arriskua kontuan hartuta.

EAEko biztanle langabeak, maila akademikoaren arabera

(Iturria: Eustat, 2012ko 4. hiruhilekoa)



Eb-27ko okupazio-aurreikuspenak, kualifikazio-mailen arabera (Iturria: "Skills supply and demand in Europe. Medium-term forecast up to 2020", CEDEFOP, 2011)



JARDUERA-ARDATZAK

4.1 ARDATZA- Langabeentzako prestakuntza.

4.2 ARDATZA- Landunentzako prestakuntza.

5. Programa Operatiboa- Enplegu Inklusiboa. Enpleguaren Aldeko Elkartasuna


TESTUINGURUA. JUSTIFIKAZIOA

Langabezian dauden gazteez gain, lan-merkatuari dagokionez, badira gure gizartean egoera ahulean daudenak ere.

2012ko abenduan jasotako datuen arabera, EAEn lanik gabe zeuden pertsonen %54,4 luzaroko langabeak ziren. Egoera horrek, gainera, kopuru absolutuei dagokienez, okerrera egin du krisi-garaian. Horrez gain, haietatik 57.979 lagunek Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jaso zuten.

Kolektibo horiek **enplegua lortzeko arazo bereziak** dituzte, eta horrexegatik hartzen du bere baitan planak pertsona horientzako berariazko programa bat; nolana ere, pertsona horiek planaren gainerako programa operatiboen onuradun izan daitezke.

EAEn lanik gabe luzaroan dauden biztanleak
(urtebete baino gehiago langabezian) (Iturria: EIN, Biztanleria Aktiboaren Inkesta)



Gizartean duen eragina dela eta, **programa operatibo hau lehentasunezkoa da Jaurlaritzarentzat**. Horrenbestez, erakundeen laguntza ahalik eta handiena izango da bi maila hauetan:

- Erakundeek **baliabideak** esleituko dituzte.
- **Lanertzeko programak** propio diseinatu eta jarriko dira abian **kolektibo horientzat**. Programa horietan tokiko eta eskualdeko erakundeek hartu behar dute parte, enplegurako hobiak edo aukerak identifikatzen; baina haiez gain, gizarte-erakundeek ere parte hartu behar dute, funtsezkoak baitira pertsona horiei laguntza sozioprofesionala emateko.

Toki mailako laguntza-jarduerak askotarikoak izan daitezke: udalek eta toki-erakundeek kolektibo hauetako pertsonak zuzenean kontratatzea, toki eta eskualde mailan enplegu-planak egitea, bertako enpresek pertsona horiek kontratatzeko pizgarriak ezartzea edota autoenplegua eta tokiko beharrei eta egokierari lotutako mikroenpresen sorrera bultzatzea, aintzat hartuta landa-garapenera lotutako aukerak.

Enplegua sortzeko proiektu hauek % 100eko finantziazioa jaso dezakete zenbait kolektiboren kasuan, eta banaketa udalerrri edo eskualde bakoitzeko langabetuen kopuruaren arabera egingo da. Gehigarritzko laguntza jasoko dute EAEko betez besteko langabezia gainditzen duten tokietako proiektuek. Plan horiek barne har ditzakete baztertuta gelditzeko arriskuan dauden pertsonen enplegarritasuna handitzeko beharrezko diren gaitze-neurriak eta desgaitzaren bat duten pertsonen laneratzea sustatzekoak.

Gainera, ekintza horiek oso lagungarriak izan daitezke **tokiko ekonomiaren indarra** baliatzeko, produkzio-aukera berriak hautemateko iturri diren aldetik, eta tokiko enplegu-sorrerari eta enpresa-jarduerari laguntzeko, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoaren enplegu-politikaren toki-ikuspegia indartzeko ere.

JARDUERA-ARDATZAK

5.1 ARDATZA- Enplegu-planak tokiko eta eskualdeko esparruan.

5.2 ARDATZA- Kontratatorako beste pizgarri batzuk.

5.3 ARDATZA- Baztertuta geratzeko arriskuan daudenak gaitzea eta laneratzeko laguntzea.

6. Programa Operatiboa- Renove Birgaitzea

TESTUINGURUA. JUSTIFIKAZIOA


Zuzenean zein zeharka eskulan asko eragiten duenez, Euskadin langabeziari aurre egiteko ezinbestekoa da eraikuntza-sektorean esku hartzea. Krisia hasi zenetik sortutako langabeen %20 inguru eraikuntzaren sektorekoak direla kalkulatu da.

Eraikuntzaren sektorean langabezia-tasak handiak badira ere, begi-bistakoa da etxebizitzak birgaitzearen alorrean, batez ere, premia handiak daudela. 50 urtetik gora dituzte EAEko etxebizitza-eraikinen %53k; hau da, Europako maila altuenetako bat. Gainera, eraikinen %15ek premiazko esku-hartzeren bat behar du, honako arrazoi hauen ondorioz:


- Premia sozial handiak: EAEko etxebizitza-eraikinen %76 ez da irisgarria, eta etxebizitzaren %29k ez du igogailurik.
- Portaera energetiko txikia: 1980. urtea baino lehenagokoak dira etxebizitzaren %72, eta urte hartan abiarazi zen etxebizitza-eraikinetan nolabaiteko isolamendu termikoa jartzeko premia kontuan hartzen zuen lehenengo araua.

EAEko langabezia-tasaren bilakaera, sektoreen arabera


(Iturria: Eustat)



EAEen eraikitzen hasitako etxebizitzien kopurua urtean (Iturria: Eusko Jaurlaritza, Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)



EAEko obra handiko lizentzien kopurua urtean (Iturria: Eusko Jaurlaritza, Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)



Etxebizitzez gain, birgaitzeko beste merkatu-hobi batzuk ere badaude. Haietako bat komunitate-ekipamendua da; hau da, **hezkuntza- eta osasun-zentro publikoak**.

Birgaitzea da jardura intentsiboenetako bat, enpleguari dagokionez. Zenbait azterlanen bidez kalkulatuak diren arabera, birgaitzeetan inbertitutako milioi euro bakoitzeko 8-14 lanpostu inguru sortzen dira zuzenean; zenbateko horrek garbi adierazten du garraio-azpiegiturek baino gaitasun handiagoa dutela enplegua sortzeko. Gainera, zeharkako zein eragindako enplegu asko sortzen da.

Birgaitzeen beste ezaugarri bat da hurbileko enplegua eragiten duela, eta mikroenpresei eta enpresa txikiei ematen dietela lana, batez ere. Horren ondorioz, etxebizitzak birgaitzeko ezartzen diren pizgarrien eragina tokikoa da, enpresei eta sortutako enpleguari erreparatuta, batik bat.

Azkenik, merezi du adieraztea laguntza publikoek eragin biderkatzaile handia dutela birgaitzeen eskaeraren sustapenean.

Arrazoi horiek guztiak direla eta, plan honek bere baitan hartzen ditu RENOVE Birgaitzeak, **eraikinen birgaitzearen alorreko lan-merkatua dinamizatzea** helburu hartuta:

- **Laguntza publikoen bidez birgaitzeen eskaera sustatuz**, etxebizitzaren irisgarritasuna eta efizientzia energetikoa hobetuko duten jarduerari lotuta.
- Ikastetxe publikoetan zuzenean inbertituz.
- Osasunaren alorreko zentro eta ekipamendu publikoetan zuzenean inbertituz.

JARDUERA-ARDATZAK

6.1 ARDATZA- RENOVE Etxebizitza.

6.2 ARDATZA- RENOVE Hezkuntza.

6.3 ARDATZA- RENOVE Osasuna.



4. Garatu beharreko ekintzak



Garatu beharreko ekintzak

Arestian aipatutako programa operatiboak eta jarduera-ardatzak ondoren deskribatuko diren ekintzen eta ekimenen bidez garatuko dira. Hemen bildutako ekintzak osatzeko, plana indarrean dagoen aldian ezartzen joango diren ekintza berriak sor daitezke.

Hauek ere zehazten dira:

- Ardatz bakoitzaren garapenean parte hartuko duten gobernuko sailak.
- Eragileak, proposatutako helburuak lortzea bermatuko duten itunak haiekin izenpetzeko.
- Aurreikusitako ekimenak finantzatzeko iturriak; Gobernuaren beraren finantziazioa eta erabilitako kanpo-baliabideak.
- Garatutako ekimenen eragina ebaluatzeko aukera emango duten adierazleak.

6. (Baliabide ekonomikoak) eta 7. (Esperotako eragina) ataletan, ekimenek aurrekontuaren zenbatekoan eta enpleguan izango duten eragina aurreikusten da, ekimenak 2014-2016 tartean programa operatiboan eta ardatzen arabera bilduta. 8. atalean (Planaren kudeaketaren eredua) zehazten den moduan, urteko aurreikuspen orokorra urteko ekintza-planetan zehaztuko da, berariazko ekimenekin, helburu kuantitatiboekin eta aurrekontuekin, Euskadiko autonomia-erkidegoko aurrekontuetan islatuko direnak, eta dagoeneko zehaztuta dauden programa operatiboak eta ardatzei eutsiz.

1. Programa Operatiboa- Enpresa Txiki eta Ertainak eta Tokiko Garapena Sustatzea

JARDUERA-ARDATZAK

1.1 ARDATZA- Enpresa txiki eta ertainen eta autonomoen finantziazioa.

1.2 ARDATZA- Turismoa eta tokiko merkataritza eta enplegua.

1.3 ARDATZA- Lehen sektorearen eta enpleguaren garapena.

1.1 Ardatza- Enpresa txiki eta ertainen eta autonomoen finantziak

HELBURUAK

Enpresa txiki eta ertainei eta autonomoei beharrezko finantziak lortzen laguntzea, beren inbertsio-proiektuetarako eta finantza-egitura hobetzeko, bai epe laburrean (maniobra-funtsa) bai epe luzean (kapitalizazioa eta zorpetze-maila).

Euskal enpresek beren bideragarritasuna bermatuko duen finantza-egitura aurkitzeko egin beharreko deskapitalizazio nabarmenerako berariazko soluzioak ematea; esate baterako, enpresako langileak akziodunen partaidetza sartzeko eta partaidetza handitzea. Kapitalizazio horrek enpresaren izaera juridikoa aldatzea eta gizarte-ekonomia arloko enpresa bihurtzea ekar dezake zenbait kasutan.

Zerga-pizgarriak eskaintzea, behar adina aurrezki pribatu bideratzeko enplegu berriak sortzeko gai diren euskal enpresa txiki eta ertainetara, autonomoengana eta star-upetara, eta enpresetako langileei partaidetzak eskuratzen laguntzeko, zerga-tratamendu berezien bidez. Hartara, mailegua asko murriztu den egoera batean, enpresen finantziak hobetzea lortu da, modu egonkorrean, eta enpresen kaudimen- eta autofinantziatio-ratioak hobetuz.

DESKRIBAPENA. PIZGARRIAK ETA LAGUNTZA EMATEKO NEURRIAK

- AFI programa, inbertsiorako finantza-laguntzena, ibilgetu ez-material eta/edo material berrietan inbertsioak egiteko eta zirkulatuak finantzatzeko.
- Bideratu programa, krisialdiak jotako enpresak berregituratu eta bultzatzeko.
- Partaidetza-maileguen programa, Europako Inbertsio Bankuak finantzatuak.
- Finantza-erakundeekin egindako hitzarmena, ETE-en eta autonomoen finantziak indartzeko.
- ETE-en eta autonomoen Zirkulatuak Finantzatzeko eta Finantzak Berregituratzeko Funts Osagarri Berria, Elkarren Bermerako Sozietateen 600 milioi euroko bermea duena.
- Zailtasunak dituzten enpresak gizarte-ekonomiako enpresa bihurtzeko bideragarritasun-azterketak egiteko aholkularitza.
- Zailtasunak dituzten enpresen birfinantziatio-prozesuei finantza-laguntza emateko berariazko neurriak.
- Kapital-funts bat ematea, jarduerak bultzatzeko, negozioak egiten jarraitzeko, eta langileek beren enpresetan partaidetza izateko eredia oinarri hartuta, finantziatio-zailtasunak dituen ingurunean garatzeko.
- Inbertsio pribatua enpresa-jardueretan sartzeko, zerga-pizgarriekin lotutako neurriak.
- Zerga-tratamendu berezien neurriak, langileek enpresetan partaidetza pribatuak har ditzaten, zerga-arintzeen bidez.

GARAPENEAN ZERIKUSIA DUTEN GOBERNUKO SAILAK ETA ARLOAK

- Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila / SPRI
- Ogasun eta Finantzako Saila.
- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

ITUNAK EGITEKO ERAKUNDEAK ETA ERAGILEAK

- Finantza-erakundeak eta beste finantza-tresna batzuk, Euskadiko enpresa-sarearen esku funtsak jartzeko duen gaitasunagatik.
- Elkarren bermerako sozietateak, horrelako operazioak bermatzeko duten gaitasunagatik.
- Enpresa-elkarteak, programa horiek hedatzen lan egin dezaketenak.
- Gizarte-ekonomia sustatzeko erakundeak.
- foru-aldundiak, zerga-gaietan eskudunak baitira.

FINANTZIAZIO-ITURRIAK

2014-2016 aldirako Eusko Jaurlaritzaren finantziazioa	Erabilitako baliabide pribatuak 2014-2016	Baliabideak guztira 2014-2016
6.489.884 €.	906.000.000 €.	912.489.884 €.

ERAGINA ENPLEGUAN 2014 - 2016

Helburua	Adierazlea	Aurreikusitako eragina
Enpleguari eustea (pertsonak)	Enpresetan mantendutako enplegu-kopurua eta finantziazioa lortu duten autonomoak	64.965
	Merkatuko enpresak gizarte-ekonomiako enpresa bihurtuz mantendutako enplegu-kopurua	450
Lagundutako enpresak, lehendik zeudenak	Enpresa-kopurua.	4.353

1.2 Ardatza- Turismoa eta tokiko merkataritza eta enplegua

HELBURUAK

Tokiko merkataritza bultzatzea eta erraztea, enpleguari eusteko jarduera intentsiboa den aldetik eta gure bizimoduarekin lotutako beharrezko gizarte-dinamika bat delako ("merkataritza bizitza da").

Turismo-sektorea garatzen laguntzea, enplegua sortzeko eta tokiko garapenerako sektore intentsiboa izan daitekeelako.

DESKRIBAPENA. PIZGARRIAK ETA LAGUNTZA EMATEKO NEURRIAK

- Euskadiko merkataritza-elkarteetan eta garapen-agentzietan jarduteko gazteentzako bekak tokiko eta eskualdeko merkataritza-inguruneen dinamizazioa bultzatzeko.
- AFI programa, inbertsiorako finantza-laguntzena, ibilgetu ez-material eta/edo material berrietan inbertsioak egiteko eta zirkulatzaileria finantzatzeko, merkataritza-sektoreko enpresek hasia.
- Merkataritza-establezimenduak zaharberritzeko laguntza-programa.
- Merkataritza-establezimenduetan IKTak ezartzeko laguntzak.
- Merkataritzan goi-kalitateko ziurtagiria lortzeko laguntza-programa.
- Enpresek eta erakundeek turismo-industrietan lehiakortasuna hobetzeko laguntzak, turismo-eskaintzaren aniztasuna eta kalitatea hobetuz, eta Euskadi bere berezitasunengatik eta ezaugarri bereizgarriengatik ezagutzeko turismo-marka gisa kokatuz.
- Turismo-enpresentzako laguntzak, berrikuntza teknologikoak ezartzeko, IKTak barne, kudeaketa- eta merkaturatze-prozesuetan, azpiegiturak eta zerbitzuak zaharberritzeko, eta turismo-eskaintza Euskadiko turismo-irrigarritasunaren eredura egokitzeko.

GARAPENEAN ZERIKUSIA DUTEN GOBERNUKO SAILAK ETA ARLOAK

- Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila

ITUNAK EGITEKO ERAKUNDEAK ETA ERAGILEAK

- Foru-aldundiak.
- Merkataritza-ganberak.
- Udalak eta mankomunitateak.
- Merkatarien tokiko erakundeak.
- Turismoa sustatzeko elkarteak.
- Turismo-eragileen elkarteak edo taldeak.

FINANTZIAZIO-ITURRIAK

2014-2016 aldirako Eusko Jaurlaritzaren finantziazioa	Erabilitako baliabide pribatuak 2014-2016	Baliabideak guztira 2014-2016
21.451.197 €.	0 €.	21.451.197 €.

ERAGINA ENPLEGUAN 2014 - 2016

Helburua	Adierazlea	Aurreikusitako eragina
Enpleguari eustea (pertsonak)	Zaharberritzeko eta lehiakortasuna hobetzeko laguntza jaso duten merkataritza- eta turismo-enpresetan mantendutako enplegu-kopurua	34.788
Enplegagarritasuna handitzea (pertsonak)	Beken bitartez, lehen enplegura hurbiltzeko programetan parte hartzen duten gazteen kopurua ⁹	96
Lagundutako enpresak, lehendik zeudenak	Zaharberritzeko eta lehiakortasuna hobetzeko laguntza jaso duten merkataritza- eta turismo-enpresak	11.034

⁹ Planean enplegu-aukerak sortzeko zenbaketari dagokionez, beken formularen bidez lortutako lan-espereintzia kualifikatzaileak erantsi dira.

1.3 Ardatza- Lehen sektorearen eta enpleguaren garapena

HELBURUAK

Landako eta itsasertzeko garapena bultzatzea, gune horietan garrantzitsua den sektore batean enpleguari eusteko bidea den aldetik.

Lehen sektorearekin eta horren produktuak eraldatzearekin lotutako enplegua ezinbestekoa da lurraldean biztanleria finkatzeko.

DESKRIBAPENA. PIZGARRIAK ETA LAGUNTZA EMATEKO NEURRIAK

- Leader programa, landa-ekonomia dibertsifikatzeko eta landa-eremuetan bizitzaren kalitatea hobetzeko jarduerak eta inbertsioak finantzatzeko laguntza ekonomikoak ematen dituena, Landa Garapen Iraunkorreko Programaren esparruan mikroenpresak sortuz eta garatuz, besteak beste.
- Erein programa, landa-inguruneak sustatzeko eta garatzeko jarduerak eta inbertsioak finantzatzeko laguntza ekonomikoak ematen dituena.
- Itsaspen programa, itsasertzeko eremuak garatzeko eta bultzatzeko laguntzak ematen dituena, biztanleriaren oinarrizko zerbitzuak eta bizi-kalitatea hobetzeko, eta kostaldeko herriak biziberritzen eta berritzen lagunduko duten jarduera ekonomiko berriak sortzen laguntzeko, enpresak eta autoenplegua sortuz, zabalduz eta zaharberrituz, besteak beste.
- Nekazaritza-turismoko establezimenduetan inbertsioak egiteko laguntza ekonomikoak, establezimendu berriak zabaltzea eta lehendik daudenak zabaltzea edo hobetzea kontuan hartuta.
- Gaztenek programa, nekazari gazteak Euskadiko nekazaritza-sektorean sartzekoa.

GARAPENEAN ZERIKUSIA DUTEN GOBERNUKO SAILAK ETA ARLOAK

- Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila

ITUNAK EGITEKO ERAKUNDEAK ETA ERAGILEAK

- Foru-aldundiak.
- Udalak eta mankomunitateak.
- Garapen-agentziak.
- Nekazaritza-eragileen elkarteak edo taldeak.

FINANTZIAZIO-ITURRIAK

2014-2016 aldirako Eusko Jaurlaritzaren finantziazioa	Erabilitako baliabide pribatuak 2014-2016	Baliabideak guztira 2014-2016
16.036.309 €.	0 €.	16.036.309 €.

ERAGINA ENPLEGUAN 2014 - 2016

Helburua	Adierazlea	Aurreikusitako eragina
Enplegua sortzea (pertsonak)	Lehen sektoreko enpresa berriek eta autonomoek eta nekazaritza-sektorean sartutako gazteek sortutako enplegu-kopurua	405
Enplegagarritasuna handitzea (pertsonak)	Ikerkuntza- eta garapen-beken bitartez eta nekazaritzako sektorean sartzeko programen bitartez lehen enplegura hurbiltzeko jardueretan parte hartzen duten gazteen kopura.	246
Lagundutako enpresak, lehendik zeudenak	Enpresen lehiakortasuna hobetzeko laguntza jaso duten lehen sektoreko enpresen eta autonomoen kopurua	135
Lagundutako enpresa berriak	Lehen sektorean laguntza jaso duten enpresa eta autonomo berrien kopurua.	261

2. Programa Operatiboa- Ekintzailletza Sustatzea

JARDUERA-ARDATZAK

2.1 ARDATZA- "Euskadi, lurralde ekintzailea". Euskal Ekintzailletza Sistema bultzatzea eta optimizatzea.

2.2 ARDATZA- Autoenpleguari eta mikroekintzailletzari laguntzea.

2.3 ARDATZA- Enpresa berritzaile berriak.

2.1 Ardatza- "Euskadi, lurralde ekintzailea". Euskal Ekintzaitza Sistema bultzatzea eta optimizatzea

HELBURUAK

Euskal herritarren ekintzaitza-zaletasuna handitzea, enpresa berriak eta enplegu berriak sortzeko ahalmena izango duten enpresa-ekimenak lortzeko. Bereziki, gaztetatik sensibilizatzen hastea da helburua; hain zuzen ere, hezkuntza-sistemaren azken etapetan: batxilergoan, lanbide-heziketan eta unibertsitateetan.

Euskadin sortzen diren ekintzaitza-ekimenetan informazioa, aholkularitza eta laguntza emateko, erantzun osoa, eraginkorra eta efizientea eskaintzea.

Lehendik dauden baliabideen koordinazioa handitzea, emaitza hobekiak lortzeko; hau da, enpresa-ekimen gehiago eta kalitate handiagokoak lortzeko (oinarri teknologikoa edo/eta berritzailea duten ekimenak, merkatu orokorragoetara bideratuak, ...).

DESKRIBAPENA. PIZGARRIAK ETA LAGUNTZA EMATEKO NEURRIAK

- Hasierako aurrez aurreko informazioa eta aholkularitza. Leihatila Bakarreko (one-stop shop) eredurantz joatea. Eredu horretan, pertsona ekintzaileek aholkularitza pertsonalizatua izango dute, bere proiektuari egokitzen zaizkion zerbitzuei eta tresnei buruzko beharrezko informazioa eta haiekiko deribazio efizientea duena, Baliabideen Mapa eta jarraibide argiak ezarriz ekimen bakoitzaren arreta-puntuarekiko, ezaugarri batzuen arabera: sustatzaileak zer kolektibotakoak diren, jarduera-sektorea, berrikuntza-maila, ekimenaren dimentsioa...
- Enpresa berriak sortzeko izapideak sinplifikatzea.
- 16/2012 Legean, ekainaren 28koan, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzekoan ageri diren beste neurri batzuk garatzea: Ekintzaitzari Laguntzeko Programa, udal-tasen konpentsazioa, business angels eta haren sareei laguntzak, business angels direktorioa eta haren sareak, etab.
- Gaur egungo ekintzaileei bideratutako ekintzaitza-kulturari buruzko sensibilizazioa; hau da, aukeraz zein beharrez ekintzaitza lanean txertatzeko eta enplegua sortzeko aukera gisa ikus dezaketen pertsonen bideratua. Kasu honetan, Euskal Ekintzaitza Sistemaren dauden aukerak eta tresnak erakustea da, ekimen berriei laguntza emateko.
- Etorkizunean ekintzaileak izan daitezkeenei ekintzaitza-kulturari buruzko sensibilizazioa eskaintzea. Kasu honetan, "ekiten erakustea" da, Euskadiko gaur egungo haurrek eta gazteek etorkizunean beren enpresa-proiektuen buru izateko aukera izan dezaten ekintzaitza-abileziak hezkuntza-sisteman bertan lantzea.
- "Euskadi Emprende" webgunea dinamizatzea. Webgune horretan, Euskadin ekintzaitzarekin lotutako informazioa biltzen da, eta ezagutzak eta proiektuen garapenak trukatzeko sarea sortzen da, ekintzaitzari laguntzeko dauden zerbitzu eta programa guztiak buruzko informazioa eskuratzeko.

GARAPENEAN ZERIKUSIA DUTEN GOBERNUKO SAILAK ETA ARLOAK

- Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila / SPRI
- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila /Lanbide.

ITUNAK EGITEKO ERAKUNDEAK ETA ERAGILEAK

- Foru-aldundiek eskarmentu handia dute ekintzailletza-kultura bultzatzen. Jardunbide egokien adibideak dira Bizkaiko Foru Aldundiaren "Ekin eta Egin" programa (Lanbide Heziketako eta Batxilergoko gazteentzat) eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren "Hasi eta Hazi" programa (6 urtetik 18ra bitarteko ikasleentzat).
- Euskadiko udal eta eskualde ugarik ere badute eskarmentua esparru horretan; esate baterako, enpresa-lehiaketan bidez (direla benetako proiektuak edo ideiak eta maketak) eta udalerriko edo eskualdeko bertako potentzialari lotutako sektoreetako ekintzailletza-aukerak erakusteko jardunaldiak antolatuz.
- Euskadiko udal eta eskualde ugarik dituzte Tokiko Garapeneko Agentziak, eta haietan badaude pertsona ekintzaileentzat hasierako informazio eta aholkularitza emateko zerbitzuak. Garapen-elkarteak biltzen dituen tokiko garapeneko 32 agentziek autoenpleguari eta enpresak sortzeari buruzko 12.145 kontsultari erantzun zieten 2012an.
- Merkataritza-ganberak ere funtsezko eragileak dira Euskal Ekintzailletza Sistemari. Lurraldeko ekonomiari eta enpresei buruzko informazio interesgarria eskaintzen dute (askotan, georreferentzia eta guzti), eta negozio berri bat abian jartzeko behar diren administrazio-izapideak arinago egiteko aukera ematen duten zerbitzuak eskura izaten dituzte.
- Ekintzailletza-gaietan jarduten duten beste eragile batzuk.

FINANTZIAZIO-ITURRIAK

2014-2016 aldirako Eusko Jaurlaritzaren finantziakzioa	Erabilitako baliabide pribatuak 2014-2016	Baliabideak guztira 2014-2016
5.341.478 €.	0 €.	5.341.478 €.

ERAGINA ENPLEGUAN 2014 - 2016

Helburua	Adierazlea	Aurreikusitako eragina
Enplegagarritasuna handitzea (pertsonak)	Ekintzailletza-kultura sustatzeko ekintzetan parte hartzen duten pertsonak	(*)
	Informazioa eta laguntza jaso duten pertsonak	(*)

(*) Programa honek enpresak sortzeko aurretiko ekintzetan laguntza ematen du, eta ondoren, 2.2 eta 2.3 ardatzetako ekintzekin osatzen dira; beraz, kuantifikatu arren, ez dira planearan finkatuko.

2.2 Ardatza- Autoenplegurako eta mikroekintzaitzarako laguntza

HELBURUAK

Enplegu berriak sor ditzaketen autonomo berrien eta mikroenpresen ekimenei erabateko laguntza ematea. Gogoan izan behar da 10 euskal enpresatik 9 mikroenpresak direla, 10 langile baino gutxiagokoak, eta horiek sortzen dutela gure ekonomiako hiru enplegutik bat.

Enpresa-proiektu berriak abian jartzeko beharrezkoa den finantziarioa eskuratzea berriaz laguntzea, mikroekintzaitzen gabeziak eta beharrak ugariak badira, kanpo-finantziarioa lortzea baita zailtasun nabarmenenetako bat.

Europar Batasuneko Ekonomia Gaietako eta Garapeneko Batzordearen 2011ko maiatzaren 9ko txostenean adierazten den moduan, mikrofinantzak langabeziaren aurkako tresna berri bat dira. Arrazoi horrengatik eta beste batzuegatik, Europar Batzordeak Europan mikrofinantza-sistema bat sartzearen alde egiten du, mikrofinantziarioak lanpostu berriak sortzen lagunduko duela uste duelako, enpleguari dagokionez ahulena diren multzoentzat beharrezkoa den finantziarioaren eskaintza eta eskuragarritasuna handituko dituelako. Euskadin, mikroredituen zenbait esperientzia izan dira, baina ez dute beharreko dimentsioa lortu mikroekintzaitzek aurkitzen duten eskala handiko konponbide bihurtzeko: finantziarioa lortzea; batik bat, ohiko finantza-erakundeek proiektuaren bideragarritasunarekiko berme gehigarriak eskatzen dituzten kasuetan. Horrengatik, Eusko Jaurlaritzak tresna hori bultzatu nahi du, pertsonen beren lanpostua sortzeko aukera emateko.

DESKRIBAPENA. PIZGARRIAK ETA LAGUNTZA EMATEKO NEURRIAK

- Hobariak Gizarte Segurantzako kuotan, langabeziatik datozen autonomo berrientzat.
- Aholkularitza eta laguntza pertsonalizatua proiektuen bideragarritasuna aztertzeko, negozio-planak egiteko eta enpresa berriak abian jartzeko.
- Finantziario publikoa zein pribatua bilatzen laguntzea.
- Mikrofinantziarioan adituak diren erakundeekin hitzarmenak egitea, mikroekintzaitzek behar duten finantziarioa lor dezaten, finantziarioaren bermeak (proiektuaren bermea) eta kostua onartzeko modukoak izanik.
- Mikroekintzaitzen finantziario- eta laguntza-aukera horiek jakinaraztea, aukera hori baliatzeko.
- Mikroenpresetako eta enpresa txiki-txikiaren belaunaldien arteko txandan laguntza emateko berriazko neurriak.

GARAPENEAN ZERIKUSIA DUTEN GOBERNUKO SAILAK ETA ARLOAK

- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila / Lanbide.
- Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila / SPRI

ITUNAK EGITEKO ERAKUNDEAK ETA ERAGILEAK

- Mikrokredituak ematen espezializatutako finantza-erakundeak.
- Foru-aldundiak, ekintzaitzari laguntzeko programak dituztenak eta zenbait kasutan pizgarri ekonomiko garrantzitsuak ematen dituztenak, mikroenpresa berriak abian jartzen laguntzeko.
- Tokiko Garapen Agentziak eta ekintzaitza-gaietan parte hartzen duten beste eragile batzuk, mikroenpresak sortzeko aholkularitza- eta laguntza-zerbitzuak dituztenak, proiektuak mikrokreditu-erakundeetan aurkezteko behar duten informazioa eta laguntza izan dezaten.

FINANTZIAZIO-ITURRIAK

Eusko Jaurlaritzaren finantziazio publikoaz gain, finantziazio pribatua mobilizatzea ere aurreikusten da; mikrokreditu-erakundeek eskaintzen duten finantziazioa eta finantziazio pribatuaren beste modu berritzaile batzuk.

2014-2016 aldirako Eusko Jaurlaritzaren finantziazioa	Erabilitako baliabide pribatuak 2014-2016	Baliabideak guztira 2014-2016
8.544.860 €.	15.000.000 €.	23.544.860 €.

ERAGINA ENPLEGUAN 2014 - 2016

Helburua	Adierazlea	Aurreikusitako eragina
Enplegua sortzea (pertsonak)	Mikroekintzaitza berrietan sortutako enplegu-kopurua	2.409
Enpleguari eustea (pertsonak)	Belaunaldien arteko txanda izandako mikroenpresetan eta enpresa txikietan mantendutako enplegu-kopurua	3.960
Lagundutako enpresak, lehendik zeudenak	Lehendik zeuden autonomoak eta mikroenpresak, lehiakortasuna hobetzeko laguntza jaso dutenak	90
Lagundutako enpresa berriak	Lagundutako mikroenpresa berrien kopurua	2.058

2.3 Ardatza- Enpresa berritzaile berriak

HELBURUAK

Enpresa berritzaile berrien proiektuei laguntza ematea; batik bat, produktu, prozesu edo zerbitzu berriak lortzeko edo lehendik daudenak nabarmen hobetzeko aurrerapen teknologikoak ekar ditzaketen ikerketen emaitzak ustiatzeko aukera duten Oinarri Teknologikoko Enpresa Berrientzat (NEBT).

Laguntza horren barruan, arrisku-kapitala, eta horren barruan, hazi-kapitala tresna egokia da hazkunde ekonomikoko potentzial handia duten enpresa berritzaileak ekimen publikoaren laguntzaz garatzeko eta finkatzeko. Eusko Jaurlaritzak horrelako tresnak sustatzen eta kudeatzen eskarmentu handia duen arren, enpresa-proiektuek behar duten finantziarioa lortzeko dituzten zailtasunak ikusita, indartu egin behar direla uste du.

Gizarte-ekonomiaren sektorearen garapena eta merkatu-estrategiak erabiltzen dituzten beste ekintzaitza-jarduera batzuk laguntzen jarraitzea, gizarte-helburu bat lortzeko. Gizarte-ekonomiarena sektore garrantzitsua da tradizionalki gure herrialdean. EAEn 2.200 gizarte- eta lan-kooperatiba baino gehiago daude, enpleguaren %7 inguru sortzen dutenak.

Gainera, enpleguari dagokionez hazteko potentzial handia duten enpresak sortzeko eta garatzeko proiektuei laguntza osoa eta berariazkoa ematea planteatzen da, eta enpresa-arlo berrien sorrerari laguntzea; esate baterako, sortze-industriak, ingurumen-industriak (green jobs), informazioaren teknologiek lotutakoak (blue jobs) eta osasunarekin lotutakoak (white jobs).

DESKRIBAPENA. PIZGARRIAK ETA LAGUNTZA EMATEKO NEURRIAK

- Ekintzaile XXI Funtsa zabaltzea.
- Dauden beste funts batzuk zabaltzea.
- "Euskadi Funtsa" ezartzea, enpresa-ekimen berriak kapitalez hornitzeko.
- Ekintzaile programa, industria-izaera berritzailea duten enpresa-proiektu berrietarako edo lotutako zerbitzuak, Enpresa eta Berrikuntza Zentro (CEI) batek babestuek, ideia umotzeko eta enpresa abian jartzeko faseetarako.
- Proiektu berritzaileei laguntza emateko beste programa eta tresna batzuk.
- Gizarte-ekonomiako proiektu berrien bideragarritasuna aztertzeke laguntzak.
- Gizarte-ekonomiako enpresetan enplegu berriak sortzeke laguntzak.
- Enpresa-haztegiak gizarte-ekonomiako enpresentzat.
- Gizarte-ekintzaitzari laguntzeke beste neurri batzuk.
- Connect Programa: Industria-enpresa gazte berritzaileek (edo lotutako zerbitzuek), hazteko potentzial handia dutenek (gutxienez 25 lanpostu sortzea), eta Enpresa eta Berrikuntza Zentro batek babestutakoek garatutako enpresa-proiektuak finantzatzeko laguntza ekonomikoak.
- MiniConnect Programa: Industria-enpresa gazte berritzaileek (edo lotutako zerbitzuek), hazteko potentzial handia dutenek (gutxienez 10 lanpostu sortzea), eta Enpresa eta Berrikuntza Zentro batek babestutakoek garatutako enpresa-proiektuak finantzatzeko laguntza ekonomikoak.

- Enpresa-haztegi berrietan ekintzaitzari laguntzeko beste neurri batzuk; alegia, sortze-industrietan, ingurumen-industrietan (green jobs), informazioaren teknologiek laguntzeko (blue jobs) eta osasun-industrietan (white jobs).

GARAPENEAN ZERIKUSIA DUTEN GOBERNUKO SAILAK ETA ARLOAK

- Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila / SPRI
- Ogasun eta Finantzetako Saila.
- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

ITUNAK EGITEKO ERAKUNDEAK ETA ERAGILEAK

- Foru-aldundiak, arrisku-kapitaleko berezko tresnak eduki eta ekintzaitza berritzaileei eta gizarte-ekonomiako proiektuei laguntzen dietenak. Gainera, proiektuei buruzko informazioa eta jarraibideak eman diezazkiekete enpresei eta I+G+Bko eragileei.
- Finantza-erakundeak eta finantziarioko beste tresna batzuk.
- Ekintza eta Berrikuntza Zentroak, proiektuen aholkulari gisa jardun dezaketenak.
- Komertzialki ustia daitezkeen eta produktu, prozesu eta zerbitzuetara lekualda daitezkeen lehiaketa-abantaila bihurtu daitezkeen ikerketetan jarduten duten I+G+Bko eragileak.
- Tokiko Garapen Agentziak eta ekintzaitza-gaietan parte hartzen duten beste eragile batzuk, proiektuetan gizarte-ekonomiaren abantailen eta balioen gainera informazioa ematen dela bermatzeko, bai eta formula horretarako eta bultzatzeko dauden tresnetarako laguntza jasotzeko ere. Halaber, eragile horietako batzuek gizarte-berrikuntzako programak edukitzen dituzte, gizarte-ekintzaitza berriei laguntza osagarria eman ahal izateko. Gainera, proiektuei buruzko informazioa eta jarraibideak eman diezazkiekete enpresei eta I+G+Bko eragileei.
- Gizarte-ekonomia sustatzeko eragileak eta erakundeak.
- Innobasque, "enpresak azeleratzeko" zerbitzua duena. Balio erantsi gisa bazkideen eta adituen sare zabal bat eskaintzen du, proiektuak errazten laguntza eman dezakeena.

FINANTZIAZIO-ITURRIAK

2014-2016 aldirako Eusko Jaurlaritzaren finantziakzioa	Erabilitako baliabide pribatuak 2014-2016	Baliabideak guztira 2014-2016
47.583.222 €.	0 €.	47.583.222 €.

ERAGINA ENPLEGUAN 2014 - 2016

Helburua	Adierazlea	Aurreikusitako eragina
Enplegua sortzea (pertsonak)	Proiektu berritzaile berriek eta laguntza jaso duten sektore estrategikoek sortutako enplegu berriak	4.063
	Gizarte-ekintzaitzak sortuz edo zabalduz sortutako enplegu-kopurua	300
Lagundutako enpresak, lehendik zeudenak	Lagundutako enpresak eta gizarte-ekintzaitzak	45
Lagundutako enpresa berriak	Lagundutako sektore estrategikoetako edo/eta gizarte-ekintzaitzetako enpresa berritzaile berrien kopurua	753

3. Programa Operatiboa- Gazteen enplegua sustatzea. Gazteentzako bermea

JARDUERA-ARDATZAK

- 3.1 ARDATZA- Gazteen ekintzaitzari laguntzea.
- 3.2 ARDATZA- Heziketa duala.
- 3.3 ARDATZA- Lehen lan-esperientzia.
- 3.4 ARDATZA- Gazte-talentua.

3.1 Ardatza- Gazteen ekintzaitzari laguntzea

HELBURUAK

Autoenpleguaren eta enpresa berrien sorreraren bidea baliatzea da helburua, gazteentzako enplegua sortzeko tresna den aldetik, euskal gazteek sustatutako enpresa bideragarriak ezartzeko eta garatzeko beharrezko zerbitzuak eskainiz.

DESKRIBAPENA. PIZGARRIAK ETA LAGUNTZA EMATEKO NEURRIAK

- Gazte Ekintzaileei Laguntzeko Programa, beren proiektuen bideragarritasuna aztertzeko egin beharreko gastuei aurre egin ahal izateko.
- Gazteek sustatutako proiektuen bideragarritasuna aztertzen, negozio-planak egiten eta enpresa-ekimenak abian jartzen aholkularitza eta laguntza ematea, enpresa berrietarako finantziazioaren bilaketa barne.
- Gizarte-ekonomian trebatzeko eta hura zabaltzeko ikastaroak gazteentzat.
- Urrats bat programa, lanbide-heziketan ekintzaitzari laguntzeko.
- Junior Kooperatiba programa, junior kooperatiba honela definituta: "sozietatearen helburutzat abilezien inplementazio praktikoa eta bazkide erabiltzaileek, matrikulatuta dauden ikastetxeetan garatzen dituzten jardueretan eskuratzen dituzten ezagutzak dituztenak, ikasleek sortzen dituzten eskaintzak eta proiektuak merkatuan abian jarriz".

GARAPENEAN ZERIKUSIA DUTEN GOBERNUKO SAILAK ETA ARLOAK

- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila / Lanbide.
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

ITUNAK EGITEKO ERAKUNDEAK ETA ERAGILEAK

- Foru-aldundiak.
- Tokiko Garapen Agentziak eta mikroenpresak sortzeko aholkularitza- eta laguntza-zerbitzuak dituzten beste eragile batzuk.
- Gazte-erakundeak.
- Kooperatiben mugimenduari lotuta dauden erakundeak.

FINANTZIAZIO-ITURRIAK

2014-2016 aldirako Eusko Jaurlaritzaren finantziazioa	Erabilitako baliabide pribatuak 2014-2016	Baliabideak guztira 2014-2016
17.393.477 €.	0 €.	17.393.477 €.

ERAGINA ENPLEGUAN 2014 - 2016

Helburua	Adierazlea	Aurreikusitako eragina
Enplegua sortzea (pertsonak)	Gazteek bultzatutako mikroekintzailtza berrietan sortutako enplegu berrien kopurua	2.220
Enplegagarritasuna handitzea (pertsonak)	Mikroekintzailtzako jardueren bitartez, lehen enplegura hurbiltzeko programetan parte hartzen duten gazteen kopurua	120
	Gizarte-ekonomiako trebakuntza-ekintzetan parte hartzen duten gazteen kopurua	9.000
Lagundutako enpresa berriak	Lagundutako mikroenpresa gazteen eta autonomo berrien kopurua	1.632

3.2 Ardatza- Heziketa duala

HELBURUAK

Hezkuntza eta enplegu euskal sistemaren baitako gazteei zuzendutako heziketa dualeko ekintzak areagotzea da helburua, heziketa dualtzat hau hartuta: "enplegu eta prestakuntzako ekimen eta ekintza hezitzaile mistoen multzoa, enpresa bateko lan-jarduera enplegurako lanbide-heziketaren esparruko edo hezkuntza-sistemaren esparruko hezkuntza-jarduerarekin txandakatuz".

Azken urteetan aurrerapenak izan badira ere, oso urrun gaude hezkuntza-eredu horretan buru diren herrialdeen adierazleekiko; Alemaniako adierazleekiko, esate baterako. Hain zuzen, Alemanian, eskolako etapa amaitzen duten 3 gaztetik 2k lanbide-heziketako ikasketak egiten jarraitzen dute, Lanbide Heziketa Dualaren sistemaren baitan.

Horren haritik, Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko Legearen xedea gaitasun pertsonal, sozial eta profesionalak hobetzea da, ikasketa-sistema jarraitu bat definituz haur-hezkuntzatik erretiroa hartu eta gerora arte, hezkuntza, prestakuntza eta lan-bizitzaren arteko trantsizioak barne, ikastea testuinguru formal eta arautuetara soilik mugatzen ez dela onartuz, eta testuinguru ez-formaletan jasotako ezagutzak aitortuz.

DESKRIBAPENA. PIZGARRIAK ETA LAGUNTZA EMATEKO NEURRIAK

- HEZIBI Prestakuntza eta Lan Programa. LHko ikasleentzako eta 16tik 30 urtera arteko gazte langabetuentzako prestakuntza-eredu bat garatzen du programa horrek. Programaren xedea lanbide-gaitasunak hobetzea da, LH titulua lortuz edo enpresako lan-jarduera ordainduarekin txandakatutako lanbide-ziurtagiri bat lortuz.
- Lantokietako Praktiken Programa Lanbide Heziketako heziketa-ziklo guztietan garatzen da. Gutxieneko iraupena hiru hilabetekoa da, eta gazteek eskuratu nahi duten lanbide-tituluari dagozkion jarduerak egiten dituzte.

GARAPENEAN ZERIKUSIA DUTEN GOBERNUKO SAILAK ETA ARLOAK

- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila / Lanbide.
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

ITUNAK EGITEKO ERAKUNDEAK ETA ERAGILEAK

- Enpresa-elkarteak.
- Lanbide-heziketako zentroak eta elkarteak.
- Unibertsitateak.

FINANTZIAZIO-ITURRIAK

2014-2016 aldirako Eusko Jaurlaritzaren finantziazioa	Erabilitako baliabide pribatuak 2014-2016	Baliabideak guztira 2014-2016
14.963.091 €.	0 €.	14.963.091 €.

ERAGINA ENPLEGUAN 2014 - 2016

Helburua	Adierazlea	Aurreikusitako eragina
Enplegagarritasuna handitzea (pertsonak)	Lehen enplegura Ikas-ekinezko prestakuntza eta lanaren bitartez hurbiltzeko programetan parte hartzen duten gazteen kopurua	1.200
	Prestakuntza-aldian enpresetan praktikak egin dituzten gazteen kopurua	120.000

3.3 Ardatza- Lehen lan-esperientzia

HELBURUAK

“Esperientziarik gabeko gaztea ⇒ esperientziarik gabeko gazte bat kontratatu nahi ez duen enpresa ⇒ esperientziarik gabeko gaztea” gurpil zoroa haustea, euskal gazteek lehen lan-esperientzia izan dezaten errazteko.

Gainera, oso garrantzitsua da lehen esperientzia horren erabilgarritasuna bermatzea, horren bidez gazteek lanbide-gaitasunak eta lanaren kulturako ohitura eta gaitasun pertsonalak hobetzeko.

DESKRIBAPENA. PIZGARRIAK ETA LAGUNTZA EMATEKO NEURRIAK

- Lehen Aukera programa, lanbide-heziketako eta unibertsitateko tituluak dituzten gazteek enpresetan praktikak egiteko.
- Euskal enpresek atzerrian dituzten lan-zentroetan gazte langabeak praktiketan kontratatzeko laguntzak.
- Gazteak enpresetan errelebo-kontratu bidez sartzeko laguntzak.
- Sozietate kooperatiboetan plantillak berritzeko laguntzak.
- Unibertsitateekin eta Novia Salcedo fundazioarekin lanbide-orientazioko hitzarmenak egitea, unibertsitate-ikasketak amaitu berri dituzten edo azken urtean dauden gazteen laneratzea errazteko.
- Gazteentzako berariazko orientabidea eta lehen lan-esperientziarako laguntza.
- Nazio Batuen proiektuko bekak, herrialde pobretuetan Nazio Batuen sistemako Nazioarteko Erakundeek garatzen dituzten proiektuetan parte hartzen duten borondatezko lankideei laguntza emateko.

GARAPENEAN ZERIKUSIA DUTEN GOBERNUKO SAILAK ETA ARLOAK

- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila / Lanbide.

ITUNAK EGITEKO ERAKUNDEAK ETA ERAGILEAK

- Gazteei lanean laguntzeko erakunde espezializatuak.
- Enpresa-elkarteak.
- Gazteen lehen kontratazioa sustatzen duten Foru Aldundiak.

FINANTZIAZIO-ITURRIAK

2014-2016 aldirako Eusko Jaurlaritzaren finantziazioa	Erabilitako baliabide pribatuak 2014-2016	Baliabideak guztira 2014-2016
36.749.399 €.	0 €.	36.749.399 €.

ERAGINA ENPLEGUAN 2014 - 2016

Helburua	Adierazlea	Aurreikusitako eragina
Enplegagarritasuna handitzea (pertsanak)	Lehen enplegura hurbiltzeko programetan parte hartzen duten gazteen kopurua	19.749
	Orientabide-ekintzetan parte hartzen duten gazteen kopurua	6.853

3.4 Ardatza- Gazte-talentua

HELBURUAK

Euskal gazteei bikaintasun kualifikaziorako aukera bat ematea da xedea, eta, aldi berean, pizgarriak ezartzea, gazte-talentua Euskadin atxikitzeko, bai eta kalitatezko enplegu-aukerak eskaintzea ere, nazioarteko lan-esperientzia bat izan ondoren Euskadira itzuli diren gazteei.

Euskal gazteen talentuari laguntza emateko, zenbait tresna erabil daitezke. Esate baterako, nazioartekotze-gaietako prestakuntza teorikoa eta praktikoa, unibertsitateekin, eta enpresa-sustapeneko enpresekin eta erakundeekin lankidetzan; edo atzerriko enpresetan eta erakundeetan praktikak egitea, gazteen nazioz haraindiko mugikortasuna sustatzen laguntzeko. Hartara, gazteek beren profil akademikoarekin eta profesionalarekin lotutako jarduerak eta proiektuak garatuko dituzte, prestakuntza praktikoko plan baten baitan.

Osagarri gisa, gazteen itzulera errazteko programa bat ezarri nahi da, nazioarteko esperientzien ondoren enplegua erraztuz, eta, bide batez, gazte-talentua Euskadin atxikitzeko.

DESKRIBAPENA. PIZGARRIAK ETA LAGUNTZA EMATEKO NEURRIAK

- Enplegu Berdea programa, kualifikazio-maila handiko gazte langabeen enplegarritasuna hobetzera zuzendua, garapen iraunkorarekin lotutako arloetan.
- Nazioartekotze-bekak. Unibertsitateko titulua duten gazteei nazioartekotze-gaietan prestakuntza ematea da xedea, unibertsitateen eta enpresen arteko lankidetzaren bidez.
- Talentua atxikitzeko programak.
- Global Training bekak. Unibertsitateko titulua eta goi-mailako lanbide-heziketako titulua duten gazteei zuzendua, enpresetan eta erakundeetan praktikan egiteko atzerrian.
- Gazteak itzultzeko programa, nazioartean lan-esperientzia bat izan ondoren Euskadira itzultzen diren gazteei kalitateko enplegua lortzen laguntzeko.

GARAPENEAN ZERIKUSIA DUTEN GOBERNUKO SAILAK ETA ARLOAK

- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila / Lanbide.
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila / Ikerbasque.
- Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila / SPRI

ITUNAK EGITEKO ERAKUNDEAK ETA ERAGILEAK

- Foru-aldundiak, talentua atxikitzeko ekimenak sustatzen dituztenak; esaterako, Bizkaia:Xede.
- Finantza-erakundeen gizarte-ekintza, beka-programa garrantzitsuak dituztenak.
- Enpresa-elkarteak.

FINANTZIAZIO-ITURRIAK

2014-2016 aldirako Eusko Jaurlaritzaren finantziazioa	Erabilitako baliabide pribatuak 2014-2016	Baliabideak guztira 2014-2016
17.317.665 €.	0 €.	17.317.665 €.

ERAGINA ENPLEGUAN 2014 - 2016

Helburua	Adierazlea	Aurreikusitako eragina
Enplegagarritasuna handitzea (pertsonek)	Lehen enplegura hurbiltzeko programetan parte hartzen duten gazteen kopurua	1.500

4. Programa Operatiboa- Enplegurako prestakuntza

JARDUERA-ARDATZAK

4.1 ARDATZA- Langabeentzako prestakuntza.

4.2 ARDATZA- Landunentzako prestakuntza.

4.1 Ardatza- Langabeentzako prestakuntza

HELBURUAK

Gaur egungo krisi ekonomikoaren ondorioz, enpresek eskatzen dituzten lanpostu berriak asko gutxitu dira. Dena den, egoera horretan ere, badaude "enplegu-hobiak"; eta horietan, kontratazioak egiten dira eta eskaintzen den kualifikazioak ez die enpresen beharrei erantzuten. Gainera, une honetan, zenbait sektore ez dira enplegua sortzen ari, baina beren produktuen edo zerbitzuen barne- edo/eta kanpo-eskaria berriro aktibatu bezain pronto sortuko dute. Horregatik, funtsezkoa da prestakuntza-ekintzak etorkizuneko ekintza horietara bideratzea eta enplegua lortu nahi duten pertsonak haietara orientatzea.

Zoritxarrez, azken urteotan, asko ugaritu dira EAEn lan-harremanak eteteko edo iraungitzeko eskaerak, edo lanaldia murriztekoak, arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolaketa- edo produkzio-arrazoiak direla eta. Iraungitze-espeditenteei dagokienez, kasu askotan espeditente horiek enpresetan ibilbide luzea duten eta gaur egungo abagunean gutxi eskatzen diren gaitasunak dituzten pertsoneri eragiten diete. Horregatik, garrantzitsua da krisian dauden enpresa horietako langileak birkualifikatzeko prozesuak erraztea, eta hartara, haien enplegarritasuna ziurtatzea. Etete-espeditenteen mende dauden pertsoneri ere eragiten die printzipio horrek; izan ere, aldi hori haien gaitasunak hobetzeko bala daiteke.

Halaber, krisi ekonomikoaren ondorioz, aldi baterako merkatutik kanpo egon diren kolektiboak lan-merkatura itzultzen ari dira. Bakarra ez bada ere, agian kolektibo horietako adierazgarriena seme-alabez edo mendeko senideez arduratzeko lan-merkatua utzi zuten pertsonen kolektiboa da –emakumeak gehienbat–, gaur egungo egoera ikusita, etxetik kanpo lan ordaindua behar izanda, atzera "biztanleria aktibo" bihurtu dena. Pertsona horiek, motibazio handiaz gain, enplegurako baliagarriak diren abileziak izaten dituzte; baina, oro har, lanbide-birziklapen garrantzitsua behar izaten dute eremu konkretu eta erabakigarrietan; adibidez, IKTen arloan.

DESKRIBAPENA. PIZGARRIAK ETA LAGUNTZA EMATEKO NEURRIAK

- EEEren baten mende dauden pertsonen birkualifikaziorako programak.
- Kualifikazio urriak edo zaharkituak dituzten langabeak birkualifikatzeko programak.
- Enplegu-itxaropenak dituzten lanetako prestakuntza-programak.
- Hedatze-proiektuak dituzten enpresen beharretara egokitutako kontratazio-konpromisodun prestakuntza-programak.
- Etorkizuneko lan horietarako lanbide-orientabidea.

GARAPENEAN ZERIKUSIA DUTEN GOBERNUKO SAILAK ETA ARLOAK

- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila / Lanbide.

ITUNAK EGITEKO ERAKUNDEAK ETA ERAGILEAK

- Enpresa-elkarteak.
- Sindikatuak.
- Kolektibo horiek ordezkatzeko dituzten erakundeak.
- Prestakuntza-zentroak.

FINANTZIAZIO-ITURRIAK

2014-2016 aldirako Eusko Jaurlaritzaren finantziazioa	Erabilitako baliabide pribatuak 2014-2016	Baliabideak guztira 2014-2016
110.431.798 €.	0 €.	110.431.798 €.

ERAGINA ENPLEGUAN 2014 - 2016

Helburua	Adierazlea	Aurreikusitako eragina
Enplegagarritasuna handitzea (pertsonek)	Gaikuntza-ekintzetan parte hartzen duten pertsonen kopurua	35.700

4.2 Ardatza- Landunentzako prestakuntza

HELBURUAK

Etengabeko Prestakuntza eta Ikaskuntza Iraunkorra langileen, enpresen eta produkzio-sistema osoaren beharrak eta eskakizunak asetzeko oinarritzko tresnak dira. Prestakuntza-mota horren helburua langileen kualifikazioa hobetzea da, haien ahalmenak eta enpresaren produktibitatea handitzen lagunduz. Enpresarentzat, prestakuntza epe luzerako inbertsio bat da, emaitzetan eragiten duena. Langileentzat, norbera aberasteko aukera bat eta norberaren enplegarritasuna hobetzeko tresna bat da, oso erabilgarria gaur egun duten enplegua galduko balute.

Horregatik, landunen gaikuntza eta haien gaitasunak egiaztatzea enplegarritasun-tresnak dira, enplegua sortzeko eta hobetzeko estrategia batean indartu beharrekoak.

DESKRIBAPENA. PIZGARRIAK ETA LAGUNTZA EMATEKO NEURRIAK

- Landunei zuzendutako enplegurako prestakuntza. Landunen gaitasunak eta kualifikazioak hobetzera eta landunak birgaitzera bideratua.
- Gaitasunak egiaztatzea. Prozedura horren bidez lan-praktikaren bidez pertsonak eskuratu dituzten gaitasunen berri izan nahi da; batik bat, aurrez titulazio ofizialik ez baldin badute.

GARAPENEAN ZERIKUSIA DUTEN GOBERNUKO SAILAK ETA ARLOAK

- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila / Lanbide.

ITUNAK EGITEKO ERAKUNDEAK ETA ERAGILEAK

- Enpresa-elkarteak.
- Sindikatuak.
- Prestakuntza-zentroak.

FINANTZIAZIO-ITURRIAK

2014-2016 aldirako Eusko Jaurlaritzaren finantziazioa	Erabilitako baliabide pribatuak 2014-2016	Baliabideak guztira 2014-2016
56.087.200 €.	0 €.	56.087.200 €.

ERAGINA ENPLEGUAN 2014 - 2016

Helburua	Adierazlea	Aurreikusitako eragina
Enplegagarritasuna handitzea (pertsonek)	Gaikuntza-ekintzetan parte hartzen duten pertsonen kopurua	143.100

5. Programa Operatiboa- Enplegu inklusiboa. Enpleguarekiko solidaritatea

JARDUERA-ARDATZAK

5.1 ARDATZA- Enplegu-planak tokiko eta eskualdeko esparruan.

5.2 ARDATZA- Kontrataziorako beste pizgarri batzuk.

5.3 ARDATZA- Baztertuta geratzeko arriskuan daudenak gaitzea eta laneratzen laguntzea.

5.1 Ardatza- Enplegu-planak tokiko eta eskualdeko esparruan

HELBURUAK

Euskadi aitzindaria da Diru-sarrerak Bermatzeko Errentan; hau da, oinarrizko premiei lotutako gastuei zein gizarteratzeko edo laneratzeko prozesu baten ondorio diren gastuei aurre egiteko diru-sarrera nahikorik ez daukatenei zuzendutako gizarteratzeko tresna.

Dena den, garrantzitsua da pertsonak egoera horretan kroniko ez bihurtzea, eta, beraz, Eusko Jaurlaritzaren asmoa da enplegu-planen tresna laneratzeko aukera duten pertsonen aukera bat emateko erabiltzea, eta aukera horri esker, geroago merkatuko enplegu bat lortzeko aukera gehiago izatea. Gainera, enplegu-planen xedea tokiko enpleguaren garapena sustatzea da, enplegu-politikaren tokiko dimentsioa indartuz, eta eragileen eta tokiko erakundeen arteko lankidetzeta eta koordinazioa erraztuz.

Horrez gain, badira bereziki zaugarriak diren beste kolektibo batzuk ere, enplegua lortzeko zailtasun handiak dituztenak: luzaroko langabeak, gazteak, desgaitasunak dituztenak... Horiek ere berariazko laguntza behar dute laneratzeko, eta horrelako programen onuradunak izan daitezke.

DESKRIBAPENA. PIZGARRIAK ETA LAGUNTZA EMATEKO NEURRIAK

- Aldi baterako kontratazio zuzenak egiteko programak, tokiko eta eskualdeko enplegu-planen esparrukoak, DBEaren onuradunentzat, iraupen luzeko langabetuentzat, eta enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuentzat. Programa hauen bitartez, kontratazioei datzekien kostuen % 100 finantzatu ahal izango dira.
- Kontratazioak egiteko pizgarri-programak, tokiko eta eskualdeko enplegu-planen esparrukoak, DBEaren onuradunentzat, iraupen luzeko langabetuentzat, eta enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuentzat.
- Aholkua eta laguntza pertsonalizatua ematea autoenplegu-proiektuen eta mikroenpresen bideragarritasuna aztertzeko, horien negozio-planak egiteko, eta mikroenpresa berriak abiarazteko eta sendotzeko, betiere, toki- eta eskualde-esparruko enplegu-planen esparruan.
- Tokiko esparruan enplegua sortzeko beste zenbait programa, baztertuta gelditzeko arriskuan daudenentzat.

GARAPENEAN ZERIKUSIA DUTEN GOBERNUKO SAILAK ETA ARLOAK

- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila / Lanbide.

ITUNAK EGITEKO ERAKUNDEAK ETA ERAGILEAK

- Udalak eta Tokiko Garapen Agentziak.
- Gizarte-erakundeak.

FINANTZIAZIO-ITURRIAK

2014-2016 aldirako Eusko Jaurlaritzaren finantziazioa	Erabilitako baliabide pribatuak 2014-2016	Baliabideak guztira 2014-2016
48.966.400 €.	0 €.	48.966.400 €.

ERAGINA ENPLEGUAN 2014 - 2016

Helburua	Adierazlea	Aurreikusitako eragina
Enplegua sortzea (pertsonek)	Tokiko eta eskualdeko planen bitartez zuzenean kontratatutako pertsonen kopurua	3.360
	Tokiko eta eskualdeko planen bitartez kontratazioak egiteko ekonomia-pizgarrien ondorioz enpresek kontratatutako pertsonen kopurua	1.332
	Tokiko eta eskualdeko planen bitartez abiarazitako mikroekintzailtza berriek sortutako enpleguen kopurua	3.928
Enpleguari eustea (pertsonek)	Tokiko eta eskualdeko planen bitartez abiarazitako mikroekintzailtza berriak sendotzearen ondorioz mantendu diren enpleguen kopurua.	4.799
Lagundutako enpresa berriak	Tokiko eta eskualdeko planen bitartez sortutako mikroenpresa berrien kopurua	3.273
Lagundutako enpresak, lehendik zeudenak	Lehendik zeuden autonomo eta mikroenpresetatik, zenbati eman zaion sendotzeko laguntza, tokiko eta eskualdeko planen bitartez.	3.999

5.2 Ardatza- Kontrataziorako beste pizgarri batzuk

HELBURUAK

Tokiko eta eskualdeko enplegu-planei bereziki lotutako tresnez aparte, badira beste kolektibo batzuk, zeinek lanbide-kualifikazioaz edo -birkualifikazioaz, laneratzeko aldi bateko enpleguez, eta enpleguan orientatzeko eta laguntzeko tresna espezializatuez gain, berariazko laguntza behar baitute kontrataziorako pizgarriei dagokienez, merkatu arruntean gainerako kolektiboen aukera beretan enplegua lortzeko aukera gehiago izan ditzaten.

DESKRIBAPENA. PIZGARRIAK ETA LAGUNTZA EMATEKO NEURRIAK

- Kontrataziorako pizgarrien programa laneko eta familiako bizitza bateragarri egiteko laguntza-programen esparruan.

GARAPENEAN ZERIKUSIA DUTEN GOBERNUKO SAILAK ETA ARLOAK

- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila / Lanbide.

ITUNAK EGITEKO ERAKUNDEAK ETA ERAGILEAK

- Enpresa-elkarteak, euskal enpresa-ehunean programa horiek hedatzeko duten gaitasunagatik.

FINANTZIAZIO-ITURRIAK

2014-2016 aldirako Eusko Jaurlaritzaren finantziazioa	Erabilitako baliabide pribatuak 2014-2016	Baliabideak guztira 2014-2016
3.672.480 €.	0 €.	3.672.480 €.

ERAGINA ENPLEGUAN 2014 - 2016

Helburua	Adierazlea	Aurreikusitako eragina
Enplegua sortzea (pertsonek)	Kontrataziorako ekonomia-pizgarriak ematen dituzten bestelako programen bitartez kontratatutako pertsonen kopurua	1.530

5.3 Ardatza- Baztertuta geratzeko arriskuan daudenak gaitzea eta laneratzen laguntzea

HELBURUAK

Baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen berriazko laguntza behar dute beren enplegagarritasuna handitzeko, eta horretarako, haien gaikuntza handitu behar da, neurri batean.

Multzo horren barruan, berriaz lagundu behar dira desgaitasunak dituztenak; izan ere, gainerako biztanleek baino prestakuntza-maila eta jarduera-tasa txikiagoa izaten dute, oro har.

DESKRIBAPENA. PIZGARRIAK ETA LAGUNTZA EMATEKO NEURRIAK

- Baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonentzako enplegurako prestakuntza.
- Prestakuntza- eta enplegu-prozesuak Enplegu Zentro Berezietan.
- Garapen sozioprofesionaleko prozesuak eta enplegura igarotzea, Laneratzeako Enpresen bidez.
- Desgaitasunak dituzten pertsonen enpresa arruntetan lan-kontratu mugagabeak egiteko laguntzak.
- Enplegurako laguntzak merkatu arruntetan.
- Desgaitasunak dituztenentzat eta baztertuta geratzeko arriskuan daudenentzat berriazko orientabidea.
- Zeinu-mintzairara itzultzea, entzumen-desgaitasuna duten pertsonen gaikuntza-ekintza estandarretan parte hartzeko aukera emateko.

GARAPENEAN ZERIKUSIA DUTEN GOBERNUKO SAILAK ETA ARLOAK

- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila / Lanbide.

ITUNAK EGITEKO ERAKUNDEAK ETA ERAGILEAK

- Kolektibo horiei arreta ematen espezializatutako gizarte-erakundeak.

FINANTZIAZIO-ITURRIAK

2014-2016 aldirako Eusko Jaurlaritzaren finantziazioa	Erabilitako baliabide pribatuak 2014-2016	Baliabideak guztira 2014-2016
175.104.100 €.	0 €.	175.104.100 €.

ERAGINA ENPLEGUAN 2014 - 2016

Helburua	Adierazlea	Aurreikusitako eragina
Enplegua sortzea (pertsanak)	Enpresetan sartutako pertsonen kopurua	588
Enpleguari eustea (pertsanak)	Enplegu Zentro Berezietan eta Laneratzeko Enpresetan mantendutako enplegu-kopurua	25.665
Enplegagarritasuna handitzea (pertsanak)	Gaikuntza-ekintzetan parte hartzen duten pertsonen kopurua	20.490

6. Programa Operatiboa- Renove birgaitzea

JARDUERA-ARDATZAK

6.1 ARDATZA- RENOVE Etxebizitza.

6.2 ARDATZA- RENOVE Hezkuntza.

6.3 ARDATZA- RENOVE Osasuna.

6.1 Ardatza- Renove Etxebizitza

HELBURUAK

Gaur egungo krisiak eta langabeziak zuzen-zuzenean eragiten diote eraikuntza-sektoreari. 2008-2012 aldian 10 enplegutik 3 galdu direla kalkulatu da. Era berean, Euskadiko Autonomia Erkidegoko etxebizitzek gizarte-behar garrantzitsuak dituzte, bai eta energia-portaera baxuko beharrak ere. Behar horiek ez dira behar den neurrian bete, eraikuntza berriko etxebizitzaren sustapena lehenetsi baita.

Testuinguru horretan, etxebizitzak birgaitzeko sektorean enplegua sortzeko pizgarriak ezartzea planteatu da, eta euskal etxebizitzetako irisgarritasun-baldintzak eta energia-efizientzia hobetzea, birgaitze-politika adimendun, iraunkor eta integratzaile baten bidez.

Birgaitze-proiektu horietan, etxebizitza indibidualetan jarduerak egitea, eraikinen birgaitze integralak egitea, gune eta ekipamendu publikoetako irisgarritasuna hobetzea, eta hirigintza-eta gizarte-izaerako arazo bereziak dituzten guneak berritzea aurreikusten da.

DESKRIBAPENA. PIZGARRIAK ETA LAGUNTZA EMATEKO NEURRIAK

- Etxebizitzan irisgarritasunarekin eta energia-efizientziarekin lotutako birgaitze-lanetarako laguntza indibidualak.
- Etxebizitzan irisgarritasunarekin eta energia-efizientziarekin lotutako birgaitze-lanetarako etxejabeen elkarreentzako laguntzak.
- Etxebizitzan irisgarritasunarekin eta energia-efizientziarekin lotutako birgaitze-lanetarako udalenzako laguntzak.

GARAPENEAN ZERIKUSIA DUTEN GOBERNUKO SAILAK ETA ARLOAK

- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

ITUNAK EGITEKO ERAKUNDEAK ETA ERAGILEAK

- Udalak eta Hiri Birgaitzeko Sozietateak.

FINANTZIAZIO-ITURRIAK

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuan aurreikusitako finantziazio publikoaz gain, banakoek, etxejabeen elkarrekin eta udalek finantziazio pribatua lortzea aurreikusten da, aurrekontu hautagarrian diruz lagunduta ez dagoen zatia eta egindako beste obra batzuk barne.

2014-2016 aldirako Eusko Jaurlaritzaren finantziazioa	Erabilitako baliabide pribatuak 2014-2016	Baliabideak guztira 2014-2016
51.628.336 €.	645.254.736 €.	696.883.072 €.

ERAGINA ENPLEGUAN 2014 - 2016

Helburua	Adierazlea	Aurreikusitako eragina
Enplegua sortzea (pertsanak)	Sortutako enplegu-kopurua (*)	10.256
Birgaitutako etxebizitzak	Birgaitutako etxebizitzaren kopurua	37.306

(*) Sortutako enplegu-kopurua kalkulatzeko, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Etxebizitza Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzan erabilitako birgaitze-jardueren inpaktua estimatzeko eredu erabiliko da.

6.2 Ardatza- Renove Hezkuntza

HELBURUAK

Birgaitzeak eragin handia du enpleguan, eta zeharkako eta eragindako enpleguetan eragin garrantzitsua du. Gainera, hurbiltasuneko enplegu-hobia da eta mikroenpresek eta enpresa txikiek garrantzi nabarmena dute.

Etxebizitzarekin batera, birgaitzeko beste merkatu-hobi batzuk ere hauteman dira; esate baterako, komunitate-ekipamenduak, eta haien artean, hezkuntza-zentro publikoak.

Jarduera-esparru horretan, eraikinak birgaitzeko sektorean enplegua sortzeko pizgarriak ezarri nahi dira, Euskadiko hezkuntza-zentro publikoetan hobekuntza-lanak eginez.

DESKRIBAPENA. PIZGARRIAK ETA LAGUNTZA EMATEKO NEURRIAK

- Birgaitzeko esku-hartze zuzenak hezkuntza-zentro publikoetan.

GARAPENEAN ZERIKUSIA DUTEN GOBERNUKO SAILAK ETA ARLOAK

- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

ITUNAK EGITEKO ERAKUNDEAK ETA ERAGILEAK

Ez da itunik behar, Eusko Jaurlaritza delako hezkuntza-zentroen titularra.

FINANTZIAZIO-ITURRIAK

2014-2016 aldirako Eusko Jaurlaritzaren finantziazioa	Erabilitako baliabide pribatuak 2014-2016	Baliabideak guztira 2014-2016
117.293.573 €.	0 €.	117.293.573 €.

ERAGINA ENPLEGUAN 2014 - 2016

Helburua	Adierazlea	Aurreikusitako eragina
Enplegua sortzea (pertsonak)	Sortutako enplegu-kopurua (*)	1.403

(*) Sortutako enplegu-kopurua kalkulatzeko, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Etxebizitza Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzan erabilitako birgaitze-jardueren inpaktua estimatzeko eredua erabiliko da.

6.3 Ardatza- Renove Osasuna

HELBURUAK

Etxebizitzak eta hezkuntza-zentro publikoak birgaitzeko identifikatutako merkatu-hobien modu berean, osasun-zentroak eraikuntzako lan-merkatua dinamizatzeko motor gisa erabil daitezkeela hauteman da, osasun publikoko zentroetan eta ekipamenduetan esku-hartze zuzenak eginez.

Hori dela eta, eraikinak birgaitzeko sektorean enplegua sortzeko pizgarriak ezarri nahi dira, Euskadiko osasun publikoko zentroetan eta ekipamenduetan hobekuntza-lanak eginez.

DESKRIBAPENA. PIZGARRIAK ETA LAGUNTZA EMATEKO NEURRIAK

- Birgaitzeko esku-hartze zuzenak osasun publikoko zentroetan eta ekipamenduetan.

GARAPENEAN ZERIKUSIA DUTEN GOBERNUKO SAILAK ETA ARLOAK

- Osasun Saila / Osakidetza.

ITUNAK EGITEKO ERAKUNDEAK ETA ERAGILEAK

Ez da itunik behar, Eusko Jaurlaritza delako osasun-zentroyen titularra.

FINANTZIAZIO-ITURRIAK

2014-2016 aldirako Eusko Jaurlaritzaren finantziazioa	Erabilitako baliabide pribatuak 2014-2016	Baliabideak guztira 2014-2016
19.586.560 €.	0 €.	19.586.560 €.

ERAGINA ENPLEGUAN 2013 - 2016

Helburua	Adierazlea	Aurreikusitako eragina
Enplegua sortzea (pertsonak)	Sortutako enplegu-kopurua (*)	234

(*) Sortutako enplegu-kopurua kalkulatzeko, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Etxebizitza Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzan erabilitako birgaitze-jardueren inpaktua estimatzeko eredia erabiliko da.



5. Harreman instituzionalerako eta partaidetza- harremanerako formulak



Erakunde arteko lankidetzza

Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako plan honetan, gobernuak, legealdian zehar enplegua berreskuratzea sustatzeko, hasiera batean zer ekarpen eta ekimen garatuko dituen biltzen da. Malgua izateaz gain, lan-merkatuaren baldintzen eta eskura dauden aurrekontu publikoen bilakaeraren arabera urtero eguneratuko denez, plan honen ezaugarri nagusietako bat bere izaera irekia eta integratzailea da:

- **Irekia.** Beste erakunde batzuen lankidetzza aurreikusten duelako; batik bat, foru-aldundiena eta ekonomia- eta gizarte-eragileena.
- **Integratzailea.** Ez delako gobernuarena soilik. Enpleguaren aldeko inbertsio publikoak eta pribatuak sustatzeko eta integratzeko elementua izan nahi du.

Lankidetzara zabaldutako plana da, gainerako erakundeen ekarpenak eta iritziak jasotzen joango dena; batik bat, foru-aldundienak.

Erakunde arteko lankidetzza hori esparru-akordio orokor baten bidez bideratu daiteke –esate baterako, **Ekonomia eta Enplegua Sustatzeko Erakunde arteko akordioa**, 2013ko maiatzaren 8an sinatua–, edo zenbait administrazioen arteko lankidetzaren bidezko ekimenak garatzeko berriazko hitzarmenen bidez, enplegu gehiago sortzeko, enpleguari eusteko edo/eta euskal herritarren enplegarritasuna handitzeko.

Hain zuzen, enpresak sortzen laguntzeko ekimenetan arrazionalizatzeko eta optimizatzeko tarte handia dagoela ulertzen da. Hau da, tarte handia dago administrazioek (tokikoak, foru-aldundietakoak eta autonomikoak) eskura dituzten baliabide guztiak abian jar ditzaten (sentsibilizatzeko, aholkuak emateko, finantzatzen laguntzeko, enpresa berriek lehen urratsak eremu egokietan eman ditzaten laguntzeko) eta bitarteko berriak modu koordinatuan gara ditzaten (batik bat, finantzazioaren alorrean), eta horrela, Euskadi benetako herrialde ekintzaile bilaka dadin eta Euskadin sortzen diren ekimen ekintzaileak ahalik eta baldintza onenetan gara daitezten. Horretarako, 2013ko uztailaren 2an, **Euskal Ekintzailetza Sistema garatzea xede duen lankidetzarako esparru-akordio bat sinatu zen**, EAEko gizartearen ahalmen ekintzailea modu eraginkorren eta efizientean sustatzeko eta bultzatzeko. Esparru-akordio hori garatu eta zabaldu egingo da, hain zuzen, etorkizunean sortuko den Ekintzailetzaren EAEko Planaren bidez.



6. Baliabide ekonomikoak



Parte-hartzea

Planak parte-hartzearen eta gardentasunaren aldeko apustu garbia egiten du.

Parte-hartzeari dagokionez, gobernuak planari proposamenak eta ekarpenak egiteko aukera ematen die erakundeei eta eragile ekonomikoei eta sozialei. Gainera, gobernuaren baitan sailen arteko batzorde bat eratu da, plana diseinatzeko.

Horren haritik, Euskadiko EGABek planari buruz egindako irizpena bereziki hartu da kontuan. Han ageri diren gogoeten ondorioz, planaren zenbait alderdi aldatu eta hobetu dira.

Halaber, gobernuaren konpromisoa da arrazoi operatiboengatik planaren testuan sartu ez diren alderdiak urteko planen exekuzioaren eta ekimenen inplementazioaren ondorioz integratu ahal izatea.

Sailen arteko batzordearen konpromisoa da Euskadiko EGABekin elkarriketa iraunkorra izatea, horren exekuzioaren segimendua kontrastatzeko eta partekatzeko, eta, baterako etengabeko ebaluazioaren ondorioz, aldatuz eta hobetuz joateko.

Parte hartzeko mekanismo horiek berak erabiliko dira inplementazio-, jarraipen- eta ebaluazio-faseetan.

Gainera, ahalik eta gardentasun handiena ezarriko da:

- Planaren esparruan abian jarritako neurriak eta haien bilakaera jakitera emateko. Neurriak Urteko Ekintza Planean gauzatuko dira, eta bertan, berariazko ekimenak, helburu kuantitatiboak eta aurrekontuak agertuko dira.
- Planaren urteko jarraipenari, tarteko eta amaierako edo emaitzen ebaluazioei –lortutako inpaktua zehazteko egiten direnak– buruzko informazioa legebiltzarrari, erakundeei eta euskal gizarteari jakinarazteko.
- Enplegu Planari buruzko informazio publikoa, beste komunikabide batzuen artean, Irekiaren bidez zabalduko da, herritarren eta administrazioaren arteko Internet bidezko komunikazio-kanalaren bidez, alegia.

Finantziazio-iturriak

Plana 3 funts-motak hornitzen dute:

- **Eusko Jaurlaritzaren finantziazio publikoa**, bere aurrekontuetan horretarako duen gutxieneko ekarpenaren konpromisoa kontuan hartuta.
- **Beste ekarpen publiko batzuk**, euskal erakundeek, erakundeetako akordioetatik eratorriak.
- **Finantziazio pribatua**, Euskadin enplegua berraktibatzeke, inbertsio publikoaz gain, erabat beharrezkoa baita sektore pribatuak egin ditzakeen ekarpenak baliatzea. Finantziazio hori 3 iturritatik iritsiko da:
 - ▶ **Finantza-erakundeek** eta enpresen zerbitzura jarritako beste finantza-tresna batzuen baliabideak.
 - ▶ **Aurrezki pribatua**, behar bezala bideratuta edo/eta sustatuta, euskal enprezentzat finantziario-akera berriak ekar ditzakeena. Kasu honetan, baliabide horiek erabiltzeak bi helburu ditu: batetik, dauden enpresak birkapitalizatzea; eta bestetik, ekintzailatza berrien arazo nagusia konpontzea; jarduera abian jartzeko behar duten finantziarioa eskuratzea, alegia.
 - ▶ **Etxebizitzak birgaitzeko inbertsio pribatua**, horretarako ematen diren laguntza publikoen sustapena erabiliz.

Gainera, finantziario hori osatzeko, Europako Funtsetako¹⁰ partidak erabiliko dira, gazte-enpleguko programak, ekintzailatza, prestakuntza eta behar gehien dituzten kolektiboen eta pertsonen laneratzea sustatzeko, autonomia-erkidegoen esku jartzen direnak.

Horren haritik, Enplegu Plana indarrean dagoen artean, garrantzitsua da Europako erakundeetatik etorritako funtsen banaketa- eta kudeaketa-tresnen jarraipena egitea, azkenean langabeziari aurre egiteko antola daitezen. Bereziki, gazte-langabeziari aurre egiteko 2014-2020 Europako Gizarte Funts berria hartuko diren neurriak, Gazte Enplegua 2014-2020ri buruzko ekimen berriak indartua.

¹⁰ Europako Gizarte Funtsetako araudia eta Europako egitura- eta inbertsio-funts guztietarako xedapen orokorren araudia 2013ko azaroaren 20an onartu ziren. Gainera, Kontseiluak abenduaren 16an onartu zuen formalki 2014-2020 Kohesio Politikaren paketea.

Aurrekontua

Enplegu Planerako Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu publikoaren zenbatespena 775 milioi eurokoa da 2014-2016 aldirako, Euskadin enplegua berraktibatzeke. Zenbatespenak osagai hauek ditu:

- 2014ko ekitaldirako planera atxikitako aurrekontuak.
- 2015 eta 2016 ekitaldietarako aurrekontuak.

Gainera, inbertsio horrek baliabide pribatuetako 1.566 milioi euro inguru baliatuko dituela kalkulatzen da, eta horietatik hauek nabarmenduko ditugu:

- Mailegu pribatuetatik eta finantza-erakundeetako eta beste finantza-tresna batzuetako abaletatik eratorritako 906 milioi euro.
- Mikrokreditu-erakundeek emandako 15 milioi euroko finantziazio zenbatetsia.
- Etxebizitzak birgaitzeko inbertsio pribatua, horretarako ematen diren laguntza publikoen sustapena erabiliz. Planak iraungo duen lau urteetarako, ekarpen pribatua 645 milioi eurokoa izango dela kalkulatzen da.

2014-2016 Enplegu Planaren kostu ekonomikoaren zenbatespena

	2014 aldirako Eusko Jaurlaritzaren finantziazioa (aurreikuspena) (€)	2015 aldirako Eusko Jaurlaritzaren finantziazioa (proiekzioa) (€)	2016 aldirako Eusko Jaurlaritzaren finantziazioa (proiekzioa) (€)	2014-2016 aldirako Eusko Jaurlaritzaren finantziazioa GUZTIRA (€)
1- ETEak ETA TOKIKO GARAPENA SUSTATZEA	14.369.818 €	14.657.214 €	14.950.359 €	43.977.391 €
2- EKINTZAILITZA SUSTATZEA	20.085.466 €	20.487.175 €	20.896.919 €	61.469.560 €
3- GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA. GAZTEENTZAKO BERMEA.	28.239.326 €	28.804.113 €	29.380.195 €	86.423.633 €
4- ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA	54.084.106 €	55.165.788 €	57.269.104 €	166.518.998 €
5- ENPLEGU INKLUSIBOA. ENPLEGUAREKIKO SOLIDARITATEA	74.416.083 €	75.904.405 €	77.422.493 €	227.742.980 €
6- RENOVE BIRGAIKUNTZA	61.596.023 €	62.827.943 €	64.084.502 €	188.508.469 €
GUZTIRA	252.790.822 €	257.846.638 €	264.003.571 €	774.641.032 €

Gutzizko baliabideak, programa operatiboen arabera 2014-2016

	2014-2016 aldirako Eusko Jaurlaritzaren finantziakzioa (€)	2014-2016 aldirako mobilizatutako baliabide pribatuak (€)	Baliabideak guztira 2014-2016 (€)
1- ETEak ETA TOKIKO GARAPENA SUSTATZEA	43.977.391 €	906.000.000 €	949.977.391
2- EKINTZAILETZA SUSTATZEA	61.469.560 €	15.000.000 €	76.469.560
3- GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA. GAZTEENTZAKO BERMEA.	86.423.633 €	0 €	86.423.633
4- ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA	166.518.998 €	0 €	166.518.998
5- ENPLEGU INKLUSIBOA. ENPLEGUAREKIKO SOLIDARITATEA	227.742.980 €	0 €	227.742.980
6- RENOVE BIRGAIKUNTZA	188.508.469 €	645.254.736 €	833.763.205
GUZTIRA	774.641.032 €	1.566.254.736 €	2.340.895.768 €

Gutzizko baliabideak, ardatzen arabera 2014-2016

	2014-2016 aldirako Eusko Jaurlaritzaren finantziakzioa (€)	2014-2016 aldirako mobilizatutako baliabide pribatuak (€)	Baliabideak guztira 2014-2016 (€)
1.1- ETEen ETA AUTONOMOEN FINANTZIAZIOA	6.489.884 €	906.000.000 €	912.489.884 €
1.2- TOKIKO TURISMOA ETA MERKATARITZA, ETA ENPLEGUA	21.451.197 €	0 €	21.451.197 €
1.3- LEHEN SEKTOREAREN GARAPENA ETA ENPLEGUA	16.036.309 €	0 €	16.036.309 €
2.1- «EUSKADI, EKINTZAILEEN LURRALDEA». EUSKAL EKINTZAILERAKO SISTEMA SUSTATZEA ETA OPTIMIZATZEA	5.341.478 €	0 €	5.341.478 €
2.2- AUTOENPLEGUA ETA MIKROEKINTZAILERAKO BABESTEA	8.544.860 €	15.000.000 €	23.544.860 €
2.3- ENPRESA BERRITZAILERAK	47.583.222 €	0 €	47.583.222 €
3.1- GAZTEEN EKINTZAILERAKO BABESTEA	17.393.477 €	0 €	17.393.477 €
3.2- HEZIKETA DUALA	14.963.091 €	0 €	14.963.091 €
3.3- LEHENENGO LAN-ESPERIENTZIA	36.749.399 €	0 €	36.749.399 €
3.4- TALENTU GAZTEA	17.317.665 €	0 €	17.317.665 €
4.1- LANGABEENTZAKO PRESTAKUNTZA	110.431.798 €	0 €	110.431.798 €
4.2- LANEAN ARI DIRENTZAKO PRESTAKUNTZA	56.087.200 €	0 €	56.087.200 €
5.1- TOKIKO ETA ESKUALDEETAKO ENPLEGU-PLANAK	48.966.400 €	0 €	48.966.400 €
5.2- KONTRATAZIOERAKO BESTE PIZGARRI BATZUK	3.672.480 €	0 €	3.672.480 €
5.3- BAZTERTUTA GERATZEKO ARRISKUAN DAUDENAK GAITZEA ETA LANERATZEN LAGUNTZEA	175.104.100 €	0 €	175.104.100 €
6.1- RENOVE ETXEBIZITZA	51.628.336 €	645.254.736 €	696.883.072 €
6.2- RENOVE HEZKUNTZA	117.293.573 €	0 €	117.293.573 €
6.3- RENOVE OSASUNA	19.586.560 €	0 €	19.586.560 €
GUZTIRA	774.641.032 €	1.566.254.736 €	2.340.895.768 €



7. Esperotako eragina



Esperotako eragina

Enpleguaren ikuspegitik, Planak hiru eragin-mota izango ditu:

- **Enplegua sortzea**, enpresa berriak sortuz eta lehendik dauden enpresetan enplegu berriak sortuz.
- **Enpleguari eustea**, zailtasunak dituzten enpresei lagunduz eta tokiko garapenari lotutako sektore ekonomikoetako lehiakortasuna hobetuz, egungo enpleguari eusteko.
- Gaikuntza- eta orientabide-ekintzetan eta enpleguaren laguntzan parte hartzen duten pertsonen **enplegagarritasuna handitzea**.

Euskal ekonomiaren langabezia-tasa handien konponbidea bermatzen ez duten arren – ekonomia berreskuratzeko egitura-funtsek eta enplegua sortzen duen BPGd-aren behar adinako hazkundeak hartzen dute parte horren konponbidean–, programa honetan aurreikusitako ekimenak **lan-hobekuntzak izateko aukera bat dira pertsona askorentzat**. Aukera horietako batzuk aringarriak izango dira, aldi baterako enpleguak baitira; eta beste batzuek, berriz –esaterako, enpresa berriak sortzearekin zerikusia dutenak–, luzarago irauteko asmoa dute.

2014-2016 aldian, besteak beste, eragin hauek daude aurreikusita:

- **32.000 enplegu berri sortzea:**
 - Programako zenbait ekimenek lagundutako 8.000 autonomo berri eta mikroenpresak sortutako 13.000 enplegu.
 - 7.100 pertsonaren kontratazioa, merkatuko enpresetan lanean hasteko pizgarrien bidez edo/eta gizarte-intereseko ekimenen bidez. Gaur egungo abagunean, espero daiteke kontratu gehienak aldi baterako izatea.
 - Gaikuntza-lanak sustatzea, eraikuntzako 11.900 langileren lanaldi osoko urtebeteko baliokidea, 37.300 etxebizitza eta hezkuntza eta osasun publikoko ekipamendutarako.

Enplegu horietatik, 8.600 tokiko eta eskualdeko enplegu planei lotuta egongo dira.
- **134.600 enpleguari eustea:**
 - 64.900 enpleguri (finantziarioa) eta 39.600 enpleguri (lehiakortasuna/finkatzea) eustea, finantziarioaren eta lehiakortasunaren hobekuntzari lagunduz edo 19.500 autonomo eta ETE finkatuz.
 - 4.400 enpleguari eustea, ondorengotza-prozesuak, belaunaldi-erreleboa edo enpresak gizarte-ekonomiako enpresa bihurtzen lagunduz.
 - Enplegu Zentro Bereziatan eta Laneratzeko Enpresetan 25.700 enpleguari eustea.
- **23.000 gazteri lan-arloan lehendabiziko esperientzia izateko aukera ematea.**
- Beste enplegu-politika aktibo batzuetan –batik bat, gaikuntzan– parte hartzen duten beste pertsona batzuen **enplegagarritasuna handitzea**.

Enpleguan duen eraginaren kalkulari dagokionez, kasu gehienetan tartean sartutako sailtako zuzendaritzek egindako zenbatespen zuzenak hartu dira kontuan. 6. programa operatiboari dagozkion eraginei buruzko kalkulua, horixe da salbuespena. RENOVE Birgaitzeari dagokionez, sortutako enplegu-kopurua kalkulatzeko, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Etxebizitza Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzan erabilitako birgaitze-jardueren inpaktua estimatzeko eredu erabiliko da.

2014-2016 aldirako eragina enpleguan, programa operatiboen arabera

	Enpleguaren sorrera 2014-2016 (pertsonak)				Enplegua mantentzea 2014-2016 (pertsonak)					Enplegagarritasuna handitzea 2014-2016 (pertsonak)		
	Sortutako enplegua, GUZTIRA	Enpresen sorrera/hazkundera	Birgalkuntza-enplegua	Kontratazioarako pizgarriak	Mantendutako enplegua, GUZTIRA	Enpresen finantziazioa	ETEen lehiakortasuna eta kontsolidazioa hobetzea	Belaunaldi berriak eta transf. ekosoziala babestea	Enplegu Zentro Bereziak eta Gizarteratze Enpresak babestea	Enplegagarritasunaren hazkundera, guztira	Gazteen lehenengo lan-erperientzia	Enplegagarritasunaren beste hazkundera batzuk
1- ETEak ETA TOKIKO GARAPENA SUSTATZEA	405	405	0	0	100.203	64.965	34.788	450	0	342	342	0
2- EKINTZAILAZ SUSTATZEA	6.772	6.472	0	300	3.960	0	0	3.960	0	0	0	0
3- GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA. GAZTEENTZAKO BERMEA.	2.220	2.220	0	0	0	0	0	0	0	158.422	22.569	135.853
4- ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA	0	0	0	0	0	0	0	0	0	178.800	0	178.800
5- ENPLEGU INKLUSIBOA. ENPLEGUAREKIKO SOLIDARITATEA	10.738	3.928	0	6.810	30.464	0	4.799	0	25.665	20.490	0	20.490
6- RENOVE BIRGAIKUNTZA	11.893	0	11.893	0	0	0	0	0	0	0	0	0
GUZTIRA	32.029	13.025	11.893	7.110	134.627	64.965	39.587	4.410	25.665	358.054	22.911	335.143

2014-2016 aldirako eragina enpleguan, ardatzen arabera

	Enpleguaren sorrera 2014-2016 (pertsonak)				Enplegua mantentzea 2014-2016 (pertsonak)					Enplegarritasuna handitzea 2014-2016 (pertsonak)		
	Sortutako enplegua, GUZTIRA	Enpresen sorrera/hazkundera	Birgaikuntza-enplegua	Kontratazioarako pizgarriak	Mantendutako enplegua, GUZTIRA	Enpresen finantziakzioa	ETEen lehiakortasuna eta kontsolidazioa hobetzea	Belaunaldi berriak eta transf. ekosoziala babestea	Enplegu Zentro Bereziak eta Gizarteratze Enpresak babestea	Enplegarritasunaren hazkundera, guztira	Gazteen lehenengo lan-esperientzia	Enplegarritasunaren beste hazkundera batzuk
1.1- ETEen ETA AUTONOMOEN FINANTZIAZIOA	0	0	0	0	65.415	64.965	0	450	0	0	0	0
1.2- TOKIKO TURISMOA ETA MERKATARITZA, ETA ENPLEGUA	0	0	0	0	34.788	0	34.788	0	0	96	96	0
1.3- LEHEN SEKTOREAREN GARAPENA ETA ENPLEGUA	405	405	0	0	0	0	0	0	0	246	246	0
2.1- «EUSKADI, EKINTZAILEEN LURRALDEA». EUSKAL EKINTZAILETZA SISTEMA SUSTATZEA ETA OPTIMIZATZEA	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
2.2- AUTOENPLEGUA ETA MIKROEKINTZAILETZA BABESTEA	2.409	2.409	0	0	3.960	0	0	3.960	0	0	0	0
2.3- ENPRESA BERRITZAILEAK	4.363	4.063	0	300	0	0	0	0	0	0	0	0
3.1- GAZTEEN EKINTZAILETZA BABESTEA	2.220	2.220	0	0	0	0	0	0	0	9.120	120	9.000
3.2- HEZIKETA DUALA	0	0	0	0	0	0	0	0	0	121.200	1.200	120.000
3.3- LEHENENGO LAN-ESPERIENTZIA	0	0	0	0	0	0	0	0	0	26.602	19.749	6.853
3.4- TALENTU GAZTEA	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1.500	1.500	0
4.1- LANGABEENTZAKO PRESTAKUNTZA	0	0	0	0	0	0	0	0	0	35.700	0	35.700
4.2- LANEAN ARI DIRENTZAKO PRESTAKUNTZA	0	0	0	0	0	0	0	0	0	143.100	0	143.100
5.1- TOKIKO ETA ESKUALDEETAKO ENPLEGU-PLANAK	8.620	3.928	0	4.692	4.799	0	4.799	0	0	0	0	0
5.2- KONTRATAZIOARAKO BESTE PIZGARRI BATZUK	1.530	0	0	1.530	0	0	0	0	0	0	0	0
5.3- BAZTERTUTA GERATZEKO ARRISKUAN DAUDENAK GAITZEA ETA LANERATZEN LAGUNTZEA	588	0	0	588	25.665	0	0	0	25.665	20.490	0	20.490
6.1- RENOVE ETXEBIZITZA	10.256	0	10.256	0	0	0	0	0	0	0	0	0
6.2- RENOVE HEZKUNTZA	1.403	0	1.403	0	0	0	0	0	0	0	0	0
6.3- RENOVE OSASUNA	234	0	234	0	0	0	0	0	0	0	0	0
GUZTIRA	32.029	13.025	11.893	7.110	134.627	64.965	39.587	4.410	25.665	358.054	22.911	335.143



2014-2016 aldirako beste eragin batzuk, programa operatiboen arabera

	Beste eragin batzuk 2014-2016		
	Lanean jardun eta babesa jasotako enpresak	Sortu berriak izan eta babesa jasotako enpresak	Birgaitutako etxebizitzak
1- ETEak ETA TOKIKO GARAPENA SUSTATZEA	15.522	261	0
2- EKINTZAILETZA SUSTATZEA	135	2.811	0
3- GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA. GAZTEENTZAKO BERMEA.	0	1.632	0
4- ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA	0	0	0
5- ENPLEGU INKLUSIBOA. ENPLEGUAREKIKO SOLIDARITATEA	5.529	3.273	0
6- RENOVE BIRGAIKUNTZA	0	0	37.306
GUZTIRA	21.186	7.977	37.306

2014-2016 aldirako beste eragin batzuk, ardatzen arabera

	Beste eragin batzuk 2014-2016		
	Lanean jardun eta babesa jasotako enpresak	Sortu berriak izan eta babesa jasotako enpresak	Birgaitutako etxebizitzak
1.1- ETEen ETA AUTONOMOEN FINANTZAZIOA	4.353	0	0
1.2- TOKIKO TURISMOA ETA MERKATARITZA, ETA ENPLEGUA	11.034	0	0
1.3- LEHEN SEKTOREAREN GARAPENA ETA ENPLEGUA	135	261	0
2.1- «EUSKADI, EKINTZAILIEN LURRALDEA». EUSKAL EKINTZAILITZA SISTEMA SUSTATZEA ETA OPTIMIZATZEA	0	0	0
2.2- AUTOENPLEGUA ETA MIKROEKINTZAILITZA BABESTEA	90	2.058	0
2.3- ENPRESA BERRITZAILIAK	45	753	0
3.1- GAZTEEN EKINTZAILITZA BABESTEA	0	1.632	0
3.2- HEZIKETA DUALA	0	0	0
3.3- LEHENENGO LAN-ESPERIENTZIA	0	0	0
3.4- TALENTU GAZTEA	0	0	0
4.1- LANGABEENTZAKO PRESTAKUNTZA	0	0	0
4.2- LANEAN ARI DIRENENTZAKO PRESTAKUNTZA	0	0	0
5.1- TOKIKO ETA ESKUALDEETAKO ENPLEGU-PLANAK	3.999	3.273	0
5.2- KONTRATAZIORAKO BESTE PIZGARRI BATZUK	1.530	0	0
5.3- BAZTERTUTA GERATZEKO ARRISKUAN DAUDENAK GAITZEA ETA LANERATZEN LAGUNTZEA	0	0	0
6.1- RENOVE ETXEBIZITZA	0	0	37.306
6.2- RENOVE HEZKUNTZA	0	0	0
6.3- RENOVE OSASUNA	0	0	0
GUZTIRA	21.186	7.977	37.306



8. Planaren kudeaketaren eredia



Kudeaketaren eredu

PLANAREN XEHETASUNAK

2014-2016 Enplegu Plana **urteko ekintza planen bidez zehaztuko da**, berriazko ekimenekin, helburu kuantitatiboekin eta aurrekontuekin, EAEko aurrekontuetan islatuko direnak, eta dagoeneko zehaztuta dauden programa operatiboak eta ardatzei eutsiz.

Urteko ekintza-planak Enplegu Planeko ekimenen etengabeko jarraipenetik lortutako informazioa aztertuz egiten dira, exekuzioari eta emaitzei dagokienez, bai eta abagune sozioekonomikoaren eta horrek enpleguaren esparruan duen eraginaren informazioa aztertuz ere.

Gainera, urteko ekintza-planak eratzean, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak haren bi planifikazio-tresnari egindako jarraipenean eta ebaluazioan lortutako datuak eta balorazioak aztertuko dira; hau da, Enplegurako Prestakuntza Plana eta Enplegu Plana¹¹.

Aztertutako informazioa oinarri hartuta, 2014-2016 Enplegu Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko sailen arteko batzordea da urteko ekintza-planak egiten dituen organoa; eta, betiere, aurrez Enplegu Planean zehaztutako programa operatiboak eta ardatzak bere horretan utziko ditu eta dagokion ekitaldiko aurrekontu orokorretan esleituta duen aurrekontura egokituko da.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak Gobernu Kontseiluari igorriko dio urteko ekintza-plana, haren berri izan dezan.

KOORDINAZIOA

Plan honek bi ezaugarri ditu:

- **SAIL ARTEKOA da**, Gobernuko zenbait sailek hartzen baitute parte.
- **ERAKUNDE ARTEKOA da**, erakunde arteko akordioak adosten diren heinean.

Plana **sail arteko batzorde iraunkor** batek koordinatuko du, eta batzorde horren egitekoak planaren jarraipena eta ebaluazioa egitea izango dira. Batzordea 7 pertsonak osatzen dute, zuzendariak eta sail eta erakunde autonomo hauetako ordezkariak izango direnak: Lehendakariak; legez Lehendakarietako Idazkaritza dagozkion funtzioak betetzen ditu¹², eta, horrez gain, plan honek garatzen dituen neurriek ahalik eta eraginkortasun eta koherentzia handiena izateko beharri ematen zaion garrantzia islatzen du; Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila eta Lanbide –Euskal Enplegu Zerbitzua (gaia sail horren eskumenekoa denez, buru izatea eta plana bultzatzea dagokion saila), haren erakunde autonomoa; Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila; Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura; Osasun Saila eta Ogasun eta Finantza Saila.

Era berean, planak erakunde arteko izaera eraginkorra hartzen duen heinean, lankidetzan aritzen diren erakundeek adostutako terminoetan, dagokion erakunde arteko organoa sustatuko da, Erakunde arteko batzordearen antzeko terminoetan, partekatutako helburuetara bideratutako ekimenak eta ekintzak lerrokatzeko.

¹¹ Planifikazio-tresna horiei dagokienez, urriaren 13ko 3/2011 Legeak, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzkoak, erakunde autonomo horren esku uzten ditu enpleguarekin eta enplegurako prestakuntzarekin lotutako hainbat zeregin.

¹² 7/1981 Legearen, Jaurlaritzakoaren, 8. artikuluan ezarritakoa betez.

2014-2016 Enplegu Planaren Koordinazioari ekiten dion atal hau amaitu baino lehen, kontuan hartu behar da Lanbideren Administrazio Kontseiluari¹³ dagozkion xedeak eta funtzioak, Enpleguaren eta Enpleguaren Prestakuntzaren esparruari dagokionez, bai eta etorkizuneko 2014-2016 Enplegu Planari dagozkion ere.

Horren haritik, nabarmena da 2014-2016 Enplegu Planaren helmenak argi eta garbi gainditzen dituela Legeak Lanbideri egozten dizkion egitekoak; eta bereziki, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailari lotutako programa operatibo guztiak edo Renove Programari dagozkionak.

Dena den, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak 2014-2016 Enplegu Planean¹⁴ parte hartu duen modu berean, planaren jarraipenean eta ebaluazioan ere parte hartuko du. Hori horrela, planean adierazitako enplegu sortzea eta enpleguari eustea sustatzeko helburuaren eta erakunde honi zentzu horretan dagozkion egitekoen¹⁵ arteko lotura kontuan hartuta, sistematikoki erraztu daiteke egitekoen konbergentzia bermatuko duen prozedura bat.

Horren haritik, 2014-2016 Enplegu Planaren ebaluazioa eta jarraipena egiteko Sail arteko batzordeko kide eta Lanbideren Administrazio Kontseiluko kide diren organo pertsonabakarrek informazio-bide bat eratzeko egitekoa izango dute esleituta, Lanbidek abiatzen dituen ekimenak, interesgarriak direnak, Enplegu Planaren jarraipenean integratzeko, eta alderantziz, Enplegu Planaren ekimenei dagokienez.

Sail arteko batzordearen lana, aldi berean, kudeaketa-organismoek jasotako informazioa bateratzeko konfiguratu behar da, eta informazio horren tratamendua sustatu, aurreikusitako jarraipena eta ebaluazioa egiteko.

¹³ 3/2011 Legea, urriaren 13koa, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzkoa.

8. artikulua.- Administrazio Kontseiluaren eginkizunak.

Kontseiluaren eginkizunak hauek dira:

c) Enplegu Plana diseinatu, onartu, jarraipena egin eta ebaluatzea.

d) Enplegurako Prestakuntza Plana diseinatu, onartu, jarraipena egin eta ebaluatzea.

¹⁴ Besteak beste, ordezkariak horretarako eratu zen Sailen arteko batzordean parte hartuz, planean bertan adierazten den moduan.

¹⁵ 3/2011 Legea. 2. artikulua.- Helburuak.

1.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren helburua da enplegu egonkor eta kalitatezko eskubidearen garapen osoari laguntzea, eta langileen enplegarritasuna bermatzen lagunduko duen lan-merkatuaren garapenaren alde lan egitea, eta enpresaren eskakizunei egokitutako langileen beharizanak asetzea, bai eta gizartearen eta lurraldearen kohesioari laguntzea, betiere Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen eremuan esleitzen zaizkion enplegu-politikak kudeatuz eta lan-arloko legeria egikaritzuz.



9. Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema



Jarraipen- eta ebaluazio-sistema

JARRAIPENAREN ETA EBALUAZIOAREN HELBURUA

Planaren jarraipenari eta ebaluazioari esker:

- Planean aurreikusitako helburuak, programak eta ekimenak beteko direla bermatzen da.
- Plana abian den artean eragina izan dezaketen gizarte- edo/eta ekonomia-aldagaien bilakaeraren aurrean beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak hartuko dira.
- Planean parte hartzen duten eragile guztien arteko gehienezko koordinazioa bermatuko da.
- Garatutako ekintzek Euskadiko enpleguan eta ekonomian zer eragiten duten ezagutzeko aukera izango da.
- Ahalik eta gardentasun handiena lortuko da, herritarren eta gizarte- eta ekonomia-eragileek planaren exekuzioaren bilakaerari eta lortutako emaitzei buruzko informazio iraunkorra izan dezaten.

JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO-SISTEMA

Sistema honako hau izango da:

- Ekimenen exekuzioaren eta haien emaitzen sail arteko jarraipen etengabea. Aldizkako informazio hori aztertzeak hurrengo ekitaldian egin beharreko ekimenak eta haien helburuak eta aurrekontuak zehazteko balioko du; hau da, Urteko Ekintza Plana zehazteko.
- Enplegu Planaren bi ebaluazio: Tarteko ebaluazio bat 2014. urtearen amaieran, eta Amaierako ebaluazio bat 2016. urtean, planaren indarraldia amaitzen denean. Ebaluazio horiei esker, exekutututako politika publikoaren ontasunaren balorazioko irizpenak egin daitezke, eta bereziki, tarteko ebaluazioak plana hobetzeko aldaketak egiteko aukera emango du, ebidentziak oinarri hartuta eta plana amaitu baino lehen.

Jarraipen eta ebaluazio horietan, genero- eta adin-ikuspegiak sartuko dira.

Planeko ekimenen jarraipena egitean, planeko ardatzei dagozkien gauzatze- eta inpaktu-adierazleak aurreikusiko dira, lau adierazle-motatan sailkatu daitezkeenak: enplegua sortzekoak, enpleguari eustekoak, enplegarritasuna handitzekoak eta beste adierazle batzuk.

Gainera, planaren jarraipenean eta ebaluazioan Euskadiko lan-merkatuko erreferentziazko adierazle eta magnitude nagusien bilakaeraren ikuspegi bat ere agertuko da, bai eta bertan eragina duten beste adierazle ekonomiko batzuk ere, ondorengo taulan jasotzen den moduan.

Euskadiko enpleguaren jarraipenaren adierazleak

ADIERAZLE EKONOMIKO OROKORRAK
BPGd-ren urteko hazkundea (%)
Enpresa-establezimenduen saldo garbia (altak - bajak)
Sortutako enpresa-establezimenduen kopurua
Esportazioen urteko bolumena (milioi €-tan)
BPGd-ren gaineko I+Gko gastua (%)
LAN-MERKATUKO ADIERAZLEAK
Biztanleria aktiboa (milaka pertsona, BJA)
Jarduera-tasa (BJA)
Jarduera-tasaren diferentziala Estatuarekiko (% , BAI)
Jarduera-tasaren diferentziala EBrekiko (% , BAI eta EUROSTAT)
Landunak (milaka, BAI)
Gizarte Segurantzaren izena emandako pertsonak (milaka pertsona)
Enplegu-tasa (% , BJA)
Enplegu-tasaren diferentziala Estatuarekiko (% , BAI)
Enplegu-tasaren diferentziala EBrekiko (% , BAI eta EUROSTAT)
Pertsona langabeak (milaka pertsona, BAI)
Langabezia-tasa (% , BAI)
Erregistratutako langabezia (milaka pertsona, Lanbide)
Langabezia-tasaren diferentziala Estatuarekiko (% , BAI)
Langabezia-tasaren diferentziala EBrekiko (% , BAI eta EUROSTAT)
EEE-en eraginpean dagoen pertsona-kopurua (guztira)
Deuseztapeneko EEE-en eraginpean dagoen pertsona-kopurua
Baimendutako eta/edo jakinarazitako EEE-en kopurua
Jarduera-tasa femeninoaren diferentziala maskulinoarekiko (% , BJA)
Langabezia-tasa femeninoaren diferentziala maskulinoarekiko (% , BJA)
Lanbiden enplegu-eskatzaile gisa izena emandako 35 urtetik beherako langabeak (milaka)
Lanbiden enplegu-eskatzaileak diren pertsona langabeak (milaka)
Iraupen luzeko pertsona langabeak (25 urtetik gorakoak, urtebete baino gehiago langabezia daramatenak, eta 25 urtetik beherakoak, 6 hilabete edo gehiago langabezia daramatenak), Lanbide enplegu-eskatzaileak direnak (milaka)



1. Eranskina: Plana diseinatzeko erabilitako erreferentziak eta araudia



A) ENPLEGUA BERRAKTIBATZEKO BESTE ESTRATEGIA, PLAN ETA PROGRAMA BERRI BATZUK

- Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa - Ekintzailletza eta Gazte Enpleguko Estrategia 2013-2016
- 4/2013 Errege Lege Dekretua, otsailaren 22koa, ekintzaileari laguntzeko eta enplegua haztea eta sortzea sustatzeko neurriei buruzkoa.
- 11/2013 Legea, uztailaren 26koa, ekintzaileei zuzenduriko babesa eta ekonomiaren garapen eta lanpostuen sorrerarako estimuluak arautzen dituena.
- 14/2013 Legea, irailaren 27koa, Ekintzaileei Laguntzekoa eta Nazioartekotzekoa.
- Lurralde historikoetako planak eta programak:
 - Bizkaiko Foru Aldundia: Enplegatzea - Gazteen Enplegurako Foru Plana 2012-2015.
 - Bizkaiko Foru Aldundia: Sortzea - Enpresa Berriak Sustatzeko Plana 2012-2015.
 - Bizkaiko Foru Aldundia: Ezkerraldea eta Meatzaldea Suspertzeko Eskualdeko Programa 2013.
 - Gipuzkoako Foru Aldundia: Krisiaren Kontrako Plana 2011-2013.
 - Arabako Foru Aldundia: Emprender en Alava 2013.
- EAEko 3 hiriburuetakoko planak.
 - Bilbao 2013 Enplegu Plana.
 - Donostiako Ekonomia Suspertzeko Plana 2013.
 - Vitoria-Gasteiz 2013 Enplegu Plana.

B) LOTUTAKO LEGERIA

- EAE: 16/2012 Legea, ekainaren 28koa, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari laguntzekoa.
- EAE: 1/2013 Legea, urriaren 10ekoa, Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzkoa.

C) BESTE DOKUMENTU INTERESGARRI BATZUK

- Enpleguko Euskal Estrategia 2011-2014.
- Lanbide Heziketarako IV. Euskal Plana, 2011-2014.
- Gizarteratze Aktiboaren Euskal Plana 2012-2016.
- Enplegu Politikako Urteko Plana 2013rako (2013ko abuztuaren 28ko ebazpena, Estatuko Enplegu Idazkaritzarena, 2013ko abuztuaren 2ko Ministro Kontseiluaren Akordioa argitaratzen duena, Urteko Plana onartzekoa).

- Europa 2020: Hazkunde zentzudun, iraunkor eta integratzailerako estrategia.
- Kontseiluaren 2010/707/EB Erabakia, 2010eko urriaren 21ekoa, estatu kideei enplegu-politikei buruzko orientabideak ematekoa.
- Batzordearen komunikazioa 2011ko abenduaren 20koa, Europako Parlamentuarentzat, Kontseiluarentzat, Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordearentzat eta Eskualdeetako Batzordearentzat: «Gazteentzako Aukeren Ekimena».
- Europako Parlamentuko Batzordearen komunikazioa 2012ko apirilaren 18koa, Kontseiluarentzat, Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordearentzat eta Eskualdeetako Batzordearentzat: «Enplegua sortzeko susperraldirantz».
- Batzordearen komunikazioa, 2012ko abenduaren 5ekoa, Europako Parlamentuarentzat, Kontseiluarentzat, Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordearentzat eta Eskualdeetako Batzordearentzat: «Gazteen enplegua sustatzea».
- Programme for Social Change and Innovation (PSCI).
- Egitura Funtsei buruzko Araudi Orokorra 2014-2020.



2. Eranskina: 2013ko martxoaren 8an Eusko Legebiltzarrean egindako Hazkunde Ekonomikoari eta Langabeziaren Aurkako Borrokari buruzko eztabaida monografikoan onartutako ebazpen-proposamenak



2013ko martxoaren 8an Eusko Legebiltzarrean egindako Hazkunde Ekonomikoari eta Langabeziaren Aurkako Borrokari buruzko eztabaida monografikoan onartutako ebazpen-proposamenak

1. ENPLEGUKO POLITIKA AKTIBOAK

Enplegua suntsitzeko testuinguru batean, enplegu-politika aktiboek funtsezko ardatza izan behar dute, pertsona langabeen aktibazio-prozesua egituratzeko, haiei laneratzeko laguntzeko. Politika horiek landun biztanleriari ere bideratu behar zaizkio, enpleguari eustea eta enplegua hobetzea bermatzeko, bai eta landunen lan-sustapena eta ekintzaitzera izaera errazteko ere.

Enplegu-politika aktiboak gobernuaren ekintzaren funtsezko zati bat dira, gaur egun energia guztiekin langabezia murriztera eta herritarren bizi-maila egokia bermatzera bideratu beharrekoa. Estatuan ezarritako ongizatearen adierazpen bat dira politika aktiboak. Gobernuak ahalik gehiena ahalegindu behar du enplegu-politika aktiboetan, langabeek lanpostu egoki bat aurkitu ahal izateko ahalik azkarrena.

Horregatik, Eusko Legebiltzarrak 2013ko aurrekontuan enplegu-politika aktiboaren aurrekontua ez murrizteko eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari. (ESko 3)

2. TOKIKO ENPLEGUA

Udalen kontratazio-beharrak askotarikoak eta denboran mugatuak izaten direnez, eragile bikainak dira enplegua aurkitzeko zailtasun handienak dituztenen epe luzeko langabeziaren izurria alde batera uzteko. Hori dela eta, Eusko Legebiltzarrak eskaera hau egiten dio Eusko Jaurlaritzari: udalek langabeak kontratatzekeo pizgarriak ematea, eta laguntza horien ehuneko bat gazteentzat izatea, 50 urtetik gorako epe luzeko langabeentzat eta gizartearen baztertuak izateko arriskuan daudenentzat. (ESko 4)

3. ENPLEGU SOLIDARIOA

Eusko Legebiltzarrak dei egiten die Eusko Jaurlaritzari, foru-aldundiei eta udalei, lan egiteko premia handiena duten pertsonak kontratatzekeo programak ahalik azkarren abian jartzeko; esate baterako, kide guztiak langabezia dituzten familientzako programak eta langabezia-tasa altuak dituzten eskualdeetarako programak. (ESko 5)

4. LANGILEEN PARTE-HARTZEA BEREN ENPRESETAN

Langileek beren enpresetan parte hartzea –dela kudeaketan, etekinen banaketan edo kapital-sarreran– enpresetan lan-giroa hobetzen laguntzen duen elementu bat da, enpresaburuaren eta langileen arteko harremanean kultura-aldaketak errazteaz eta enpresaren lehiakortasuna hobetzen laguntzeaz gain. Hain zuzen ere, ekonomia-krisian zehar egiaztatu ahal izan da langileen partaidetza duten enpresek erantzun hobea izan dutela, enpleguari, baldintzei eta lan-giroari eusteari dagokionez.

Horrenbestez, Eusko Legebiltzarrak hau eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari: langileek enpresetan partaidetzak izateko sentsibilizazio-, laguntza- eta sustapen-programak eta -ekintzak abian jartzea, kudeaketari, etekinak banatzeari eta akzioetan parte hartzeari dagokionez; hau da, enpresaren jabetzan eta enpresaren beraren esparru guztietan. (ESko 9)

5. BENETAKO BERDINTASUNA ENPLEGUAN

Gizonen eta emakumeen soldaten arteko aldea lan-merkatuko bereizkeriaren eta desberdintasunaren isla da. Alde horiek emakumeei eragiten diete batik bat, oro har emakumeak baitira lana uzten dutenak familiako erantzukizunaz arduratzeko (horrek lan-sustapena zailtzen du) eta, beste batzuetan, lan beragatik diru gutxiago jasotzen dutelako.

Horregatik, Eusko Legebiltzarrak hau eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari: gizonen eta emakumeen lan-sustapenekeo aukera-berdintasuna lortzeko negoziazio kolektiboko irizpideak bultzatzeko, eta lan beragatik soldata desberdina jasotzeko aukerarik ez dadila egon. (ESko 10)

6. LAN-ERREFORMA INDARGABETZEA

Lan-merkatuaren erreforma onartu zenetik urtebete pasatu ondoren, eta enplegua sortu beharrean langileen kaleratzea errazteko eta lan-harremanak, banakakoak eta kolektiboak, larriagotzeko baino balio izan ez duela ikusita, Eusko Jaurlaritzak uztailaren 6ko 3/2012 Legea, Lan-merkatua Erreformatzeko Premiako Neurriei buruzkoa, indargabetzeko eskatzen dio Espainiako Gobernuari. (ESko 11)

7. ENPLEGUA ETA DUINTASUNA

Ekonomia-politikaren lehentasuna enplegua sortzea eta biztanleria osoarentzat bizi-baldintza duinei eustea da.

Horregatik, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bere jardueraren ardatz nagusia hazkunde- eta enplegu-politikak areagotzea eta sortzea izan dadila, bai eta beharra duen inor ez dadila geratu gutxieneko diru-sarrerarik gabe. Horretarako, 2013. urterako, gizarte-politiketarako 2012ko aurrekontu berari eutsi beharko zaio gutxienez. (ESko 12)

8. ENPRESA TXIKI ETA ERTAINETARAKO MAILEGUAK

Eusko Legebiltzarrak hau eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari:

- a) Finantza-entitateekin akordioak egitea eta berritzea, langabeak kontratu mugagabeen bidez kontratatzen dituzten enpresa txiki eta ertaintzat eta banakako ekintzaileentzat maileguak lortzeko, gaur egungo hobariak eskuratzeko funts horretara jo eta mailegua eska dezaten.
- b) Finantza-erakundeekin egindako hitzarmenetan, enplegua sortzen duten enpresen maileguak lehenestea.

Ekintzaile bihurtu nahi duten langabeak eta ikertzaileak edo gazteak kontratatzen dituzten enpresek ere eskuratu ahal izango dute mailegu hori. (ESko 15)

9. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

Eusko Legebiltzarraren ustez, lanbide-prestakuntza enplegua lortzen laguntzen duen enpresa-beharretara egokitzeko faktore bat da. Horregatik, garapena finantzatzeko eta Lanbide Heziketako III. Euskal Planaren aplikazioa arintzeko eskatzen da, hasierako prestakuntza eta lan-bizitzan zehar birkualifikazioa aurreikusten dituen. (ESko 16)

10. PRESTAKUNTZA, GARATZEN ARI DIREN SEKTOREETAN

Eusko Legebiltzarrak hau eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari: garatzen ari diren sektoreetan praktikak eta lan-esperientzia barne hartzen dituen prestakuntza-programak bultzatzea, gazteentzat eta epe luzeko langabeentzat, jarduera iraunkorretan (ingurumen-zerbitzuak, energia berriztagarriak, turismoa, birgaikuntza eta eraikuntza iraunkorra, arreta soziosanitarioa, produktuen eta zerbitzuen ekodiseinua...). (ESko 17)

11. PRESTAKUNTZA, GARATZEN ARI DIREN SEKTOREETAN

Horren haritik, Eusko Legebiltzarrak hau eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari: Euskadiko ekonomia-sustapeneko programen esparruan, enplegua sortzeko diru-laguntzen eta laguntzen berariazko plan bat sar dezala, Europako batzordeak "Enplegua sortzeko susperraldirantz" komunikazioan adierazitako eremuetan; esate baterako, ekonomia ekologiko, arreta sanitario, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien arloko kontratazioan. (ESko 18)

12. ENPLEGUA, LEGEAK, BERDINTASUNA, DUINTASUNA

Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskailetak Euskadin berariazko plan bat sustatzea, kontratu bidezko lan-harremanak bermatzeko; eta horretarako, jarduera hauetara bideratutako ikuskaritza-kanpainak garatzea: gizonen eta emakumeen arteko soldata-berdintasuna bermatzea; baimendu gabeko enplegu-agentzia pribatuen legez kanpoko kontratazioak etxeko langileen eremuan; enplegu-zentro berezietako lan-baldintzei buruzko informazioa; eta eraikuntza-sektoreko berariazko zaintza (batik bat, herri-lan eta azpiegitura handietan). (ESko 19)

13. ENPLEGUA ZAILTASUN BEREZIAK DITUZTEN LANGILEENTZAT

Eusko Legebiltzarrak hau eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari: sailek eta bere mendeko enpresa publikoek eta erakunde autonomoek egin beharreko kontratazio publikoko prozesuetan, kontratua baldintzatzen duten gizarte-klausulak sartzea, laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enplegua sustatzeko, langabeziari aurre egiteko, eta lan-merkatuan gizonen eta emakumeen berdintasuna bultzatzeko. (ESko 20)

14. OZTOPORIK GABEKO ENPLEGUA

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio eutsi diezaiela desgaitasunen bat duten pertsonen enpresa arruntetan kontratu mugagabeak egiteko laguntzei. Programa honekin sustatzen da desgaitasunen bat duten langabeek enplegu egonkorra izatea enpresa arruntetan. Diruz lagunduko da egun osoko kontratua, eta hobari automatiko mugagabe bat egongo da Gizarte Segurantzarentzako enpresa-kuotetan, 4.500 eurotik 6.300 eurorainokoa, desgaitasun-mailaren eta generoaren arabera. (ESko 21)

15. ENPLEGURAKO PRESAKO NEURRIAK 50 URTETIK GORAKOENTZAT

Krisi ekonomikoaren ondorioz kaltegarrietako bat, lan-erreformak areagotu duena, izan da nabarmen handitu dela 50 urteko edo gehiagoko langabeen kopurua, eta pertsona horiek harrapatuta daudela langabeziaren, sarritan denbora luzeagoaren, eta urrun duten erretiroaren artean.

Horregatik, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio urgentziaz har ditzala berariazko neurri batzuk 50 urteko edo gehiagoko langileentzat.

Plan horretan jaso beharko liratekeen neurri batzuk dira 50 urtetik gorakoentzako lan-poltsak sortzea; halakoak kontratatzen dituzten enpresentzako pizgarriak; gaitasuna egiaztatzeako egitura aplikatzea lehenetasunez; kualifikaziorako eta birkualifikaziorako berariazko politika aktiboak egitea; prestakuntza horretan parte hartzeagatik beka emateko sistema bat familia-ardurak dituztenentzat; autoenplegua sustatzeko pizgarriak; hainbat adinetako pertsonen osatutako taldeen bidez enpresetan esperientzia transmititzea; birlaneratzeko pizgarriak, eta abar. (ESko 22)

16. 50 URTEK GORAKOENTZAKO LEGE ARAUTZAILEA

Ez da komeni ahaztea Euskadira demografia-aurreikuspenek jaiotzen beherakada adierazten dutela; hori dela eta, 50 urtetik gorako pertsonak berriro lan-merkatuan sartzeak ondorio onuragarri bikoitza izango du: alde batetik, etorkizunean pentsio apalek eragindako pobrezia-tasen arriskua gutxituko du; beste alde batetik, jardura-tasen igoerak jaiotzen beherakada arintzen lagunduko du.

Horregatik, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio hitzemanda daukan enplegurako euskal lege berrian sar dadila adin handieneko langileen lan-aukeren hobekuntza, esparru egonkor bat emango duena eta enplegurako eta ekonomia produktiboa bultzatzeko beharrezko planaren jardura-ildoen osagarri izango dena, pertsona horien enplegurako. (ESko 23)

17. GAZTEEN ENPLEGURAKO PLANA

Langabezia-tasa handiek (beste adin-talde batzuenak halako hiru badirenak), lan-kontratu atipikoen kontzentrazioak edo azpienpleguak –persona horien ahultasuna areagotzen dute– eta ikasten eta lan egiten ez duten gazteen kopurua gero eta handiagoa izateak belaunaldi galdu baten arriskua dakarte.

Horregatik guztiagatik, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio egin dezala berehala gazteen enplegurako aurrez aurreko plan bat. (ESko 24)

18. GAZTEENTZAKO BERME-SISTEMA

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio sar dadila gazteentzako berme-sisteman, Europako Batzordeak ezarriko duen eran. Sistema hori tresna gisa erabili beharko da ziurtatzeko 25 urte arteko herritar guztiak, baita graduatu berri diren 30 urtetik beherako gazteek ere, eskaintza bat jasoko dutela enplegurako, etengabeko heziketarako edo aprendiz-prestakuntzarako, lanik gabe gelditu edo heziketa ofiziala bukatu eta lau hilabeteko epean.

Era berean, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio gazteentzako berme-sistemarekin batera jar dezala kalitate-esparru bat enplegurako, prestakuntzarako edo heziketarako eskaintzek baldintza egokiak jasoko dituztela bermatzeko, soldadari, lanari eta osasun eta segurtasunari dagokienez. (ESko 25)

19. BIRLANERATZEKO PRESTAKUNTZA

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio mantentzea eta sakondu ditzala prestakuntzarako eta enplegurako berariazko neurriak hogeita hamabost urtetik beherakoentzat, baldin eta esperientzia profesionala izan arren amaitu gabe badituzte prestakuntza ofizialeko zikloak, unibertsitatekoak nahiz lanbide-heziketakoak, edo profesionaltasun-ziurtagiriak. Neurri horietan sartuko dira laguntza ekonomikoak ere, familia-ardurak baldin badituzte eta diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen ez badute. (ESko 26)

20. NAZIOARTEKOTZEKO PRESTAKUNTZA

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala gazte tituludunak nazioarteko arloan prestatzen:

- Atzerriko enpresa eta erakundeetan praktikak egiteko beken bidez.
- Atzerrian praktikak egiteko kontratu baten bidez, kanpoan ordezkaritzak edo partaidetzadun enpresak dituzten Euskadiko enpresa eta talde esportatzaile nagusien eskutik. (ESko 27)

21. ENPLEGU BERDEA

- a) Produktu ekologikoen eskaera handituz doa nabarmen; hori dela eta, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bultzatzea dezala produkzio ekologikoa.
- b) Eusko Legebiltzarrak, bai baitaki enpleguak beherakada handia izan duela eraikuntzaren alorrean, familia ugariak etxebizitza-premia dutela eta energia-eraginkortasuna etxeetan ere hobetzea presakoa dela, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio abian jar dezala etxebizitzaren birgaikuntzarako eta hiri-berrikuntzarako urte anitzeko plan bat, langileak birgaikuntza energetikoa prestatzea jasoko duena, etxebizitzaren sektoreko enpresa, gremio eta hornitzaileetan jardura sortzeko eta aldi berean, energia-eraginkortasuna optimizatuta, dauden etxebizitzak hobeto erabiltzeko.
- c) Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio handitu dezala Lanbideren eskaintza enpresetako prestakuntza-proiektuetarako eta praktika bekadunetarako, ingurumen-kudeaketan, eraikuntza iraunkorrean, ekodiseinuan, ekoefizientzian, obrako hondakin-kudeaketan eta industriako energia-zerbitzuetan. (ESko 28)

22. NEKAZARITZA-SEKTOREKO ENPLEGUA

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bultzatzea euskal nekazaritza-sektorean prestakuntzarako eta lehiakortasunaren hobekuntzarako programak, sektore hori zaintzeko, orain arte pisu handia izan duelako, produkzio ekologikoa laguntzen duelako eta oraindik baliatu gabeko bideak badituelako bere produktibitatea hobetzeko, kalitateko enplegua mantendu eta sortzeko ahalmen nabari batekin. (ESko 29)

23. ARRANTZA-SEKTOREKO ENPLEGUA

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio finantzatu dezala sektorea hobetzeaz arduratuko den arrantza-politika bat: laguntzak ontzien desegiteetarako eta geldialdietarako, ontziak modernizatzeko, arrantza arloko berrikuntza eta ikerketarako eta ingurumena gehiago errespetatuko duten aparailuak erabiltzeko. (ESko 30)

24. I+G+B LEHEN SEKTOREAN

Eusko Legebiltzarrak ezinbestekotzat jotzen du I+G+Bren alde apustu egitea lehen sektorean ere. Horregatik, Jaurlaritzari eskatzen dio babes dezala aberastasuna eta enplegu-aukerak sortzen dituen edozein ekimen berritzaile, eta bila ditzala lankidetzak instituzional guztiak, kanpoan eta barruan, Euskadi Europako erreferentzia bat izan dadin I+G+Bn. (ESko 31)

25. ENPLEGUA TURISMO-SEKTOREAN

- a) Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio sendotu dezala turismo-sektoreko enpresa-egitura, negozio-eredua egokitu eta aldatzea erraztuz, eta orobat sektoreko lehiakortasuna eta berrikuntza, honako neurrien bidez:
1. Babesa ematea zerbitzu turistikoetan enpresa txikiak sortzeari, laneratzeko zailtasun bereziak dituzten langabeak kontratatzea sustatuz (hala nola gazteak, 50 urtetik gorakoak eta luzaroko langabeak kontratatzea).
 2. Elkarlana erraztea lankidetzak turistikoko enpresa, elkarte eta erakundeen artean, enpresei tamaina handiagoa hartzen eta erronkei hobeto aurre egiten laguntzeko.
 3. Babesa ematea teknologiarik erabiltzeari eta establezimenduak erabilera eta eskaera turistiko berrien arabera egokitzeari, barne-ekintzazaitza turistikoak erraztuz eta babestuz.
 4. Jarraitzea lankidetzak turistikoko erakundeak sendotzen, ziurtatuz Euskadiko lurralde osoan pertsona profesional eta espezializatuen taldeak egongo direla, ikuspegi integral eta integratu bat izango dutenak Euskadiri buruz helmuga turistiko gisa, sektore pribatua inplikatzeko gai izango direnak antolaketa-eredu mistoetarantz (publiko-pribatuetarantz) urratsak eginez, eta gai izango direnak, halaber, sarean elkarrekin lan egiteko.
- b) Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio gara dezala sailen arteko lankidetzako ekintza-programa bat turismorako, bereziki arlo hauetan: prestakuntza, enplegua eta gizarte-gaiak; berrikuntza; ingurumen-iraunkortasuna; ekonomia eta fiskalitatea; garraioa eta mugikortasuna, eta segurtasuna.
- c) Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bultzatzea nazioarteko azoketan egotea, gure produktuak sustatzeko eta turismoa sustatzeko.
- d) Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala 2013an atzerrirako misioekin, hartara babesa emateko gure enpresek nazioarteko merkatuak irekitzeari edo sendotzeari. (ESko 32)

26. FISKALITATEA LEGEBILTZARRAREN ZERBITZUAN

Eusko Legebiltzarrak Batzar Nagusiei eskatzen die bultzatzea fiskalitateari buruzko foru-arauen erreformak, otsailaren 15ean eztabaidatu eta erabaki zirenak, enplegua sortzen duen jardueraren ekonomikoari laguntzeko. (ESko 33)

27. LAN-GIZARTERATZEA

- a) Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio susta dezala langabeen enplegarritasuna hobetzea, eskualde bakoitzean bultzatuz tokiko garapenerako enplegu-plan bat, haien lanbide-profila hobetuko duen prestakuntza jasoko duena eta enpresen premien arabera prestakuntza-eskaintzaren plangintza izango duena.
- b) Horretarako, eskualde bakoitzean eratu dadila aholku-kontseilu bat, Lanbideek, LHko zentroek, enpresa- eta sindikatu-eragileek, toki- eta foru-administrazioek eta beste entitate batzuek osatua, epe labur eta ertainean enpresek behar dituzten lanbide-profilak zehazteko eta dagozkien prestakuntza-premiak proposatzeko. Horretarako beharrezkoa da Lanbideek arreta individualizatua ematea, eskualde bakoitzean dauden benetako enplegu-premietara zuzenduta.
- c) Sendotu daitezela enpresa pribatuak, prestakuntza eman ondoren, langabeak kontratatzea sustatzeko laguntzak (hala nola luzaroko langabeak, gazteak, 50 urtetik gorakoak eta abar kontratatzeoak), langabeek enpleguak izateko zailtasun bereziak dituztenean.

- d) Babestu dadila erreferentzia nazionalako enplegu-zentroak eratzea, bateko eta besteko lan-arloetan erreferentzia kualifikatuak edukitzeko. (ESko 36)

28. ENPLEGUA ETA TOKIKO GARAPENA

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bultza dezala Euskadiko eskualde bakoitzak enplegu-plan bat izatea tokiko garapenerako. (ESko 37)

29. ENPRESEN NAZIOARTEKOTZEA

Nazioarteko merkatuetan ahalik euskal enpresa gehiena ezartzea ezinbestekoa da gure industria-ehunak iraungo badu bere osoan. Horregatik, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ekainerako abian jar dezala enpresak nazioartekotzeko Euskadi plan bat. (ESko 38)

30. ENPRESA TXIKI ETA ERTAINENTZAKO BERRIKUNTZA ETA NAZIOARTEKOTZEA

Euskal enpresa gehienak tamaina txikikoak dira, eta hori oztopoa da nazioarteko merkatura iristeko eta I+G+Brekin zerikusia duten aurrerapenak txertatzeko. Horregatik, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio susta dezala, nazioartekotzeko Euskadi plan batean, enpresa txiki eta ertainen integrazio estrategikoa (aliantzak, bat-egiteak, joint ventureak) eta kooperatibismoa, zenbait sektoreen berrikuntzarako eta nazioartekotzeko behar den tamaina lortzeko. (ESko 39)

31. GARATZEN ARI DIREN SEKTOREAK BABESTEA

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala babesten garatzen ari diren sektoreak edo enplegua sortzeko gai direnak: energia berriztagarriak, sare adimendunak, turismoa, nekazaritza ekologikoa, berrikuntza medikoa eta laguntza-zerbitzuak, betiere merkatu berriak irekitzeko lanean elkarrekin jardunez, ikerketa babestuz, inbertsioarentzako laguntzak emanez eta enpresa-egiturak modernizatuz. (ESko 41)

32. ENPRESA TEKNOLOGIKOENTZAKO KREDITUA

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezar dezala berariazko kreditu-lerro bat nazioarteko merkatuetan hedatu nahi duten teknologia-intentsitate handiko enpresentzat, enpresen ezinbesteko nazioartekotzea bultzatzeko neurri gisa. (ESko 42)

33. EKINTZAILETZAREN FINATZIAZIOA

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ekonomikoki hornitu ditzala Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko 16/2012 Legeko aurreikuspenak. (ESko 44)

34. ENPRESA SORTZEKO ERRAZTASUNAK

Luzamendu eta traba administratiiboak oztupo garrantzitsua dira enpresak sortzeko; horregatik, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio sinplifika ditzala enpresak sortzeko tramiteak, eta, zehazki, aplika dezala jada pertsona interesdunak, agiriak aurkeztu ordez, erantzukizunpeko adierazpena egitea, eta baimenak ordeztu daitezela pertsona horren aurretiazko adierazpen edo jakinarazpenez. (ESko 45)

35. EKINTZAILETZARAKO DOAKO AHOLKULARITZA-ESKAINTZA

Enpresa bat konkurtso-prozedura batean sartuta dagoenean, langileek, ahalik lanpostu gehienak salbatzeko, aztertu ohi dute ea posible den ekintzailetza kolektiboa bultzatzea lan-sozietateak eta kooperatiba-sozietateak sortuz, halako enpresen atal batzuk bideragarri egiteko. Horrek kostu ekonomiko handiak izaten ditu askotan langileentzat, proiektuen bideragarritasuna aztertuko duen aholkularitza on bat lortzeko.

Horregatik, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio sor dezala egoera horiei aurre egiteko funts bat, hartzekodunen aurrekonkurtso edo konkurtsoan dauden enpresetako langileei zuzendua, langileok, ahalik lanpostu gehiena salbatzeko, aholkularitza espezializatua behar baitute lan-sozietateak edo laneko kooperatiba-sozietateak sortzeko eta haien etorkizuneko bideragarritasuna aztertzeko. (ESko 46)

36. I+G+B SEKTORE ESTRATEGIKOETAN

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio sakondu eta areagotu dezala euskal ekonomiaren lehiakortasuna hobetzeko estrategia, I+G+B ekonomikoki bizkortzeko politika orokor bat erabiliz, gainera honako sektoreotan sendotuko dena: osasungintza eta ikerketa biomedikoa; nekazaritzako elikagaien sektorea; esportatzeko gaitasun handiena duten sektore eta enpresak; berrikuntzarekin, teknologia berrieekin eta energia-ereduaren aldaketarekin zerikusia duten sektore eta enpresak; energia berriztagarriak; aeronautika; ekoindustriak, uren kudeaketa eta tratamendua; informazioaren eta komunikazioaren teknologia; bioteknologia; kultura-industriak; automozioaren sektorea. (ESko 48)

37. ZIENTZIA-, TEKNOLOGIA- ETA BERRIKUNTZA-PLANA

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lehentasunezkatzat jo dezala ezagutzen oinarritutako produkzio-eredua, eta, hortaz, zehaztu dezala aurrekontu-zukidura bat Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean jasotako I+G+Brako helburu eta konpromisoak betetzeko aukera emango duena, bereziki 2015ean I+Gn % 3ko inbertsiora iristeko helburua. (ESko 49)

38. GIZARTE-EKONOMIA SUSTATU ETA EZAGUTARAZTEA EUSKADIN

2011ko apirilaren 30ean indarrean sartu zen Gizarte Ekonomiari buruzko martxoaren 29ko 5/2011 Legea, oinarritzat helburu hau duena: "esparru juridiko bat eratzea, sektorea osatzen duten entitateetako bakoitzarentzat indarrean dagoen araudia ordeztzeko asmorik gabe, gizarte-ekonomia aintzat hartu eta ikusgarriago egingo duena, segurtasun juridiko handiagoa emanez gizarte-ekonomia definitzeko jarduketan bidez, ekonomia hori osatzen duten entitateek kontuan izan beharreko printzipioak ezarrita".

Legearen 8. artikulua, 1. paragrafoan interes orokorreko zeregin gisa aitortu ondoren "gizarte-ekonomiako entitateak eta haiek ordezkatzeko erakundeak sustatu, bizkortu eta garatzea", 2. paragrafoan gizarte-ekonomia sustatzeko politiken helburuak jasotzen ditu, botere publikoek beren eskumenen eremuan izango dituztenak, honako hauek, hain zuzen:

- e) Gizarte-ekonomiako entitateek jarduera ekonomikoa hastea eta garatzea eragozten duten oztopoak kentzea. Horretarako, arreta berezia jarriko da gizarte-ekonomiako entitateak sortzeko administrazio-tramiteak sinplifikatzeko.
- f) Gizarte-ekonomiako ekimenak erraztea.
- g) Gizarte-ekonomiaren printzipio eta balioak sustatzea.
- h) Prestakuntza eta berregokitze profesionala sustatzea gizarte-ekonomiako entitateen eremuan.
- i) Gizarte-ekonomiako entitateetako ekintzaileei irispidea erraztea teknologia- eta antolaketa-berrikuntzako prozesuetara.
- j) Ingurune bat sortzea gizarte-ekonomiaren esparruan ekimen ekonomiko eta sozialen garapena sustatuko duena.
- k) Gizarte-ekonomiako entitateak enplegu-politika aktiboetan inplikatzeko, bereziki langabeziak gehien eragindako sektoreen, emakumeen, gazteen eta luzaroko langabeen alde.
- l) Gizarte-ekonomiaren aipamena sartzeko hezkuntza-etapetako ikasketa-planetan.
- m) Gizarte-ekonomiaren garapena sustatzea landa-garapen, mendekotasun eta gizarte-integrazioaren arloetan.

Eusko Legebiltzarrak uste du beharrezkoa dela ahalegin bat egitea gizarte-ekonomia sustatzeari dagokionez, garapen iraunkorrarekiko konpromisoa duen sektorea delako bere hiru alderdietan, hots, ekonomia, gizarte eta ingurumenekoetan, eta horregatik Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bere eskumenen eremuan jardun dezala gizarte-ekonomia sustatu, bizkortu eta garatzen, besteak beste Gizarte Ekonomiari buruzko martxoaren 29ko 5/2011 Legean ezarritako helburuetan oinarrituta. (ESko 50)

39. RENOVE PLANAK

Renove planen esperientziak erakusten du plan horiek eragin handiko jarduketak direla merkataritza-eta industria-jarduera mugitzeko, diru-laguntzatan ematen den euro bakoitzak askoz fakturazio handiagoa sortzen baitu, horrek lanpostuak mantentzeko duen eraginarekin.

Horregatik, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio susta ditzala Renove planak 2013an, krisi ekonomikoak bereziki erasanda dauden sektore guztietan. (ESko 51)

40. ADMINISTRAZIOA MODERNIZATZEA

Administrazioaren modernizazioaren alderdi nagusia da herritarrekin elkarrekintza telematikoa erabiltzea; horrek ahalbidetzen du tramiteak on line egitea, Administrazioaren jarduera edonork jarraitzea eta helburu komertzialekin ustiatzea datu metatuen bankuak (datu meteorologikoak, establezimenduak, etab.).

Horregatik, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio burutu dezala Administrazioaren modernizazioa, herritarrentzat arinagoa egiteko, enpresei beren tramiteetan aurrezteko bidea emateko, baita haren datuak doan erabiltzeko, negozio-aukera gisa. (ESko 52)

41. Eusko Legebiltzarrak enplegu-plan integral bat eta Jaurlaritzaren jarduna gidatu behar duten printzipio orokor gisa ezartzen ditu honako hauek:

Eusko Legebiltzarrak adierazten du lehentasuna duela enplegua sortzeak, baita hartarako borrokak ere, eta alde horretatik arreta berezia eskaini behar zaiola zailtasun handienak dituzten langabe-kolektiboak laneratzeari, hala nola gazteak, emakumeak, immigranteak, luzaroko langabeak eta desgaitasunen bat duten pertsonak edo bazterketa-egoeran edo baztertuta egoteko arriskuan daudenak. (ETPko 2.1)

Eusko Legebiltzarrak adierazten du denok batera egin behar ditugula urratsak ekonomia, enplegua eta gizarte-politikak gehiago integratzeko bidean, lehentasuna emanez pertsonetan inbertitzeari eta modernizatuz lan-politikak eta gizarte-babeseko sistemak.

Horretarako, Eusko Jaurlaritzak mantendu egingo du aurrekontu-zuzkidura diru-sarrerak bermatzeko errentan, etxebizitzako prestazio osagarrian eta gizarte-larrialdietarako laguntzetan. (OE 4)

Eusko Legebiltzarrak adierazten du beharrezkoa dela bai oraingo eta geroko enplegu-aukerak ezagutzea, bai langileen prestakuntza sustatzea, eta prozesuaren elementu giltzarriak direla horiek lan-politikaren ikuspegitik. (ETPko 2.3)

Eusko Legebiltzarrak adierazten du beharrezkoa dela oinarriak jartzea, epe ertain eta luzera enplegu egonkorragoa eta produktibitate-indize altuagokoa errazteko, garatzen ari diren eta lehia-abantaila handiagokoak diren jarduerak sustatuz eta prestakuntza-eskaera handieneko okupazioetarantz bideratuz. (ETPko 2.5)

Eusko Legebiltzarrak adierazten du beharrezkoa dela enplegurako prestakuntza-eredu berri bat garatzea, trebakuntza profesionala eta langileen promozioa hobetuko duena, kualifikazioen sisteman eta lan-bizitza osoan zeharreko prestakuntzan oinarritua. (ETPko 2.6)

Eusko Legebiltzarrak adierazten du beharrezkoa dela prestakuntza bizitza osoan zeharrekoa izatea, funtsezko elementua baita langileen enplegarritasuna hobetzeko eta giza kapitala aberasteko. Etengabeko prestakuntza elementu giltzarria da produktibitatea epe luzera hobetzeko, eta, horrez gainera, erraztu egiten du langileak sektore eta okupazio batetik bestera pasatzea. (ETPko 2.7)

Eusko Legebiltzarrak adierazten du beharrezkoa dela politika aktiboen eraginkortasuna hobetzea, dezelerazio ekonomikoak enpleguan dituen ondorioak arintzeko eta aldi berean enplegu egonkorragoa eta produktiboagoa errazteko. (ETPko 2.8)

Eusko Legebiltzarrak adierazten du beharrezkoa dela neurriak hartzea bizitza pertsonala, familiarra eta laborala uztartzea errazteko; izan ere, gizarte osoaren eskaera eta beharrezkoa da gai hau, eta bereziki garrantzitsua da bertan solaskide sozialen papera. (ETPko 2.9)

Eusko Legebiltzarrak adierazten du beharrezkoa dela sustatzea emakumeak eta gizonak enpleguaren aurrean berdinez izatea eta karrera profesionala merituen eta kualifikazioaren aitorzaren arabera garatzea, era horretara gizarte bidezkoago baterantz joz. (ETPko 2.10)

Eusko Legebiltzarrak adierazten du beharrezkoa dela Euskal Autonomia Erkidegoaren potentzial eta enpresa-espiritua bultzatzea, ekintzailetzarako ahalmena garapen ekonomikoko alderdi garrantzitsu bat baita gaur egun. Euskal gizarteak beharrezkoa du ideia berritzaileak enpresa-proiektu bideragarri bilakatzea, enplegua sortzen duten eta ekonomikoki lehiakorrenak diren proiektu. (ETPko 2.11)

Eusko Legebiltzarrak adierazten du lehentasunezkoa dela gazteen enplegua hobetzea, beraien langabezia-tasak murrizten jarraitzea eta beren lan-bizitza baldintza onenetan has dezaten errazteko politikak ezartzea. (ETPko 2.12)

Eusko Legebiltzarrak adierazten du enplegu duinerako eskubidea dutela lan egin ahal eta nahi duten guztiak. Horregatik, babes berezia eman behar zaie desgaitasunen bat duten pertsonari, gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan daudenei eta, oro har, laneratzeko zailtasun bereziak dituztenei. Pertsona horien enplegarritasuna hobetzeko, beharrezkoa da berariazko politikak abiaraztea, halako kolektiboen egoera konkretua kontuan hartuko dutenak. (ETPko 2.13)

Eusko Legebiltzarrak adierazten du beharrezkoa dela laneko istripuak gutxitzea prebentzio-ikuspegi baten bidez, hobetu daitezkeen azken urteetan arlo honetan lortutako aurrerapenak. (ETPko 2.14)

Eusko Legebiltzarrak adierazten du ezinbestekoa dela eraginkortasuna izatea instituzioen arteko lankidetzan, bikoiztasunak saihesteko, lehentasunak ezartzeko, jarduketak antolatzeko, baliabideak aurrezteko eta ahaleginak batzeko. (ETPko 2.15)

42. Eusko Legebiltzarraren ustez beharrezkoa da plan horretan Administrazio publikoaren arloan ondorengo jardueraildoak txertatzea.

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bultzatzea sistema berri bat politika aktiboak planifikatu, programatu eta ebaluatzeko, Espainiako Gobernuarekin koordinatuta. (ETPko 3.1)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio moderniza eta hobetu dezala Lanbideren efizientzia langabeen bitartekaritzan eta haiek berriro enplegatzen. (ETPko 3.2)

Eusko Legebiltzarrak Lanbideri eskatzen dio berehala gauzatu ditzala enplegu-eskaintzak, kalitateko prozedura bat erabiliz, emaitza eraginkorrak lortzeko aukera emango duena enplegatzaileen eta enplegu-eskatzzaileen arteko bitartekaritzan. (ETPko 3.4)

Eusko Legebiltzarrak Lanbideri eskatzen dio sar dezala urtero Ganberara bidali beharreko memoria txosten bat, egin dituen jarduketan eta bere esku-hartzearen ondorioz gauzatu diren lan-kontratuen operatibitatea zehaztasunez ebaluatzeko, bai eta jarduketa horiek behar adinako azkartasun eta malgutasunez Autonomia Erkidegoko enplegu-errealitate aldakorrera egokitzeko ere. (ETPko 3.7)

Eusko Legebiltzarrak Lanbideri eskatzen dio sar ditzala sinplifikazio-prozedura eta -neurriak, aurrez aurreko enplegu-eskaeren kudeaketan epe guztiak laburtzeko. (ETPko 3.8)

Eusko Legebiltzarrak Lanbideri eskatzen dio berma diezaiela herritarrei modu erreal eta eraginkorrean iristea lan-informazioa eta ikaskuntza-prozesuetara. (ETPko 3.9)

Eusko Legebiltzarrak Lanbideri eskatzen dio proaktibitate-irizpideekin joko dezala, beharrezkoa izan dadin merkatura iritea enplegu-eskaintza eta lanbide-profil eskatuena zuzenean bilatzera, prospekzio-prozesuak eginez enpresetan. Eta hori ikuspegi bikoitzarekin:

Bitartekaritza publikoko ratioak areagotzea.

Lan-merkatuaren eskaera errealak testatzea, prestakuntzako eskaintzen orientazioa eta diseinua doitzeko. (ETPko 3.10)

Eusko Legebiltzarrak Lanbideri eskatzen dio orokortu dezala bitartekaritza-protokoloen erabilera, eskaintzen diren lanpostuak prozesu telematikoen bidez azkar eta eraginkorki atzeman, ezagutarazi eta bete ahal izateko, ezagutarazitako informazioaren kalitatea eta eraginkortasuna bermatuz. (ETPko 3.12)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio sakondu dezala laneratzeko ibilbide pertsonalizatuak langabe guztien eskubide gisa inplementatzeko zereginen, eta webgunearen bidez ezagutaraz dezala pertsonentzako lanbide-orientazioa. (ETPko 3.13)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bultzatzea toki-korporazioek lanpostu-hornikuntzarako egiten dituzten deialdi publikoak ezagutaraztea, enplegu eta prestakuntzako atariaren bitartez. (ETPko 3.14)

Eusko Legebiltzarrak Lanbideri eskatzen dio sor dezala enplegatzaileen datu-base bat, bai eta Lanbide enplegatzaileei eskainitako eta emandako zerbitzuen erregistro bat ere. (ETPko 3.15)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Lanbide izan dadila bitartekaritza-sistemaren babeslea, diskriminaziorik eza eta alde guztien, baina bereziki langileen, interesen defentsa zainduz. Lankidetzan publiko-pribatuaren helburua, betiere, Enplegu Sarearen eraginkortasuna eta efizientzia lortzea izango da, lan-bitartekaritza bere arrakasta-tasa handitzera iritsiz langabeei enplegu egonkorra eskuratzeko bidean. (ETPko 3.18)

43. Eusko Legebiltzarrak uste du beharrezkoa dela plan horretan ondorengo jardueraildoak txertatzea, lan-merkatu kohesionatuagoa lortze aldera:

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio handitu eta bultzatzea lan-merkatura sartzeko zailtasun gehien dituzten pertsonak laneratzeko xede duten programak, hala nola Europako Gizarte Funtsaren Bazterkeriaren aurkako Programa Operatiboa. (ETPko 4.1)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bultzatzea enpresa-erantzukizuneko politikak lanpostuak sortu eta mantentzeko dagokionez eta laneratzeko zailtasun gehien dituzten kolektiboak lan-merkatuan sartzeko dagokionez. (ETPko 4.2)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio pizgarriak ezar ditzala enpresetan enplegu egonkorra sortzeko, kontratatzerakoan lehentasuna emanez laneratzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen, eta orobat emakumeen, 30 urtetik beherako gazteen, 45 urtetik gorako pertsonen eta desgaitasunak dituztenei. (ETPko 4.3)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio pizgarriak ezar ditzala laneratzeko zailtasun gehien dituzten pertsonen enpleguari eusteko, denbora osoko kontratu mugagabe bilakatu daitezzen sustatuz beraien aldi baterako edo iraupen jakineko kontratuak. (ETPko 4.4)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio gara ditzala lan-orientazioko eta enplegurako prestakuntzako programak 45 urtetik gorako langabeen ezaugarrietara eta 12 urte baino gehiago jarraian lanik gabe dauden pertsonentzat egokituta. (ETPko 4.5)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio laguntza-programa bat ezar dezala desgaitasunen bat dutenentzat enplegu egonkorra sortzen duten proiektuetarako. (ETPko 4.7)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio finantzatu dezala lantokietan dauden irispide-barrerak kentzea. (ETPko 4.8)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio gara dezala enplegarritasun-plan bat desgaitasunen bat dutenentzat eta sor ditzala balorazio, orientazio eta bitartekaritzako zerbitzu espezifiko berriak pertsona horiek enplegua eskura dezaten. (ETPko 4.9)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio diseina, segi eta ebalua ditzala bazterketa-arriskuan dauden kolektiboentzako prestakuntza-ibilbideak, lan-merkatuan sar daitezzen eta etorkizunean kalitate handiagoko enpleguetara iritsi ahal izateko kualifikazio-maila lortzeko gai izan daitezzen. (4.10)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio sor dezala Euskal Autonomia Erkidegoko "Euskadi orienta" orientazio-ataria, lineako orientaziorako, enplegarritasunaren autodiagnostikorako eta karrera profesionala diseinatzeko tresnak emanez. (ETPko 4.11)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio diseina daitezela neurri espezifikoak enplegarritasuna handitzeko, hala nola laguntzak ematea inoren kontura lan egiten dutenentzat, bizitza pertsonala, familiarra eta laborala uztartzera zuzenduta. Laguntza horien helburua izango da bai hirugarren bat kontratatzea ardurapeko adin txikikoak zaintzeko, bai lanaldia murriztea edo eszedentzia hartu ahal izatea arrazoi beragatik. (ETPko 4.13)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio susta ditzala ekimenak ordutegi malguak eduki ahal izateko eta familia eta lana uztartu ahal izateko. (ETPko 4.14)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio eman ditzala laguntzak inoren kontura lan egiten duten emakumeei bizitza pertsonala, familiarra eta laborala uztartzen laguntzeko. Laguntza horien helburua izango da langabe baten kontratazioa erraztea amatasun-baimenean zehar autonomia ordezkatu ahal izateko. (4.15)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lehentasunezko arreta eman beharrezkotzat jo ditzala errenta-maila eta prestakuntza apaleko unitate familiarren ardura duten emakumeak, enplegu-politikei eta enplegurako prestatzeko politikei dagokienez. (ETPko 4.16)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lehentasunezko taldetzat jo ditzala genero-indarkeriaren biktime diren emakumeak enplegu-programa subentzionatuei dagokienez. (ETPko 4.17)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio gazteen enplegua susta dezala, indar eginez gazteek beren lehenengo enplegua errazteko neurrietan, lanbide-heziketan eta -ikaskuntzan eta gazteak laneratzeko bide alternatiboak sustatzen, hala nola diren autoenplegua eta gazteen enpresa-proiektuak abian jartzea edo praktikaldiko kontratu bat egiteko beharrezkoa den titulazioa ez duten 21 urtetik beherako gazteen prestakuntzako kontratazioa. (ETPko 4.18)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio erraztu diezaiela prestakuntza-ibilbideetan sartzea lanik gabe dauden, ikasketak goiz utzi zituzten eta enplegu-aukera oso urriak dauzkaten gazteei. (ETPko 4.19)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio gara ditzala, eragile sozialekin lankidetzan, sentsibilizazio- eta informazio-kanpainak gazteentzat beraien eskubide eta betebeharrak laboralei buruz. (ETPko 4.20)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala arretaz Europar Batasunak gazteen langabeziaren aurka borrokatzeko funtsa onestea, funts horretan parte hartzeko ahalik eta zenbatekorik handienean eta ahalik eta azkarrena behin mekanismo hori aktibatu ondoren. (ETPko 4.22)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio gara dezala Gazte Ekintzailtza eta Enpleguko Estrategia gainerako administrazio publikoekin koordinatuta. (ETPko 4.23)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio erraztu dezala beren prestakuntza bukatu duten gazteek izan dezatela, albat arinen, lehenengo esperientzia profesionala edo jarrai dezatela beren kualifikazioa hobetzen Europako Gazte Bermeen ezarritakoaren arabera. (ETPko 4.24)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio susta dezala espiritu ekintzailea eta berrikuntza, eta halaber bultzatzea ekintzailtza-ekimenak. (ETPko 4.25)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio heda dezala enplegu-alternantzia duen lanbide-heziketa, edo lanbide-heziketa duala. (ETPko 4.26)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio handitu dezala prestakuntza-prozesu egiaztagarrien kopurua eta lan-esperientziaren egiaztapena. (ETPko 4.27)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio heda dezala hizkuntzen ezaguera eta teknologia-lanabesetako kualifikazioa hobetzea, handitu egiten baitituzte lanpostua eskuratzeko eta mantentzeko aukerak. (ETPko 4.28)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bultzatzea teleprestakuntzaren erabilera. Horren helburua da enpresetako langileen irispidea erraztea, bereziki enpresa txiki eta ertainetakoena, edonoz eta edonon, eraginkortasunean, efizientzian eta kalitatean irabaziz. (ETPko 4.29)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio susta dezala gizarte-ekonomia, enplegua eta aukerak sortzen dituen ekintzailtza kolektiboko formula gisa. (ETPko 4.30)

44. Eusko Legebiltzarraren ustez, beharrezkoa da plan horretan ondorengo jarduera-ildoak sartzeari, enpresei enpleguaren sustapenerako laguntzak emateari begira.

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio babestu ditzala telelan-neurrien bideragarritasun eta ezarpenerako diagnostikoak egiten dituzten enpresak, bai eta zainketa bereziak behar dituzten adin txikiko seme-alabak edo aurreko senideak zaintzeko ardura dutenak lan-merkatuan sartzeari eta hartan mantentzea errazten duten enpresak ere. (ETPko 5.1)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio babestu ditzala bizitza pertsonala, familiarra eta laborala uztartzea errazteko neurriak hartzen dituzten enpresak. (ETPko 5.2)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio informazioa eta aholkua eman diezaiela enpresei kontratazioaren suspengarrietz, erabilgarri dauden giza baliabideen ezaugarriak eta enpresei zuzendutako beste zerbitzu batzuek. (ETPko 5.3)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio susta dezala enpresen parte-hartzea eta erantzukizuna beraien langileen prestakuntzari dagokionez, enplegarritasuna eta produktibitatea hobetze aldera. (ETPko 5.4)

45. Eusko Legebiltzarraren ustez, beharrezkoa da plan horretan informazio eta jarraipenaren arloan ondorengo jarduera-ildoak txertatzea.

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio sistematiza dezala enplegua sustatzeko programen jarraipenerako beharrezkoa den informazio guztia lortzea, baliagarri izan dadin programa horiek enpleguaren sustapenean daukaten inpaktua egiaztatzeko. (ETPko 6.1)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio informazioa eta aholkua eman diezaiela enpresei kontratazioaren pizgarrietz, erabilgarri dauden giza baliabideen ezaugarriak eta enpresei zuzendutako beste zerbitzu batzuek. (ETPko 6.2)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezar ditzala jarduketa-protokoloak informazioa eta aholkua emateko mugikortasunaren arloan, modu bat izan daitekeen neurrian langabeen laneratze-aukerak areagotzeko. (ETPko 6.3)

46. Eusko Legebiltzarraren ustez, beharrezkoa da plan horretan prestakuntzaren eremuko informazio eta jarraipenaren arloan ondorengo jarduera-ildoak txertatzea.

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio gara eta indartu dezala informazio- eta orientazio-sare bat lanbide-heziketako sistema integraturako, eta orobat heda eta susta dezala lanbide-heziketa. (ETPko 7.1)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio berariaz lan egin dezala kualifikazio baxuko edo zaharkituta gelditzeko arrisku handiko kualifikazioko egoeretan dauden kolektiboetan, programa konkretuak prestatuz pertsona horiek berrorientatzeko eta balio erantsi handiagoko sektore eta okupazioetan lanean jar daitezkeen errazteko. (ETPko 7.6)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezar ditzala proiektu pilotuak prestakuntzaren arloan, enpresen arteko eta enpresa eta heziketa-zentroen arteko prestakuntza eta adituen trukaketa sustatzeko, arreta berezia jarriz proiektuaren faseetako batean izaera berritzailea duten horietan. (ETPko 7.7)

47. Eusko Legebiltzarrak uste du ekintzaileen arloan Eusko Jaurlaritzak, Ekintzaileen Legea onetsi ondoren, bultzatu behar dituela bertan jasotako neurriak, eta orobat beste neurri batzuk ere Autonomia Erkidegoko gizartearen ekintzaileen kopurua gehitu dadin zabalkunde- eta prestakuntza-programa espezifikoaren bidez. (8)

48. Eusko Legebiltzarraren ustez, beharrezkoa da plan horretan Administrazio publikoaren arloan ondorengo jarduera-ildoak txertatzea.

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio baldintza administratibo partikularren agirietan sar dezala, Jaurlaritzaren deialdietako kontratuak eskatzen dituzten enpresek kaudimen teknikoak badutela egiaztatzeko baliabide gisa, betiere kontratu horien izaeraren arabera ahal denean, adierazpen bat egin beharra enpresen urteko batez besteko langile kopuruari buruz, exijituz enpleguan gutxieneko egonkortasun-maila bat izan beharra azken hiru urteetan, hargatik eragotzi gabe, gainera, kontratazio-organoei beste edozein baliabide ezartzea, egoki baderitzote, kaudimen hori egiaztatzeko. (9.2)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio baldintza administratibo partikularren agirietan sar dezala klausula bat, zeinaren bidez kontratazio-organoei ahalmena edukiko baitute kontratatari exijitzeko egoki derizten dokumentazio eta datu guztiak kontratazioaren xede den jardueran kontratatutako langileei buruz, bermatze aldera kontratu horiek egokitzen direla lan arloan indarrean dagoen legedira orokorrean, bereziki laneko arriskuen prebentzioaren eta gizarte-segurantzari buruzko arloan, hargatik eragotzi gabe datuen babeserako legerian aurreikusita dauden mugak. (9.3)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio laneko segurtasun eta osasunaren arloko arau-hauste oso larriagatik zehapenak modu irmoan izan dituzten enpresak, dagozkion tramiteak egin ondoren, baztertuta gelditu daitezela Eusko Jaurlaritzarekin kontratatuzetik, sektore publikoaren kontratuen legerian aurreikusitakoaren arabera. (ETPko 9.4)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio zerbitzu-kontratuetan, eta azpikontratatzeko aukera baldintza administratibo partikularren agirietan sartzen den kasuetarako, ezar dadila aurretiaz azpikontratatu berriz ere azpikontratatzeko debekua. (ETPko 9.6)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio saia dadila aurreikusten, kontratuak lizitzatzeko agiri edo iragarkietan, lizitzaileek beren eskaintzetan adierazi behar dutela azpikontratatzeko asmoa duten kontratuaren zatia. (ETPko 9.7)

49. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio aintzat har dezala kalitateko enplegu batek laneko segurtasun- eta osasun-politika on bat exijitzen duela, aurreneko urrats gisa. (ETPko 10)

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio aurkeztu dezala arriskuen prebentzioaren eta lan-osasunaren arloko plan bat, laneko osasuna sustatzeko helburuarekin, ahal den neurriraino deuseztatu arte borrokatuz. (10.1)

50. Eusko Legebiltzarrak aitortu egiten du hamarkada luzez ETA banda terroristaren eta haren hurbileko organizazioen jazarpena, estortsioa eta erasoak pairatu zituzten enpresaburu, autonomo eta profesional guztiek Euskadiren garapen ekonomikorako egindako lan garrantzitsua. Halaber, bere elkertasuna adierazten die beren eta euren senideen askatasuna eta segurtasuna bermatzeko Euskaditik kanpo joan behar izan zuten enpresaburu, autonomo eta profesionalak. (Misto-UPyDko 1)

51. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio egin ditzala aurrekontu batzuk aurtengo urterako ondorengo helburuekin: kalitateko eta murrizketarik gabeko oinarriko zerbitzuei eusteaz gain, jarduera ekonomikoa sortzea; ekintzaile, autonomo eta enpresei laguntza ematea, eta enplegu kalitateko eta egonkorra sortzea. (Misto-UPyDko 2)

52. Eusko Legebiltzarrak Espainiako Gobernuari eskatzen dio indargabetu dezala azken lan-erreforma, frogatu baita ez duela balio izan enplegua sortzeko, baizik eta kontrakorako, kaleratzea merkatu eta errazteko eta eskubide laboral eta sozialak gutxitzeko.

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio has dezala elkarrizketa positibo bat eragile sozialekin eta indar politikoekin, erregulazio berri bat lortzeko, lan-merkatuaren berraktibazioa eta langabeziaren aurkako borroka helburu. (Misto-UPyDko 3)

53. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bultzatzea EAEko sektore publikoa berrantolatzeke eta arrazionalizatzeko plan bat, bultzatuko eta ahalbidetuko duena EAEko Administrazio orokorrak zuzenean zein zeharka parte hartzen duen erakunde, sozietate eta fundazioen kopurua eta tamaina gutxitzea. (Misto-UPyDko OE 2)

54. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bultzatzea administrazio elektronikoaren garapena eta sinplifika ditzala oraindik ere existitzen diren tramite burokratiko arrazoirik gabekoak enpresak sortzeko, leihatila bakar digitala erabiliz, horrek tramiteak egiteko aukera emango baitu edozein administrazio publikotan, pairatzen dituzten administrazio-kargak eta eratzeko denbora nabarmen gutxituz. (Misto-UPyDko 5)

55. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bultzatzea haren egitura guztietan ordutegi arrazionalagoak, lana eta familia uztatzea erraztuko dutenak, eta susta dezala halako erabakiak enpresa pribatuetan ere hartzea. (Misto-UPyDko 7)

56. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bultzatzea eta hobetu ditzala enplegu-politika aktiboak, zehazki langabeentzako prestakuntza-ikastaroak eta langabeei berriro lan-merkatuan sartzeko balio duten tresnak eskaintzeko ekintzak. (Misto-UPyDko 8)

57. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio gehitu dezala enplegua sustatzeko politika aktiboetarako hornidura, politika hauetan 2012an izandako aurrekontu-egikaritzearen aldean, langabeei enplegua bilatzen laguntzeko tresna estrategikoa izan dadin.

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Lanbide gara dezala Lanbidek berak bere jardueran lehentasunezko dituen arloetarantz, bitartekaritzan eta pertsonen enplegagarritasunean zentratuz eta enpresa-hunarekin batera beharrei antzematen lan eginez. (Misto-UPyDko OE 1)

58. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio gehitu ditzala laneko arriskuei aurrea hartzeko politikak ezbehar kopurua gutxitzeko, gizarte honek eskura dituen baliabide guztiekin borrokatu behar baitu gaitz horren aurka. Halaber, eskatzen dio gehitu ditzala enpresetako ikuskatzeak, prebentzioa hobetzeko eta araudia betetzen den kontrolatzeko. (Misto-UPyDko 10)

59. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio programak eta planak diseina ditzala herritarrek, bereziki gazteenak, ekintzailetzara bultzatzeko eta hartarako gaitzeko, ekintzailetzarako prestakuntza-programak eta laguntza ekonomikoak ezarriz. (Misto-UPyDko 11)

60. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio erabakimenez bultza dezala euskal enpresen nazioartekotzea, bereziki enpresa txiki eta ertainena, laguntzak eta abalak emanez merkatu globalera irteteko aukera izan dezaten. (Misto-UPyDko 12)

61. Eusko Legebiltzarrak uste du I+G+B oinarrikoa eta funtsezkoa dela etorkizunean proiektu ekonomikoak garatzeko, lehiakortasuna hobetzeko eta tresna eta produktu berriak, enpresen esku jarrita balio erantsia eragin eta enpresen lehiakortasunari lagunduko diotenak, sortzeko.

Horregatik, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ez dezala gutxitu I+G+B bultzatzera xedatzen duen aurrekontua bere ezein sailetan. (Misto-UPyDko 13)

62. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio turismo-eskaintza dibertsifika dezala, jarduera garrantzitsuak prestatuz krisiak eta langabeziak gehien zigortu dituen aldeetan, negozio- eta enplegu-aukera berriak sortzeko. (Misto-UPyDko 14)

63. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio berehala aurkeztu ditzala enpleguaren aldeko aurrez aurreko plan bat eta suspertze ekonomikorako plan bat, helburutzat Euskadin enplegua finkatzea eta erreuperatzea izango duena. (Misto-UPyDko 17)

64. Eusko Legebiltzarrak bere ekonomia-politika propioa egitearen aldeko konpromisoa adierazten du herritarren enplegua bermatze aldera. Era berean, Eusko Legebiltzarrak kalitatezko enplegu publikoaren defentsa egin nahi du, zerbitzu publikoak eta kudeaketa zuzena bultzatuz. (EH Bilduko 2)

65. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Gizarte Segurantzaren gaineko eskumen osoak exijitu ditzala eta lan-harremanen euskal esparru propioa susta dezala. (EH Bilduko 4)

66. Eusko Legebiltzarrak adierazten du herritarren prestatzea eta gaitzea lehiakortasunaren ardatza dela kalitatezko enplegua sustatze aldera. Hori horrela, beharrezkoa da baliabideak jartzea hezkuntza-maila guztietan, Lanbide Heziketan, unibertsitateetan eta ikerkuntzari lotutako hezkuntza-jarduera publikoetan. (EH Bilduko 5)

67. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio susta dezala etengabeko prestakuntza, kualifikazioaren hobekuntza eta teknologia berrien erabilera lantokietan. (EH Bilduko 6)

68. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio engaia dadila behin-behinekotasuna eta lan-baldintzen segurtasun-gabetzea, bereziki emakumeei, gazteei eta etorkinei dagozkienak, gaitzitzeko, enpleguaren kalitateari, lan-harremanei eta lan-baldintzei dagokienez gutxieneko duintasun-irizpideak gorde daitezen. (EH Bilduko 7)

69. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio enplegurako plan integral bat egin dezala, bazterkeriarik gabe, Erkidegoaren garapena helburu izango duena, eremu publikotik zuzenean kudeatua, eskualdeko eragile sozialekin adostua eta gure Erkidegoko industria-ehunean inbertsio publikoa sustatuko duena. (EH Bilduko 8)

70. Eusko Legebiltzarrak hitzartzen du enplegu-politika aktiboko ekimen berriak egitea parte-hartzetik abiatuta, gabeziak eta okerrak zuzentzeko. Halaber, beharrezko baldintzak sortzen ahalegintzea kalitatezko eta bidezko enplegua bermatzeko. (EH Bilduko 12)

71. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio neurri eraginkorrak har ditzala EAEn jarduera ekonomikoan finantziarioa bermatzeko enpresa txikiei eta ertainei, langile autonomoei eta ekintzaileei. Denek behar dute laguntza interes sozialaren, ekonomia-garapenaren zein industria-hazkunderen ikuspegitik. (EH Bilduko 15)

72. Ekonomia solidarioko enpresak babesteko eta bultzatzeko, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio pertsona ekintzaileei laguntzeko berariazko programak diseina ditzala, ekonomia solidarioko printzipioetan oinarritutako proiektuak sortzeko eta sortutakoak bultzatzeko. (EH Bilduko 16)

73. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio familia-bizitza eta lan-bizitza bateragarri egin ahal izateko planak diseina eta gara ditzala; pertsonen beharrezkoen arreta-zerbitzuak, adin txikikoentzako zerbitzuak, adinduentzako zerbitzuak, desgaituentzako zerbitzuak eta gaixoen zaintzarako zerbitzuak, eta gizarte-zerbitzuak, oro har. (EH Bilduko 19)

74. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio sektore publikoan zein pribatuan emakumezkoen eta gizonezkoen arteko aukera-berdintasuna lortzeko neurriak har ditzala eta lan-munduan gertatzen diren bereizkeriak salatu eta desagerraraz ditzala; esaterako, emakumeek sufritzen dituztenak: lansarien arteko diferentzia lotsagarriak edo erantzukizuneko karguetara iristeko zailtasunak. (EH Bilduko 21)

75. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ordaindutako eta ordaindu gabeko lan-jardueren banaketari buruzko azterketa egin dezala, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak zenbatekoak eta nolakoak diren ezagutu ahal izateko, bereziki ordaindu gabeko lan-jardueretan: etxeko lanetan eta, oro har, adin txikikoen eta mendeko adinduen zaintza-lanetan. Hori guztia, desberdintasunak eta bereizkeriak behin betiko amaitzeko. (EH Bilduko 22)

76. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Berdintasunaren Legearen ezarpenaren ebaluazioa egin dezala, bai haren edukiei dagokienez, bai garapen-mailari dagokionez, 250 langiletik gorako enpresei legea betearazteko eta berdintasun-planak egin eta bete ditzaten. (EH Bilduko 23)

77. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio desgaitasunak sufritzen dituzten pertsonak lan-merkatuan txertatzeko neurriak diseina eta gara ditzala, bai eta enpresa arruntetan lanean sar daitezten bultzatzekoak ere. (EH Bilduko 24)

78. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezkutuko ekonomia agerrarazteko ikuskaritza-bitartekoak indartu ditzala. (EH Bilduko 27)

79. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio prebentzioaren eta lan-arriskuen gaineko prestakuntza zabaldu eta hobetu dezala laneko ezbeharrak amaitzeko. (EH Bilduko 31)

80. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio merkataritza txikiei laguntzeko taldeak berreskura ditzala eta beraien aholkularitza eta prestakuntzarako berariazko programak egin eta gara ditzala. (EH Bilduko 38)

81. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio hedadura handiko merkataritzaguneen hedapena saihestu dezala eta merkataritza txikiei laguntzeko neurriak har ditzala. (EH Bilduko 39)

82. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bertako komertzioa blindatzeko behar besteko neurriak har ditzala komertzioaren liberalizaziorako Espainiako Gobernuaren dekretua dela eta; izan ere, saltokiei merkealdiak urte osoan egiteko aukera ematen die, eta igandeeetako eta jaiegunetako ordutegiak zabaltzen ditu. (EH Bilduko 41)

83. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio berehala martxan jar dezala 17/2008 Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako Legearen 20. eta 21. artikuluetan, gutxiegi erabilitako nekazaritza-lurrei buruzkoetan, jasotakoa, lur horiek nekazaritza-jardunean lanpostuak sortzeko izan daitezten, azpiegiturak galdu dituzten nekazariei, gazteei, emakumei eta nekazaritza ekologikoa sustatzen dutenei lehentasuna emanez. (EH Bilduko 43)

84. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bizkortu ditzala enpleguaren aldeko aurrez aurreko programa bat egiteko lanak, helburu hauek izango dituztenak, besteak beste: gazteen enplegua erraztea, egoera ahulenean bizi diren pertsonen integrazio soziala bultzatzea, ekintzaitza eta autoenplegua erraztea eta inbertsio pribatua aktibatzea, eta obra intentsiboak enplegua sortzerakoan. (EA-NVko 1)

85. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eta gaiarekin zerikusia duten gainerako erakundeei eskatzen die elkarrekin jardun dezatela bai lan-munduan sartzeko eta enplegarritasuna sustatzeko jardura-programetan, bereziki gazteei begira, bai bokazio integratzailea eta herri-ikuspegia duten planak definitzean. (EA-NVko 2)

86. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio gara dezala enplegurako estrategia bat, hainbat urtekoa, lehentasunezko jardura-ildoan artean helburu hauek izango dituenak, enpresa txikien eta ertainen eta autonomoen finantziarioan eta laguntzan: ekintzaitza, gazteen enplegua sustatzea, eta inbertsio publikoak egitea gizarte-izaerako azpiegitura publikoak mantentzeko eta hobetzeko lanetan, baldin eta inbertsioa eta enplegu-sortzea sustatzen badute. (EA-NVko 3)

87. Eusko Legebiltzarrak instituzio publikoei eta eragile ekonomiko eta sozialei eskatzen die elkarriketaren kulturak, negoziozko kolektiboak eta kontzertazio sozialak lehentasunezko helburu izan dezatela enplegua mantentzea. (EA-NVko 4)

88. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio berehala jar dezala abian enpleguaren aldeko aurrez aurreko plan bat, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuetan berariaz identifikatuko dena. (EA-NVko 5)

89. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio abian jar dezala suspertze ekonomikorako plan bat inbertsioan, berrikuntzan eta nazioartekotzean oinarritua, enpleguaren aldeko aurrez aurreko plan baten osagarri izango dena eta epe ertainean Euskadin enplegua finkatzen eta berreskuratzen lagunduko duena. (EA-NVko 6)

90. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio eska dezala, Gernikako Autonomia Estatutuan jasota dagoenaren ildoan, enplegu-politika pasiboaren kudeaketaren transferentzia, egun Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren eskumena dena, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioan, langabeziari dagozkion prestazioak eta subsidioak kudeatzeko. (EA-NVko 7)

91. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lan egin dezala, eragile ekonomiko eta sozialekin batera, lan-harremanetarako euskal esparrua finkatzeko. Gernikako Autonomia Estatutuan ezarritakoari jarraituz, lan-harremanetarako euskal sistema hura elkarrizketa sozialaren emaitza izango da eta euskal langileen eta enpresen interesen arteko oreka erraztuko du. (EA-NVko 8)

92. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bultzatzea elkarrizketa soziala eta eragile sozial guztien parte-hartze aktiboa, hartara errekuera daitezen lan-harremanetarako eredu baten oinarriak. Oinarri horiek, tresna arautzaile egonkorak edukitzeaz batera, bidea eman behar baitute bateragarri egiteko, batetik, langileen segurtasuna eta laneko baldintza duinei eustetik datorren gizarte-kohesioa eta, bestetik, enpresen beharrak, malgutasun negoziatuko tresnak erabili metodo nagusi gisa, betiere saihestuz, ahal den neurrian, autonomia kolektibotik kanpoko instantzietara jotzea, haiek azkenean kanpoko irtenbideak inposa baititzakete, gatazkan ari diren aldeei ez dagozkien soluzioak. (EA-NVko 9)

93. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bultzatzea langileek enpresetan parte hartzea lehiakortasuna eta inplikazioa hobetzeko bide gisa. (EA-NVko 11)

94. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio indartu eta abian jar ditzala gazteentzako berariazko plan eta programak, enplegurako prestakuntzaren, ekintzailetzaren edo bestelako bide berritzaileen bitartez.

Hori aurrera eramateko, kontuan hartu eta zehaztu egin beharko dira arlo horretako europar estrategiatik sortutako gomendioak, ildoak eta deialdiak, eta aintzat hartu Enpleguaren Euskal Estrategia 2011-2014. (EA-NVko 13)

95. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio identifika, azter eta susta ditzala enpresa txiki eta ertainak zein ekintzailetzako proiektuak finantzatzeko formulak. (EA-NVko 14)

96. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio inplementa ditzala bultzatzen diren ekimen guztiak etengabe ebaluatzeko mekanismoak, enpleguaren arloan egiten diren ekimen, plan eta programen inpaktua ebaluatzeko irizpideak emanez eta metodologiak definituz. Hartarako, erreferentziatzen hartuko da Europak 2014-2020 estrategiaren markoan agindutako guztia, eta lehenetsia emango zaie enplegua sortzen eta pertsonen enplegarritasuna hobetzen zuzeneko eraginik handiena dutenei. (EA-NVko 15)

97. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ekimenak bultzatzea gazteei Euskadira itzultzea errazteko, beren prestakuntza, esperientzia eta egiten jakitea bertan erabil ditzaten. (EA-NVko 16)

98. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio berariazko programak egin ditzala gazteak laguntzeko nazioarteko ezarpena duten euskal enpresetan edo Euskadin ere egoitza duten atzerriko enpresetan. Lehenetsunez joko da programa hauek bideratuta egotea etorkizuneko sektoreetara eta, aldi berean, enplegua, balioa eta aberastasuna sortzeko ahalmen handia dutenetara. (EA-NVko 17)

99. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio berariazko neurriak ezar ditzala laneratzeko enpresak eratzten eta mantentzen laguntzeko. (EA-NVko 18)

100. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio indartu dezala enplegu-zentro berezien tratamendua modu espezifikoan eta neurriak ezar ditzala haiek lagundu eta sendotzeko, eta orobat administrazioei eskatu Ezinduek Gizarteratzeko Legea bete dezatela kontratazioei dagokienez. (EA-NVko 19)

101. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bultzatzea enpresari lotutako prestakuntza erraztu, bultzatu eta sustatzen duten ekimenak.

Halaber, eskatzen dio elkarlanean jardun dezatela gaiarekin zerikusia duten sailek, abian jartzen diren planak eta programak definitzeko. (EA-NVko 20)

102. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio berariazko planak bultzatzea egoera txarrean dauden eremuen lurralde-errealitatei begira, inguru bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuz eta inguru hartako eragileen eta entitateen parte-hartzea bultzatuz planak egiterakoan. (EA-NVko 21)

103. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lan egin dezala abian jartzeko inklusio sozial aktiborako estrategia global eta integratzaile bat. Plangintza estrategikoak sailen arteko ikuspegia izan behar du, barruan bilduz sektoreko erakunde, entitate eta kolektiboak. (EA-NVko 22)

104. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio estrategia global bat egin dezala ekintzailetzako heziketa, kultura eta jardura bultzatzeko, zerbitzu eta ondasun berri batzuk sor daitezen, era horretan, biztanleriaren ongizatea hobetuko dutenak eta jardura ekonomikoa eragingo dutenak lanpostuak sortzen eta herria hazten lagunduz. (EA-NVko 24)

105. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio lan egin dezala Euskadiren irudia finkatzen lurralde ekintzaile gisa, enpresa berriak sortzeko erakargarria, irekia, berritzailea eta munduko eskualderik ekintzaileenekin lotuta dagoena. (EA-NVko 25)

106. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio eragin dezala euskal gizartean sentsibilizazio handi bat espiritu ekintzailearen alde eta pertsona ekintzaileei laguntzearen alde, azpimarratuz ekintzaileen bidez aberastasuna eta enplegua sortzeko duen garrantzia gizarte arrakastatsu eta solidario batean. (EA-NVko 27)



3. Eranskina: EGABen txosteneko ekarpenak Enplegu Plan honetan jasotzea



Banan bana jasoko ditugu hemen, kapitulu bereiz batean, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostenak dakartzan ekarpen eta iradokizunik nabarmenenak, bai eta haiek Enplegu Planean jasotzeko Jaurlaritzak egindako proposamenak ere.

EGABen 1. EKARPENA

Oso ongi deritzogu zuen proposamenari buruz kontsultatzeari, baina garbi esan behar dugu, halaber, gizarte-eragileekin ez dela behar besteko elkarrizketarik egon. Eragileok funtsezkoak dira Plana martxan jartzeko, Planean bertan aitortzen denez "Gizarte-elkarrizketa eta -kohesioa" hartzen duenean Enpleguaren aldeko Politika Aktiboan zutabetzat, eta, are gehiago, kontuan harturik Legebiltzarrak berak behin eta berriz nabarmendu duela gizarte-hitzarmena oinarritzakoa dela enpleguari eutsiko bazaio.

EGABen EKARPENA JASOTZEKO JAURLARITZAREN PROPOSAMENA

Gizarte-politiketan (enpleguari buruzkoetan, besteak beste) gizarte-hitzarmenak duen garrantziari dagokionez, bat gatz EGABen iritziekin. Eta, hain zuzen ere, gizarte-eragileek Lanbideren (Euskal Enplegu Zerbitzua) Administrazio Kontseiluan parte hartu izanak argi eta garbi erakusten du dagoeneko printzipio hori aplikatzen ari garela. Printzipio hori aintzat harturik, Enplegua Sustatzeko 2013-2016 aldirako Planari buruz Jaurlaritzak 2013ko martxoan aurkeztutako zirriborroa, hain zuzen, "ekarpenak egiteko lan-dokumentu" modura aurkeztu zen. Horregatik, martxoan bertan dokumentu hura bidali zitzaien ekonomia- eta gizarte-eragileei, eta eztabaidatu ere luze eztabaidatu dugu hari buruz, hilabeteotan guztiotan zehar eragile horiekin egindako bileretan.

Egoeraren larritasunak, baina, lehenbailehen esku hartzea eta adostasunak lortzea, biak ala biak estu uztartzea eskatzen zuen. Horrenbestez, adostasun hori lortzearekin batera, lehendabiziko proposamenean adierazitako ekimenak pixkanaka ezarri ditu Jaurlaritzak eta akordioen ondorioz sortutako ekimenak ere gehitu ditu.

Nolanahi ere, gizarte-eragileekin hitzarmenak egitea enplegua lortzeko oinarritzakoa dela badakigun arren, eraginkortasun- nahiz aurrekontu-arrazoiak direla tarteko Planean jaso gabe gelditutako alderdiak Urteko Planen bitartez edo zenbait ekimen abiaraziz uztartzeko konpromisoa ere badu Jaurlaritzak.

Zehatz esatera, Plana sustatzeko eta koordinatzeko ardua duen Sailarteko Batzordeak bere gain hartu zuen Euskadiko EGABekin etengabe harremanetan egoteko konpromisoa, Planaren elkarrekin ebaluatu, jarraipena elkarrekin egin eta hobetzeko. Parte hartzeko mekanismo horiek berak erabiliko dira inplementazio-, jarraipen- eta ebaluazio-faseetan.

EGABen 2. EKARPENA

Enpleguarekin lotutako ekimenez jositako urte bati buru ematen dio Plan honek; tartean izan dira, besteak beste, martxoan abiarazitako "Enplegua Sustatzeko Programa" eta auzi horri buruz Eusko Legebiltzarrak proposatutako 100 neurriak, bai eta enpleguari, ekintzailetzari eta abarri buruzko erakundearteko beste zenbait akordio ere. Ekimen horiek guztiak uztartzeko baliabideak ere abian dira honezkero, eta hori, jakina, oso positibotzat jotzen dugu; baina, edonola ere, kontuz ibiltzea ere komeni da, planak, programak, proposamenak eta abar ugaritu ez daitezen, horrek ez baitu batere eragin onik izaten lan-merkatuan, eta herritarrak nahastean baizik ez baitu lortzen.

EGABen EKARPENA JASOTZEKO JAURLARITZAREN PROPOSAMENA

Plan honek ez du xede lehendik dauden eta gauzatu diren estrategiak ordezkatzeko –esaterako, Enpleguaren Euskal Estrategia, bere baitan hartzen dituena Eusko Legebiltzarrean eztabaidatu eta onetsitako hausnarketak–, baizik eta haiek zehaztea eta epe laburrean eragina izango duten neurri zehatzen bidez hausnarketa horiei erantzutea.

Jaurlaritzak badaki enpleguari buruzko Plan espezifiko bat egitea beharrezkoa dela. Dena dela, arazo horren konponbideari dagokionez, bat gatoz EGABekin: ekonomia suspertzeko politika estrukturalak ezinbestekoak dira, epe ertain eta luzean hazkundera bermatu eta horrek enplegua sortzea ekarriko badu. Egiturazko politika horiek –inbertsioa, berrikuntza, nazioartekotzea eta industrializazioa– osatuko dute Ekonomia Suspertzeko Estrategia, Enplegu Plan honen osagarri izango dena.

Plan honek "enplegu gehiago" lortzea du helburu, baina enplegurako EAeko politikak, orain arte bezala, beste helburu osagarri batzuk izan behar ditu, hura bezain garrantzitsuak baitira:

- ENPLEGU HOBEA. Kalitatezko enplegua sustatzeko.
- BERDINTASUN HANDIAGOA. Desberdintasunak desagerraraztea, laneratzean eta lan-baldintzetan, gizarteko kolektibo guztiei dagokienez.
- KUDEAKETA HOBEA. Enpleguaren alorreko zerbitzuak eta programak modu eraginkorragoan eta efizienteagoan kudeatzea.

Helburu osagarri horiek guztiak lortzearen, zenbait baliabide abian ditugu dagoneko: Lanbideren Plan Estrategikoa eta Enpleguaren Euskal Legea izango dena, esate baterako.

EGABen 3. EKARPENA

Hasieran "Enplegua Sustatzeko Programa" deitu ziotenaren eta orain aurkezten den Planaren artean zenbait desberdintasun nahasgarri aurkitzen ditugu. Biak alderatzen hasita, badirudi orain aztergai dugun Enplegu Plan hau Sustapen Programarekin baizik ez ote datorren bat; aldeak, baina, oso nabarmenak dira: Enplegu Plana gauzatzeko diru gutxiago dago orain, eta partida gehienek inklusioa eta tokian tokiko garapena lortzea dute helburu, baina ez, ordea, ekonomiari eta enpleguari berehala eragiteko moduko ardatzak sustatzea.

EGABen EKARPENA JASOTZEKO JAURLARITZAREN PROPOSAMENA

EGABek aztergai hartutako Enplegu Plana joan den martxoan aurkeztutako "Enplegua Sustatzeko Programa" deritzonari buruz egindako ekarpen guztien emaitza da. Ekarpenerok, zehatz esatera, alderdi hauekin daude lotuta:

- Joan den 2013ko maiatzaren 3an Lehendakarietan bildutako Ekonomia eta Enplegua Sustatzeko Erakundearteko Mahaia. Hartan, lehendakariak, hiru diputatu nagusiek eta Eudeleko presidentek hartu zuten parte, eta elkarrekin lanean jardutea erabaki zuten, Ekonomia Sustatzeko Aparteko Plana diseinatzeko eta gauzatzeko, Enpleguari buruzko Tokiko eta Eskualdeko Planak martxan jarzeko eta Ekintzaitzaren Euskal Funtsa abiarazteko.
- Horretarako, 2013ko uztailaren 2an, Euskal Ekintzaitza Sistema garatzea xede duen lankidetzarako esparru-akordio bat sinatu zen, EAeko gizartearen ahalmen ekintzailea modu eraginkorrean eta efizientean sustatzeko eta bultzatzeko. Esparru-akordio hori garatu eta zabaldu egingo da, hain zuzen, etorkizunean sortuko den Ekintzaitzaren EAeko Planaren bidez.
- 2013ko irailaren 16an EAJ-PNV eta PSE-EE (PSOE) alderdiek sinatutako akordioa, Euskadi modernoagoa, solidarioagoa, jasangarriagoa eta lehiakoragoa lortzeko.

Nolanahi ere, enpleguari buruzko Plana baliabide ireki eta malgua da. Exekuzioaldian jasotako ekarpen guztiak aztertuko eta ebaluatuko dira, Jaurlaritzaren nahia baita hasieran onartutako Plana aberasten dituzten ekarpen guztiak hartan txertatzea.

EGABen 4. EKARPENA

EGABen ustez, Enplegu Planak argi uzten du beharrezkoa dela plangintza estrategikoko beste politika eta esparru batzuen artean koherentziaz jokatzea, baina, esaten duen hori gorabehera, koordinazioa itxurakoa baino ez da, zenbait neurri aipatu bai baina haien garapenerako ardatz praktikorik ez baita zehazten. Hala, immigrazio-planak, familiak babestekoak, berdintasuna bultzatzekoak, gizarte-zerbitzuak indartzekoak... horiek guztiak aipatzen dira, bai, baina zehaztu ez da zehazten hori guztia nola gauzatuko den.

EGABen EKARPENA JASOTZEKO JAURLARITZAREN PROPOSAMENA

Proposatutako Planean sei Programa Operatibo ageri dira: zeharkako lau (1- ETEen sustapena eta Tokiko Garapena, 2- Ekintzaitzaren sustapena, 4- Enplegu-prestakuntza eta 6- RENOVE birgaikuntza), eta kolektibo jakinekin lotutako bi (3- Gazteen Enpleguaren sustapena. Gazte Bermea eta 5- Enplegu inklusiboa. Enpleguarekiko solidaritatea).

Planean trataera espezifiko eskaintzen zaie gazteei, Programa Operatiboetara eta Ardatzei dagokienez, gazteena baita langabezia-tasa handiena duen kolektiboa. Jardunbide espezifiko horren premiari heltzen dio, gainera, zenbait erakundek, hala nola Europako Komisioak, Europako Parlamentuak, Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordeak eta Eskualdeen Komisioak, 2011ko abenduaren 20an igorritako "Gazteentzako Aukeren aldeko Ekimena" izeneko komunikazioak, bai eta Europako Kontseiluak 2013ko otsailaren 7an eta 8an onartutako Gazteen Enpleguaren aldeko Ekimenak ere.

5. Programa Operatiboak, "Enplegu inklusiboa. Enpleguarekiko solidaritatea" izenekoak, gure lan-merkatuko beste zenbait talde zaugarri hartzen ditu ardatz. Programa Operatibo horren aurkezpen-orrietan esaten denez, "kolektibo horiek aparteko zailtasunak dauzkate enplegua lortzeko, eta beraz, pertsona horiengana iritsi nahi du batez ere Plan honek, bertan lantzen diren programa operatiboek haien alde egin dezaten".

Programa operatibo horren ardatzetan xehetasun gehiago ematen dira, eta aipatu ere aipatzen da 5.1 ardatzean "Enplegu-planak tokiko eta eskualdeko esparruan" izenekoaren 5.1 ardatzean eta (Toki eta eskualde mailako enplegu planak) eta 5.2 ardatzean (Kontratuzko beste pizgarri batzuk) ageri diren ekimenek bereziki zaugarriak diren eta enplegua lortzeko zailtasun handiak dituzten beste kolektibo batzuk dituztela xede: luzaroko langabeak, gazteak, desgaitasunak dituztenak... Horiek ere berriazko laguntza behar dute laneratzeko, eta horrelako programen onuradunak izan daitezke.

Bide horrix jarraitzen dio 5.3- Baztertuta geratzeko arriskuan daudenak gaitzea eta laneratzeko laguntzea.

Nolanahi ere, oso kontuan hartzen ditugu EGABen aholkuak, eta alde horretatik, immigrazioari, familien babesari, berdintasunari, gizarte-zerbitzuei eta abarri buruzko sektorekako Planetan enpleguaren arazoari helduko diogu, eta plan horiek guztiak Enplegu Plan honekin bat etor daitezten saiatuko gara.

EGABen 5. EKARPENA

Gure ustez, Hezkuntza Sailak Plan honetan izandako parte-hartze eskasa ez da batere egokia; are gehiago kontuan hartuta Plan hau beste zenbait ekimenekin batera abiarazi nahi dela, hala nola Lanbide Heziketarako Legearekin, Bizialdi osorako ikaskuntzari buruzko Legearekin eta 2014-2016rako Lanbide Heziketako IV. Euskal Planarekin.

EGABen EKARPENA JASOTZEKO JAURLARITZAREN PROPOSAMENA

Esparru eta programa operatiboetan inplikatur dauden Jaurlaritzako hainbat sailtako 50 lagunen baino gehiagoren parte-hartzearen ondorio izan da Enplegu Plan hau. Lehendakartzaren Idazkaritzak koordinatu ditu parte hartu duten pertsona horiek guztiak, lanbatzorde baten bidez. Batzorde horretan, Lehendakartzaz gain, honako hauek aritu dira lanean; Ogasun eta Finantza Saila, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila, eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Bestalde, Osasun Sailak eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ere parte hartu dute, batik bat.

Berrir esan beharra dago Enplegu Lan hau "txokeko" baliabidetzat dugula, eta beraz, ezinbestekoa dela Plana beste politika batzuekin bat etortzea, hala nola ekonomia sustatzea helburu dutenekin (enplegua lortzeko aukerak areagotzea ardatz duten aldetik), hezkuntza eta prestakuntza xede dutenekin (aipaturiko aukera horiek Euskadiko biztanleria aktiboak aprobetxa ditzan) eta gizarte-politikekin (zenbait printzipiori jarraituz: Enpresa Erantzukizun Soziala eta enplegua, ekonomia soziala sustatzea...).

Legealdi honetarako Jaurlaritzak diseinatutako plangintza estrategikoak neurri horiek guztiak jasotzen ditu, eta EGABen gomendioei jarraituz, plangintza horren garapenean enplegua oinarritzko erreferentzia izango da.

EGABen 6. EKARPENA

Planak ideia hau nabarmentzen du behin eta berriz: "Egungo krisi ekonomikoari irtenbidea emateko eta enplegua berreskuratzeko, ezinbestekoa dela aurrekontu-austeritateko politikaren eta suspertze-politikaren arteko orekari behar bezala eustea, jarduera ekonomikoa sustatzeko eta enplegua sor dadin bultzatzeko". Gure iritziz, gaur egungo egoera aldatuko bada, beharrezkoa izango da inbertsio publikoa areagotzea helburu duten politika antiziklikoen bitartez sustatzea ekonomia, eta aurrekontu-politika ere horretan ardaztea.

Onartu beharra dago, eta halaxe egin dugu, enplegua, neurri batean bederen, jarduera ekonomikoaren ondorio dela, eta langabezia-tasek behera egingo dutela BPGa behar beste igotzen denean. Beraz, ezinbestekoa da produkzio-sarearen lehiakortasuna hobetzea. Hala ere, gure ustez, beharrezkoa da orobat sektore publikoak beste pizgarri batzuk martxan jartzea, enpresa-erabakiek beren kabuz arazoak konponduko dituztela pentsatzea ez baita aski.

Maiz ahaztu egiten da zeinen garrantzi handikoa den enplegu publikoa, baina kontua da politika publikoen bitartez kontratazioa bultzatzeak eragin ezin hobekak izan ditzakeela enpleguan. Era berean, enplegua sortzeko baliabidetzat inbertsio publikoak izan dezakeen garrantzia ez da behar beste azpimarratzen, eta hala, legeak eta hitzarmen kolektiboek zer agintzen duten, diru-laguntzak horren arabera ematen dira.

EGABen EKARPENA JASOTZEKO JAURLARITZAREN PROPOSAMENA

Enplegua neurri batean jarduera ekonomikoaren eta BPGaren hazkundearen ondorio izateari dagokionez, Jaurlaritza bat dator EGABekin.

Jakin badakigu behar-beharrezkoa dela Enplegu Planean aipatu eta epe laburrean eragina izango duten neurriak estu uztartzea ekonomia suspertzeko egiturako politika osagarriekin, epe ertain eta luzean hazkunde ekonomikoa egon dadin, eta horrek, jakina, enplegua sor dezan.

Egiturazko politika horiek –inbertsioa, berrikuntza, nazioartekotzea eta industrializazioa– osatuko dute Ekonomia Suspertzeko Estrategia, Enplegu Plan honen osagarri izango dena.

EGABen txostenak gogorarazten digunez, oso positibotzat hartu behar dugu, Estatu osoan legez ezarritako aurrekontu-orekari eutsiz betiere, inbertsio publikoak sustatzeko politikek enpleguan izan ohi duten eragina.

Inbertsio publikoen garrantzia gogoan hartuta, eta aurrekontuei dagokienez 2013an zailtasunak izan diren arren, joan den 2013ko irailaren 30ean Eusko Jaurlaritzan eta hiru foru aldundiek

sinatutako Ekonomia eta Enplegua Sustatzeko Erakunde arteko Akordioa garrantzi handikoa izan da, inbertsio publikoari 180 milioi euro gehiago eskaintzen dionez gero.

Ildo horrixek jarraituz, 2014rako onartutako aurrekontuan ere inbertsio publikoek gora egiten dute, Jaurlaritzak eta foru aldundiek sinatutako Erakunde arteko Akordioak jasotzen dituen aparteko inbertsio-proiektuak gauzatuko baititu.

Gainera, Plan hau berez lotuta dago Euskadiko Espezializazio Adimendunerako Ikerketa eta Berrikuntza Estrategiarekin (2020). Horretarako, gure gaitasunak hartu ditugu abiapuntu, lehiarako alde onak zehaztu ditugu eta 2014-2020 epean gure herrialdean enpresa-garapenerako eta berrikuntzarako zer eremurik eta zer sektorek duten lehentasuna zehaztu dugu.

Ekonomia-garapenerako politikak eta enplegu-politikak bat etortzea ezinbestekoa da, eta horren harira, Enplegu Plan honen jarduera-multzo handi bat hazteko aukera duten lehentasuneko eremu horietara bideratuta dago; izan ere, eremu horiek lotura handia dute jarduera berritzaileekin eta nazioartera bideratutako jarduerekin. Baina, horrez gain, tokiko eremuekin eta gizarte-premiekin zerikusi handien duten aukerak baliatzea ere kontuan hartu dugu; izan ere, enplegu-hobiak dira Gizarte Ongizatearen esparruan, gizarteratzea eta ingurumenarekiko errespetua xede dutenak.

EGABen 7. EKARPENA

Planaren egiturari dagokionez, eduki gehiena azalpenezkoa eta deskribapenezkoa dela nabarmena da, eta argi esan behar dugu bertan nagusi diren ikuspegi teorikoekin ez gatozela bat. Hala eta guztiz ere, ez dugu uste esku artean dugun hau Aparteko Plan bat denik, ez neurriei dagokienez, ez horretan erabiliko diren baliabideei dagokienez, nahiz eta gaur egungo egoeran halako zerbaiten premia egon badagoen, gure iritziz.

EGABen EKARPENA JASOTZEKO JAURLARITZAREN PROPOSAMENA

Plan hau gauzatzen den aldirako aurrekontuetako baliabide arruntak indartzeari dagokionez, bat gatz EGABen ekarpenarekin. Horregatik, hain zuzen, kofinantziazio pribatuaren beharra ere jasoko du Planak (esate baterako, entitate espezializatuen finantziazioaren bitartez ekintzaile berriei mikrokredituak emateko planak, eta interes-tasa baxuagoak lortzeko ekintzaile berrientzako Jaurlaritzaren laguntzak).

Gainera, finantziazio hori osatzeko, Europako Funtsetako partidak erabiliko dira, gazte-enpleguko programak, ekintzailetza, prestakuntza eta behar gehien dituzten kolektiboen eta pertsonen laneratzea sustatzeko, autonomia-erkidegoen esku jartzen direnak. Horren haritik, Enplegu Plana indarrean dagoen artean, garrantzitsua da Europako erakundeetatik etortitako funtsen banaketa- eta kudeaketa-tresnen jarraipena egitea, azkenean langabeziari aurre egiteko antola daitezkeen. Bereziki, gazte-langabeziari aurre egiteko 2014-2020 Europako Gizarte Funtse berriak hartuko diren neurriak, Gazte Enplegua 2014-2020ri buruzko ekimen berriak indartua.

Azkenik, gogoratu beharra dago Jaurlaritzak bere gain hartzen duela zerga-erreformaren ondorioz etor litezkeen aparteko diru-sarrerak orientatzeko konpromiso politikoa, enplegua eta ekonomia sustatzeko ekimenak eta programak bultzatze aldera.

EGABen 8. EKARPENA

Gure ustez, propositibotasunari dagokionez, jardunbide-ardatzetako sei eskas samarrak dira, eta haietako bakoitzak partzialki enplegua sortzeko balio badu ere, ez da egonkortasunaren aldeko apusturik egiten. Gainera, ardatz eta programa horiek guztiek elkarrekikotasun handiagoa izan beharko lukete Planean bertan proposatutako xedeekin, eta xedeok, aldi berean, eraginkortasun handiagoz egin beharko liekete aurre detektatutako ahuldade eta mehatxuei.

Garatu beharreko jardunbideak deskribatzen dira, bai eta erakundeei eta parte-hartzeari dagozkien formulak ere. Eskura ditugun baliabide ekonomikoak ere zehazten dira, bai eta zer eragin espero diren ere, eta Planaren kudeaketa-eredua ere bai, jarraipen- eta ebaluazio-sistema azaltzeaz batera. Oro har, baina, neurriok guztiok bat datoz beste programa, lege, arau nahiz aurrekontu batzuetan jasotakoekin. Horren guztiaren ondorioz, zenbait sailetan garatutako politiken bilduma moduko bat bihurtzen da Plan hau. Gure iritziz, ordea, enplegua sustatzeko egiturazko politikak indartzean ardaztu behar da ezein Enplegu Plan, eta ez dagoeneko garatuak edo programatuak dauden jardunbideen bildumatxo bat proposatzean.

EGABen EKARPENA JASOTZEKO JAURLARITZAREN PROPOSAMENA

"Enplegu gehiago" eta "Enplegarritasun handiagoa" lortzea, horixe da, gure ustez, Enplegu Planean jasotako programa operatibo, ardatz eta ekimenen helburu behinena. Alde horretatik, bistan da Plan hau zenbait sailen artean eginga dela, eta goraxeago aipatutako helburu hori lortzearen sail horiek gure eskura jarritako baliabideak ordenatzea eta uztartzea duela helburu. Dena dela, jardunbide horri ez diogu kritikagarri irizten, nahiz eta geuk ere beharrezkotzat jotzen dugun dagoeneko garatzen hasiak dauden ekimenak beste batzuekin uztartzea, enplegua eta enplegarritasuna errazte aldera.

Horri dagokionez, eta EGABen gomendioa aintzat harturik, Plan honek, "ohiz kanpoko" den aldetik, lehendik zeuden programak eta 2013an abiarazi diren berri batzuk eguneratzea aurreikusten du, arrakastatsuak izan baitira, eta, gainera, 2014ko aurrekontuetan onartutako programa berriak ere abiaraziko ditu. Egokitzapen- eta malgutasun-filosofia horixe helduko zaio, beraz, Plan hau indarrean dagoen bitartean, eta hortaz, EGABek egindako gomendioak urteroko Jardunbide Planetan hezurmamituz joango dira, eta horretan, aurrekontuak eta helburuak ere zehatz-mehatz egokituko ditugu.

EGABen 9. EKARPENA

Baliabide ekonomikoei dagokienez, 2013-2016 epealdirako 3.315 milioi euroko aurrekontua aurreikusten zen arren, Jaurlaritzak datozen lau urteetan aurrekontuan egingo duen ahalegina 960 milioi eurokoa izango da (guztizkoaren % 28,9); hau da, urtean 240 milioi euro, batez beste (urteko aurreikuspen eta eraginaren xehetasunik ez dugu, hala ere). Gainerako % 71,1a, "*erabilitako kanpo-baliabideak*" deritzenak, zertan erabiliko den zehatz-mehatz azaldu beharko litzateke, asmo hutsen kontakizuna egin nahi ez bada, behintzat.

Aurrekontu horren banakapenak, gainera, garbi uzten du ez dagoela egiaz asmorik zenbait jardunbide indartzeko, hala nola enplegurako prestakuntza, enpresa txiki eta ertainen finantziarioa eta inbertsio publikoa.

Beste alde batetik, hemen ere, baliabideen eta esperotako eraginaren anualizazioan gertatzen zen bezala, ez da argi geratzen lurraldeen arabera (Lurralde Historikoen arabera, behinik behin) baliabideak nola banatuko diren nahiz eta azalpenetan behin eta berriz aipatzen den Jaurlaritzak, foru aldundiek eta EUDELeK hitzartutako "Ekonomia eta Enplegua Sustatzeko Erakunde arteko Akordioa"; horrekin batera, dagoeneko bidean diren hamaika "plan estrategiko" ere aipatzen dira, baina horietako gehienak lurraldeka zehaztu behar dira, foru aldundien eta tokian tokiko udalen parte-hartzearekin.

EGABen EKARPENA JASOTZEKO JAURLARITZAREN PROPOSAMENA

EGABen gomendioa aintzat harturik, Enplegu Plana eguneratzeko formulazioari ekin zaio, eta hala, legealdiko lau urteotarako ezarrita zegoen 960 milioi euroko aurrekontua igo eta 2013-2016 epealdirako, zenbait programa zabaltzeaz batera, 1.004 milioi euroko inguruko aurrekontua onartu dugu. Horietatik, 229 milioi 2013ko burutze-aurreikuspenari dagozkio, eta 775 2014-2016 Enplegu Planaren aurrekontuari.

Gainera, inbertsio horrek baliabide pribatu ugari ere baliatuko dituela kalkulaten da, eta horietatik hauek nabarmenduko ditugu:

- Mailegu pribatuak eta finantza-erakundeetako eta beste finantza-tresna batzuetako abalak.
- Mikrokreditu-erakundeek emandako finantziazio zenbatetsia.
- Etxebizitzak birgaitzeko inbertsio pribatua, horretarako ematen diren laguntza publikoen sustapena erabiliz.

Bistan denez, inbertsio pribatuari buruzko kalkulu hori proiektzioen bitartez egin da.

Baliabideak lurraldeen arabera banatzeko gomendioari dagokionez, ahalegin berezia egin dugu programak lurraldeka antolatzeko; batez ere, beste erakunde batzuekin batera abiarazitako jardunbideei dagokienez (esate baterako, Bizkaiko DEMA programari eta Enpresa eta Berrikuntza Zentroei emango zaizkien laguntzei dagokienez). Beste kasu batzuetan bide berari jarraituko diogu: Enplegua Sustatzeko Tokiko Jardunbideetan, esate baterako; horretan, izan ere, eskualde eta udaletako langabezia-bolumenaren arabera aurreikusita dago lurralde-banaketa. Dena dela, zeharkako beste programa eta ekimen batzuei dagokienez (enpresa txiki eta ertainen babesean eta enpresa berriak sortzeko laguntzetan, adibidez), zaila da "a priori" ezer egitea.

Hala ere, EGABen gomendioa aintzat hartuko dugu, eta alde horretatik, Jaurlaritza gogor saiaturiko da lurraldeka antola daitezkeen ahalik eta jardunbide gehienak identifikatzen, urtez urte egin beharreko jarraipen- eta ebaluazio-txostenetan haien berri emateko.

EGABen 10. EKARPENA

Gainera, eraginak neurtzeko adierazleak, oro har, erreferentzia kuantitatibo soilak dira, garatutako jardunbide bakoitzaren helburu zehatzei buruzko informaziorik ematen ez dutenak. Hala, adibidez, "enplegarritasuna gehitzea" deritzonaren eragina jardunbideetako bat izatera murrizten da. Jardunbide horien berriazko edukiei buruz, ordea, ezertxo ere ez dakigu, ez eta haien eta Planean aipatzen diren estrategia gakoien (lehiakortasuna, berrikuntza, nazioartekotzea...) arteko sintoniari buruz ere.

EGABen EKARPENA JASOTZEKO JAURLARITZAREN PROPOSAMENA

Politika publikoen eraginari buruzko ebaluazioa hobetu egin behar da. Horretan bat gatz EGABekin. Alde horretatik, garbi dugu gure erronka dela gardentasunean aurrera egitea eta baliabide publikoak eraginkortasun handiagoz kudeatzea. Ildo horretan aurrera egiteko konpromisoa bere gain hartzen du Jaurlaritzak, bai eta Plana martxan dagoen bitartean abiarazi beharreko programen eraginari buruzko ebaluazio kualitatiboa egin eta zenbait jarraipen-adierazle ezartzekoa ere. Edozein moduz, adierazle kuantitatiboei dagokienez, Estatuko nahiz Europako beste plan batzuekin alderatuta, onartu beharrekoa da gure Enplegu Plana abangoardiakoa dela oso. 2014-2016 epealdirako aurrekontu bat bermatzeko konpromisoa hartzeaz gain, Euskal Enplegu Planak zehatz-mehatz jasotzen ditu lehen exekuzio-urteko emaitzak eta sortutako enplegu-kopuruei dagozkien esperotako adierazleak, epealdi horretan kontsolidatuko diren enpleguak eta, Enplegu Planean bertan prestakuntzarekin lotuta egiten diren ekimenei esker, enplegarritasun-aukerak areagotuko dituzten pertsonen kopuruak nahiz lan-merkatuan sartuko direnenak. Gure Planeko programek eta ardatzek zer emaitza eta

eragin izango dituzten zehatz-mehatz adierazteko konpromisoa hartzen duen aldetik, zintzotasun osoz diogu gurea bezalako Enplegu Planik ez dugula European inon ezagutzen.

EGABen 11. EKARPENA

Hona hemen Enplegu Planaren helburuetako bat: "*Ahalik eta gardentasun handiena lortuko da, herritarren eta gizarte- eta ekonomia-eragileek planaren exekuzioaren bilakaerari eta lortutako emaitzei buruzko informazio iraunkorra izan dezaten*". Gure ustez, hori guztiz nabarmentzeko modukoa da. Hala ere, herritarrei eta eragileei informazioa nola helaraziko zaien inon ez da aipatzen Planaren jarraipen- eta ebaluazio-sisteman.

EGABen EKARPENA JASOTZEKO JAURLARITZAREN PROPOSAMENA

Gomendio honekin bat gatozenez, Enplegu Planaren jarraipena egiteko Sailen arteko Batzordeak bere gain hartzen du aldiro-aldiro Euskadiko EGABekin harremanak izateko konpromisoa, Planaren exekuzioa zertan den kontrastatzeko eta elkarrekin egindako ebaluazioaren ondorioz egin litezkeen hobekuntzak aztertzeko.

Gainera, Planaren inplementazio-, jarraipen- eta ebaluazio-faseetan ahalik eta gardentasun handiena egon dadin bermatuko da

- Planaren esparruan abian jarritako neurriak eta haien bilakaera jakitera emateko. Neurriak Urteko Ekintza Planean gauzatuko dira, eta bertan, berariazko ekimenak, helburu kuantitatiboak eta aurrekontuak agertuko dira.
- Planaren urteko jarraipenari, tarteko eta amaierako edo emaitzen ebaluazioei –lortutako inpaktua zehazteko egiten direnak– buruzko informazioa legebiltzarrari, erakundeei eta euskal gizarteari jakinarazteko.
- Enplegu Plana eta hari buruz urtero egingo den ebaluazioa euskal gizarteari helaraziko zaio, eta horretan, Jaurlaritzaren webguneak erabiliko dira, IREKIA ataria batez ere, Interneten bitartez herritarren eta Administrazioaren arteko komunikazio-bide eraginkor bat sortu dadin.

EGABen 12. EKARPENA

Plan honek onuradun nagusi dituen kolektiboek dagokienez, joan den martxoko Enplegua Sustatzeko Programari nabari zitzaion arazo berbera du Enplegu Plan honek: langabeziari behar besteko garrantzirik ez diola ematen, alegia. Eta, jakina, Lanbiden izena emana dutenen % 90 langabeak dira. Ez dira lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonak (gazteak, adibidez), ez eta baztertuak izateko arriskuan dauden kolektiboak ere. Krisiaren ondorioz lana galdu duten pertsonak dira.

Alde horretatik, harrigarria da 45 urtetik gorako pertsonentzako enplegua sustatzeko programarik ez proposatzea Plan honek, nahiz eta langabezia dauden lagunetatik % 40 izan 45 urtetik gorakoak. Ildo horretan, deigarria da, halaber, ekonomia-jarduera eta enplegua sustatzen duten programek, hala nola enpresa ertain eta txikien finantziarioarekin eta RENOVE deritzenekin lotutakoek, lehen baino diru gutxiago jasotzea. Bestela esanda, lana lortzeko aukera gutxien duten kolektiboak hartzen ditu oinarri Enplegu Plan honek.

Kontua, jakina, ez da bazterketa-arriskuan daudenak abandonatzea. Baina, edonola ere, helburu eta baliabideek oso bestelakoak behar lukete. Euskadiko langabeen % 90ek baino gehiagok ekonomia eta enplegua sustatzeko politika aktibo eraginkorragoak behar ditu. Enplegu Plan honek langabe horiek hartu beharko lituzke onuraduntzat.

25 urtetik beherako gazteei dagokienez, haiek laneratzeko ahalegin itzela proposatzen da, eta horri oso egoki deritzogu. Dena dela, kolektibo horrekin lotutako alderdi espezifiko bati (gazteen kualifikaziorik ezari) ez zaio behar besteko arretarik eskaintzen, ez eta arazo

horri aurre egiteko jardunbiderik diseinatzen ere. 25 urtetik beherako gazteen kualifikaziorik ezaren arazoari, jakina, hezkuntza-sistemaren eta enplegu-sistemaren bitartez egin behar zaio aurre. Izan ere, gazte horietako askoren gabeziak estu lotuta daude Hezkuntza Sistemarekin.

Beste alde batetik, gure ustez, Plan honek nabarmenago azpimarratu beharko luke emakumeek lan-merkatuan duten garrantzia, baina, hala eta guztiz ere, auzi horri ez zaio Planean Ardatzik eta Programarik batere eskaintzen.

Azkenik, oso kontuan hartu beharko litzateke etxetik kanpora lan egiteari uko egin dioten pertsoneri, beren lanaldia murriztu dutenei edo seme-alabak nahiz mendeko pertsonaren bat zaintzearen beren bizitza profesionala utzi eta eszedentzia hartu dutenei (emakumeak, gehien-gehienak) babesa eman behar zaiela. Izan ere, krisiaren ondorioz, pertsona horietako askok lan-merkatura itzuli beharra izan dute.

EGABen EKARPENA JASOTZEKO JAURLARITZAREN PROPOSAMENA

Programa operatibo horizontalez osatutako txokeko plan bat dugu Enplegu Plan hau, langabeen kolektiboan eragin orokor bat lortu nahi duena, krisiaren ondorioz lana galdu duten pertsonengan batez ere, horiek baitira Lanbiden izena emanda dutenen % 90. Pertsona horiei laguntzea hartzen dugu helburu, hain zuzen, eta horretarako, langabeen prestakuntzarako programetan inbertitzeko, ahalegin berezia egingo dugu.

Horrez gain, baina, EGABen gomendioa aintzat hartu eta gogor saiatuko gara premia larrian dauden kolektiboari modu espezifikoan laguntzen, bai eta lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituztenei ere.

45 urtetik gorako pertsoneri dagokienez, hain zuzen, "Enplegurako prestakuntza" izenekoaren 4.1. Ardatzean bada kolektibo hori gogoan hartuta propio diseinatutako erreferentzia bat; honela dio, hitzez hitz: "Zoritarrez, azken urteotan, asko ugaritu dira EAEn lan-harremanak eteteko edo iraungitzeko eskaerak, edo lanaldia murriztekoak, arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolaketa- edo produkzio-arrazoiak direla eta. Iraungitze-espeditenteei dagokienez, kasu askotan espeditente horiek enpresetan ibilbide luzea duten eta gaur egungo abagunean gutxi eskatzen diren gaitasunak dituzten pertsoneri eragiten diete. Horregatik, garrantzitsua da krisian dauden enpresa horietako langileak birkualifikatzeko prozesuak erraztea, eta hartara, haien enplegarritasuna ziurtatzea".

Gazteen langabeziari dagokionez, bat gatz EGABekin: prestakuntzarekin lotutako gabeziak dira horretarako gako nagusiak, gure ustez. Horregatik, horretan ere, "Langabeentzako prestakuntza" izenekoaren 4.1. Ardatzean aipatzen diren jardunbideak aplikagarri gertatzen dira kolektibo horrentzat.

Emakumeen enpleguari dagokionez, "Enplegurako prestakuntza" delakoaren 4.1. Ardatzean lan-merkatura itzuli nahi duten emakumeen arazoa esplizituki aipatzen da: "Halaber, krisi ekonomikoaren ondorioz, aldi baterako merkatutik kanpo egon diren kolektiboak lan-merkatura itzultzen ari dira. Bakarra ez bada ere, agian kolektibo horietako adierazgarriena seme-alabez edo mendeko senideez arduratzeko lan-merkatua utzi zuten pertsonen kolektiboa da – emakumeak gehienbat–, gaur egungo egoera ikusita, etxetik kanpo lan ordaindua behar izanda, atzera "biztanleria aktibo" bihurtu dena. Pertsona horiek, motibazio handiaz gain, enplegurako baliagarriak diren abileziak izaten dituzte; baina, oro har, lanbide-birziklapen garrantzitsua behar izaten dute eremu konkretu eta erabakigarrietan; adibidez, IKTen arloan". Zentzu horretan, 2014. urtetik aurrera kolektibo horri laguntzeko jardunbide espezifikoak jarriko dira abian.

Nolanahi ere, kolektibo eta talde horiekiko konpromisoa al bait argien esplizitatzeko konpromisoa hartzen du Jaurlaritzak, eta alde horretatik, garbi utzi nahi dugu datozen ekitaldietan jardunbide espezifikoak eta diskriminazio positiboak neurriak hartuko ditugula.

EGABen 13. EKARPENA

Batzorde honen iritziz, krisiak bereziki jo du, gorago aipaturiko beste kolektibo batzuekin batera, desgaitasunen bat duten pertsonen kolektiboa. Hala, lehen ere abantaila gutxi zituen kolektibo horrek are abantaila gutxiago ditu gaur egun, prestakuntzari eta lan-merkatuan sartzeko aukerei dagokienez.

Kolektibo horretan, langabezia-tasek nabarmenki egin dute gora, eta hala, pertsona horiek lan-merkatuan "birkokatzea" beharrezkoa denez gero, garbi uler daitezke funtsezkoa dela Plan honetan prestakuntzari eskaintzen zaizkion neurri eta programek kolektibo horretako pertsonak hartzea oinarri, eta horixe bultzatu beharko luke, adibidez, "Enplegurako prestakuntza" izeneko 4. Programa operatiboak.

Era berean, beste gomendio bat ere egin nahiko genuke: kolektibo hori esplizituki aipatzea "Enplegu inklusiboa. Enpleguarekiko solidaritatea" izeneko 5. Programa operatiboko Ardatz bakoitzean; hauetan, zehatz esatera: udal eta eskualdeetako enplegu-planetan; kontrataziorako eta birgaikuntzarako pizgarriak bultzatzeko planetan; bazterketa-arriskuan dauden pertsonak laneratzeko programetan. Izan ere, pertsona horiek beharrezko dute erabateko babesa izatea esparru horietan guztietan, kalitatezko enplegua lortuko badute.

EGABen EKARPENA JASOTZEKO JAURLARITZAREN PROPOSAMENA

Desgaitasunen bat duten pertsonen enplegua lor dezaten saiatu behar gara, eta horretarako babes-neurri espezifikoak hartu behar ditugu. Horretan ere bat gatz EGABek dioenarekin. Planaren zenbait ataletan kolektibo horri laguntzeko jardunbideak aipatzen badira ere, "Enplegu Inklusiboa. Enpleguarekiko solidaritatea" izeneko 5. Programa operatiboko ardatz bakoitzean esplizituki aipatzen da kolektibo hori. Gainera, desgaitasunak dituzten pertsonen laneratzeko sustatzeko, enplegurako zentro bereziak bereziki babestuko dira.

EGABen 14. EKARPENA

Eusko Legebiltzarrak 2013ko martxoaren 8an onartutako ebazpenak aipatzen dituen ildo eta proposamenetan oinarritzen da Enplegu Plan hau. Testua honela osatu beharko litzateke:

"...Denenak diren printzipio horiek oinarri hartuta, Eusko Legebiltzarrak adierazi du Enplegu Planak helburu hauek bete behar dituela, besteak beste:

- Herritar aktiboen, eta bereziki egoera ahulean dauden herritarren laneratzeko eta enplegua bultzatzeko, gazteen egoerari erreparatuta batik bat.
 - Ekintzailatza sustatzea eta enpresa txiki eta ertainei laguntzea.
 - Enpleguan eragin zuzena duten lanetan eta proiektuetan inbertsio publikoa zein pribatua sustatzea.
 - Erakundeen arteko lankidetzak eta arlo publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlana sustatzea, enplegu-suntsiketa arintze aldera.
 - Lan-baldintzak hobetzea eta kontratazioen alorrean iruzurraren aurkako borroka egitea.
- Horrez gain, jarduera-ardatz hauek adierazi nahi ditugu, Legebiltzarraren proposamenak gauzatzeko bitarteko komunak baitira:*
- Enpresa txiki eta ertainak finantzatzeko laguntzea.
 - Gure udalerrien eta eskualdeen gaitasun endogenoak baliatzea.
 - Ekintzailatza eta autoenplegua.
 - Gazteen enplegua sustatzea.
 - Enplegurako prestakuntza.
 - Enplegua sortzeko inbertsioa.
 - 50 urtetik gorakoak.
 - Lan-baldintzak hobetzeko borroka.
 - Lana, bizitza pertsonala eta familia bateragarri egitea.
 - Emakumeen enplegua.

- Lan-ikuskaritzaren plan espezifikoa

EGABen EKARPENA JASOTZEKO JAURLARITZAREN PROPOSAMENA

Ez daukagu inolako eragozpenik ekarpen hori gure Planean jasotzeko, baina, edonola ere, proposamenak plano desberdinetan aztertu eta jaso behar direla iruditzen zaigu. Zenbait ekimenez, hala nola gazteen artean ekintzailatza babesteko programa bat abiarazteak, edo Tokiko eta Eskualdeetako Enplegu Planak garatzeak, edo tokiko ekonomia eta enpresa ertain eta txikiak babesteak, eragin zehatza dute eta horietan emaitzarik lortu ote den erraz jakin daiteke (enplegua sortu duten ikustea besterik ez baitago), eta beraz, ez dute zerikusirik batere lan-ikuskaritzarekin lotuago dauden beste ekimen batzuekin, hala nola "lan-baldintzak hobetzea eta kontratazioen alorrean iruzurraren aurkako borroka egitea" delakoarekin, edo "lan-baldintzak hobetzeko borroka" delakoarekin, edo "lan-ikuskaritzaren plan espezifikoa" delakoarekin, horiek Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailean landutako baliabide espezifikoen bitartez garatuko baitira.

EGABen 15. EKARPENA

Sarrerari dagokionez, Plan honek zenbait ahuldade onartzen ditu, baina gero aipatu ere ez ditu egiten ez helburuetan, ez jardunbide-ardatzetan, ez programa operatiboetan.

EGABen EKARPENA JASOTZEKO JAURLARITZAREN PROPOSAMENA

Enplegu Planaren sarreran aipatzen dira lan-merkatuak zer ahuldade estruktural dituen, eta alde horretatik, garbi uzten da beharrezkoa dela zenbait baliabide eta plan estrategiko martxan jartzea, Euskadiko (eta Estatu) lurralde- eta eskumen-esparrutik kanpora. Horren eragina, baina, epe ertainean baino ezingo da ebaluatu. Dena dela, ondo ulertzen dugu EGABen kezka, eta haren gomendioa oso kontuan hartuko dugu Eusko Jaurlaritzak legealdi honetan bertan lan-merkatua hobetzeko abiaraziko dituen plan estrategikoetan.

EGABen 16. EKARPENA

Testua honela osatzea proposatzen da:

"Plan honek "enplegu gehiago" lortzea du helburu, baina enplegurako EAEko politikak, orain arte bezala, beste helburu osagarri batzuk izan behar ditu, hura bezain garrantzitsuak baitira:

- *ENPLEGU HOBEA = Kalitate oneko enplegua sustatzea.*
- *BERDINTASUN HANDIAGOA = Desberdintasunak desagerraraztea, laneratzean eta lan-baldintzetan, gizarteko kolektibo guztiei dagokienez.*
- *KUDEAKETA HOBEA = Enpleguaren alorreko zerbitzuak eta programak modu eraginkorragoan eta efizienteagoan kudeatzea..."*

Gainera, jarduera-ildo adierazgarrienak nabarmentzean, aukerak hautemateari eta premiei aurrea hartzeari buruzko testua honela osatzea proposatzen dugu:

- *"AUKERAK HAUTEMATEA ETA PREMIEI AURREA HARTZEA. Euskal Autonomia Erkidegoko pertsonen eta enpresen prestakuntza- zein enplegu-premiak hautematera eta garatzen ari diren sektoretako enplegu-aukera hautematera bideratutako jarduerak. Horrez gain, EAEko enpleguan eragina izan dezaketen nazio- zein nazioarte-mailako joerak ere identifikatu behar dira, bai eta beste eskualde batzuetan garatzen dituzten jardunbide egokiak ere. Bestalde, eskuratutako ezagutza hedatu egin behar da gure lan-merkatuan eragina duten ekonomia- eta gizarte-eragileen artean".*

EGABen EKARPENA JASOTZEKO JAURLARITZAREN PROPOSAMENA

EGABen proposamena onartu eta Enplegu Planean jasoko da.

EGABen 17. EKARPENA

5. printzipioak hauxe ezartzen du:

*"5. **Gizarte-eragileen arteko elkarrizketaren eta etengabeko negoziazioaren kulturak erabakigarria izan behar du EAEn enpleguari eusteko eta lanpostu berriak sortzeko, eta EAeko gizartearen kohesioa lortzeko, gizarte guztiaren premiei erantzun ahal izateko**".*

Gure iritziz, printzipio hori ez da inon zehazten, ez jardunbideetan, ez eta Planaren ezein gobernagarritasun-metodotan ere.

Gainera, 7. printzipioa ("**Larrialdi-egoeran gaude, eta azkar eta erabakimenez jardun behar dugu**" dioena) ez da behar bezala aplikatu, eta alde horretatik, Enplegu Plana abian jartzeko erabilitako baliabideen bolumena errotik hobetzeko ezertxo ere ez da egin.

Beste printzipio batzuen falta ere sumatzen dugu, hala nola ekonomia dinamizatze aldera kontratazioan egonkortasuna sustatzearekin lotutakoak, enpleguaren kalitatea bermatzen dutenak, eta lan-prekarietatearen eta iruzurraren aurka egiten dutenak.

EGABen EKARPENA JASOTZEKO JAURLARITZAREN PROPOSAMENA

Gobernagarritasun-metodoari dagokionez, Enplegu Plan honen jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoetan EGAG ere egon zedin 1. ekarpenari buruz emandako erantzunean esandakoari eutsiko diogu hemen.

Aurrekontuei dagokienez, berriz, 7. ekarpenari emandako erantzunak balio beza.

Beste printzipio batzuk aintzat hartzeari dagokionez, Plan honen garrantziari buruz eta zenbait helburu lortzearen abian jarri beharreko baliabideei buruz aurreko erantzunetan esandakoa errepikatzen dugu.

EGABen 18. EKARPENA

Beste alde batetik, 5. helburua honela osatzea proposatzen dugu:

*"5. **Inbertsio publikoa zein pribatua aktibatzea, bai eta lan intentsiboak ere, enplegua sortze aldera**.*

Azkenik, helburu hauek gehitzea proposatzen da:

*"8. **Egoera ahulean dauden kolektiboen eta 45 urtetik gorakoen kualifikazioa sustatzea, pertsona horientzako programa espezifikoak garatuta, enplegua lortzeko bidea den aldetik**.*

*9. **Lana, bizitza pertsonala eta familia bateragarri egitea.***

*10. **Gizonen eta emakumeen arteko enplegu-berdintasuna.***

*11. **Lan-ezbeharrak murriztea, produkzioaren ikuspegi baten bidez.***

*12. **Lan-prekarietatearen aurkako borroka egitea eta enpleguan egonkortasuna eta kalitatea ziurtatzea**".*

EGABen EKARPENA JASOTZEKO JAURLARITZAREN PROPOSAMENA

5., 8., 9. eta 10. helburuei buruzko proposamenak jasoko ditu Enplegu Planak.

11. eta 12. helburuak Plan honetan edo beste baliabideren batean sartzearekin ados bagaude ere, horren gaineko erabakia EGABen esku uzten dugu.

EGABen 19. EKARPENA

1. PROGRAMA OPERATIBOA: ETEak ETA TOKIKO GARAPENA SUSTATZEA. Ez deritzogu egoki tokiko garapena eta turismo- nahiz landa-sektoreen garapena uztartzeari. Tokiko garapenari buruzko ikuspegi mugatu hori, gainera, ez dator bat LANBIDEk lana sustatzeko martxan jarriak dituen programekin.

EGABen EKARPENA JASOTZEKO JAURLARITZAREN PROPOSAMENA

Tamalez, ez gaude erabat ados EGABen balorazioarekin. Ziur asko, Planari buruzko interpretazioan ere ados ez egotea, horixe izango da gure arteko desadostasunaren arrazoia. Gure ustez, landa-, merkataritza- eta turismo-sektoreak ezin dira bereiz ulertu, baina, hala ere, Jaurlaritzak haietako bakoitzari buruzko politika espezifikoak abian jarriak ditu dagoeneko, tokiko garapenari oso lotuak, udalek eta mankomunitateek horietan esku hartzeko aukera dutenez gero, nahiz eta horiek mikroenpresen sorreran eta lehiakortasunean ardaztuta dauden. Hala ere, beste esparru batzuk ere egon litezke beste sektore batzuekin lotuak, zerbitzuekin batez ere, eta alde horretatik, lana sustatzeko Lanbidek abiarazitako programak oso egokiak dira, enplegua sortzeko balio dezaketelako. Beraz, EGABen ekarpena oso kontuan hartuko dugu Plana exekutatzeko fasean.

EGABen 20. EKARPENA

2. PROGRAMA OPERATIBOA: EKINTZAILTZEA SUSTATZEA. Ekintzailtza sustatzeari dagokionez, sortu berri diren enpresen jarraipena egiteari buruzko ardatz espezifiko bat sortu beharko litzateke.

EGABen EKARPENA JASOTZEKO JAURLARITZAREN PROPOSAMENA

Egia da sortu berri diren enpresei laguntzeari eta haien jarraipena egiteari buruzko hori dela gure Ekintzailtza Sistemaren gabezia nagusietako bat. Ez dugu ardatz espezifikorik sortu horretarako, eta beraz, oso kontuan hartuko dugu EGABen gomendioa Ekintzailtzari buruzko Euskadiko Planean.

EGABen 21. EKARPENA

3. PROGRAMA OPERATIBOA: GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA. GAZTEENTZAKO BERMEA. Lehenbiziko aukerak praktiken eta beken bitartez bideratzen dira nagusiki, eta horretan, ez da behar beste kontuan hartzen modu horretara sortutako enpleguaren kalitatea, ez eta gazteek lanean jarraitzeko zer aukera dituzten ere. Gazteen artean, gainera, kualifikazio-maila eta adina ez dira kontuan hartzen, nahiz eta jardunbide-ildoak horren arabera hartu beharko liratekeen.

EGABen EKARPENA JASOTZEKO JAURLARITZAREN PROPOSAMENA

Gazteei eskarmentua eta prestakuntzarik bikainena eskaintzeko zenbait jardunbide eskaintzen ditu Planak, gure enpresetan sortutako enplegua lortzeko aukera berberak izan ditzaten. Lan-merkatuan sartzeko bidea eman nahi diegu gazteei lehen lan-esperientziaren bitartez. Izan ere, gazteei erraztasunak eman behar zaizkie "eskarmenturik ez, enplegurik ez" gorpil zoroa hausteko.

Bigarren gogoeta bat ere egin beharra dago. Gazteentzako enplegua sustatzeko ekimen bakoitzak onuradun jakin bat du ardatz, eta horretan, jakina, prestakuntza eta adina oso kontuan hartu behar dira. Gainera, beste zenbait neurri espezifiko ere abian jarriko dira, gazteen itzulera errazteko beharra oinarri hartuta.

EGABen 22. EKARPENA

Harreman instituzionalerako eta partaidetza-harremanerako formulak Honela diosku Planak: "*Planak parte-hartzearen eta gardentasunaren aldeko apustu garbia egiten du*". Gizarte-eragileek dokumentu honetan behar besteko parte-hartzerik izan ez dutela-eta gorago esandakoari eusten diogu. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ere ez du behar adinako parte-hartzerik izan, gure ustez.

EGABen EKARPENA JASOTZEKO JAURLARITZAREN PROPOSAMENA

Antzeko beste gomendio batzuei emandako erantzunek garbi utzi dutenez, gure asmoa da zenbait mekanismo martxan jartzea, Plana exekutatzean eta eguneratzean parte-hartzea eta gardentasuna bermatzeko. Hezkuntza Sailaren parte-hartzeari dagokionez, berriz diogu Sail horrekin elkarlanean jardun dugula lan-heziketarekin eta Unibertsitatearekin lotutako jardunbideetan. Parte-hartze horren ondorio ditugu hauek, besteak beste: Lehen Aukera programa, Lan Heziketan ekintzailtza babeseko programa, eta enpresetan beka lortu eta praktikak egiteko egitasmoa.

EGABen 23. EKARPENA

Planean, programen eta ardatzen araberako baliabideak zehazten dira, eta finantziario propioa eta baliabide pribatuak bereizten.

Bigarren horiei dagokienez, gure gogoeta orokorretan esandakoari eusten diogu hemen; izan ere, ez dakigu baliabide pribatuak lortzeko zer bide erreal urratu nahi diren, eta beraz, gure ustez, zehaztasun handiagoz azaldu beharko litzateke hori.

Programa operatiboen xehetasunei dagokienez, ohar hauek egin nahi ditugu:

- **1. programa operatiboa: ETEak eta tokiko garapena sustatzea.** Gure iritziz, Programa hau abiarazteko ekarpen publikoa oso eskasa da (1.397 milioi euroko aurrekontutik % 0,51 inguru baino ez). Gai izango ote da Jaurlaritzak finantziario pribatu itzel hori mobilizatzeko? Horixe da gure galdera.
- **2. programa operatiboa: Ekintzailtza sustatzea.** Teorikoki ekintzailtza alderaren aldeko itzeleko apustua egiten den arren, Plana martxan jartzeko Jaurlaritzak eskura dituen baliabiden % 2,2 baino ez da erabiliko programa hau abiarazteko.
- **3. programa operatiboa: Gazteen Enplegua Sustatzea. Gazteentzako bermea.** Ez ote da kontraesankorra, Plan honetan aldeztu dena kontuan hartuta, Heziketa dualerako eta Gazteen ekintzailtza sustatzeko Programa honetako funtsen % 19,8 eta % 10 erabiltzea, hurrenez hurren? Horixe da gure galdera. Horrez gain, kontratazioarako jardunbide-ildorik ez dagoela ere hautematen da, gazteentzako lehenbiziko aukerak praktiken eta beken bitartez bideratzen baitira nagusiki.
- **4. programa operatiboa: Enplegurako prestakuntza.** Harrigarria da, prestakuntzari dagokionez, inbertsio pribatuak ia kontuan ez hartzea, eta programa hau abian jartzeko baliabideak hain eskasak izatea (baliabide guztien % 7,2 baino ez).
- **5. programa operatiboa: Enplegu Inklusiboa. Enpleguarekiko solidaritatea.** 5.1. ardatzeko tokiko eta eskualdeetako enplegu-planei dagokienez, Batzorde honek zalantza bat dauka: egin al da kalkulurik batere Tokiko Administrazioek EAEko Aurrekontu Orokorretan diruz lagundu beharrekoa kalkulatzeko?
- **6. programa operatiboa: RENOVE. Birgaikuntza.** Bolumenari dagokionez, hauxe dugu Enplegu Plan honen baliabide gehien jasotzen dituen bigarren programa. Batzorde honek ez daki baliabide horietatik zer kopuru erabiliko den langileak kontratatzeke, ez eta horretan nahikoa izango ote den Planak aurreikusten duen ekarpen publiko eskasa (Programaren % 18,6).

EGABen EKARPENA JASOTZEKO JAURLARITZAREN PROPOSAMENA

Kofinantziazio pribatuari dagokionez:

- 1. programa operatiboak jasotzen duena. ETEak eta tokiko garapena sustatzeari dagokionez, abal eta berme publikoen ondorioz "bertan goxo" egin duten erakunde pribatuei dagokie finantziazioa. Kasu gehienetan, akordioak sinatuta daude dagoeneko, eta beraz, ETEek eta autonomoek eskuragarri dute dirua. Dena dela, dirua eman ala ez erabakitzea finantza-erakundeen esku dago.
- 2. programa operatiboan (Ekintzailatza sustatzea) jasotzen dena mikrokreditu-programa bati dagokio. Noiz sinatuko zain gauden arren, akordioa prest dago dagoeneko.
- 6. programa operatiboan (Renove Etxebizitza) jasotzen dena estu lotuta dago etxebizitzak birgaitzeko pizgarriekin lotutako beste programa batzuetan mobilizatutako inbertsio pribatuari buruzko kalkuluarekin.

Gainerako gogoetak programa operatibo bakoitza aztertuz azal litezke, eta urteroko planetan zehaztuko da haiekin lotutako edukia.

EGABen 24. EKARPENA

Plana kudeatzeko eredua. Planak honela dio: "*Plana Lehendakaritzak sustatu eta sail arteko batzorde iraunkor batek koordinatuko du, eta batzorde horren egitekoak planaren jarraipena eta ebaluazioa egitea izango dira*". Gure iritziz, baina, gobernagarritasun-eredu hori ez da behar adina zehazten Planean.

EGABen EKARPENA JASOTZEKO JAURLARITZAREN PROPOSAMENA

Enplegu Planaren garapenean haren emaitzak eraginkortasun handiagoz ebaluatzeko premiak kontuan hartu eta gobernagarritasun-eredua hobetzeko eta zehazteko konpromisoa hartzen du Jaurlaritzak.

EGABen 25. EKARPENA

Planaren jarraipen- eta ebaluazio-sistema. Batzorde honek honezkero esana duena nabarmendu nahi du: eraginak neurtzeko adierazleak ez direla programa bakoitza kudeatze aldera erabilitako erreferentzia kuantitatiboak baizik, eta aurreikusitako helburuak lortu diren jakiteko ez dutela informaziorik ematen. Zehatz esateko, "enplegarritasun handiagoa" lortzeari buruz aipatzen diren adierazleak kudeaketa-xedatzaileak (LANBIDE) abiarazita lor litezkeen izaera instrumentaleko jardunbideei buruzko informazioa emango ligukete, baina ez, inondik ere, helburu hartutako emaitzei buruzkorik.

Datu horiek, jakina, ezin erabil daitezke emaitzei buruzko adierazle gisa, erreferentziazko magnituderik (biztanleria aktiboa, langabeak, lana dutenak; kolektibo espezifikoak, adinaren, kualifikazioaren eta abarren arabera...) ez baitute ematen. Gehienez ere, Kudeaketa Organoek egindakoaren berri eman diezagukete, baina horretarako, jakina, ez dute behar adinako zehaztasunik. Hala, "enplegarritasuna handitzeko beste baliabide batzuk" izeneko epigrafeak aipatzen dituen 175.545 pertsoneri dagokienez, egia esan ez dugu inolako daturik zer kudeaketa-motari buruz ari garen jakiteko. Era berean, enplegurako prestakuntza oinarri duen programan, "enplegarritasuna handitzeko" baliabideek 208.391 pertsona dituzte jomuga, baina ezertxo ere ez da esaten ikastaroen batez besteko iraupenari buruz.

Are gehiago: orientazio- eta/edo prestakuntza-jardueretan "parte hartze" hutsa "enplegarritasuna handitzearen" parekotzat hartzea nahasgarria da; izan ere, horri dagokionez, oso kontuan hartu behar da zer-nolako eragina duten lan-merkatuan egoera sozial eta pertsonalekin lotutako faktoreek.

EGABen EKARPENA JASOTZEKO JAURLARITZAREN PROPOSAMENA

Garbi dugu zenbait jarduera-programaren bitartez nabarmen hobetu daitezkeela enplegagarritasuna handitzearekin lotutako neurketa-adierazleak. Nolanahi ere, orientazioari eta prestakuntzari buruzko kudeaketa-xedatzaileak erabiliz izaera instrumentaleko zenbat jardunbide abiaraz daitezkeen argi eta garbi identifikatzeko gure konpromisoa ere aski adierazgarria iruditzen zaigu. Prestakuntza- eta orientazio-programen eraginak epe laburrean ebaluatzea, ziur asko, zaila izango da, prestakuntza-ikastaro bat egin dutenen enplegagarritasuna ezin baita epe laburrean ebaluatu. Hala ere, prestakuntza- eta orientazio-ikastaroen eragina ebaluatzeko, guri ere aproposa iruditzen zaigu haietan parte hartu dutenen laneratzea urtebeteko epealdian aztertzea. Ildo horretan, aurrerantzean aintzat hartuko ditugu prestakuntza- eta orientazio-ikastaroen ebaluazio- eta finantziario-irizpideak.

